JUANJO OLASAGARRE

Mandelaren Afrika

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Juanjo Olasagarre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Eskerrik asko:

Raul, Mister Smit, Gail eta Tiaan, Stephany,
Clara, Berenice de la Croix eta Peter Guess,
Antjie Krog, Chris van Wyk, Raks Seakhoa,
Lwazi, S’khumbuzo eta TRC taldea,
Pierre eta Dean, Robbie, Alex,
Freddy eta Erich, Philip eta Jessie,
Anja Salafranca, Marietjie, Siphiwe ka Ngwenya,
Shaun de Waal, Matthew Krouse, Martina Egli,
Aitor Agirre (badakizu zergatik,
barkatuko didazulakoan),
eta Pimu (sei hilabete asko dira-eta).

Orotara 1.219.080 kilometro koadro. Bederatzi probintzia autonomotan banatua: Western Cape (hiri nagusia: Cape Town); Northern Cape (Kimberley, Upington); Transkei (Port Elizabeth, East London, Umtata); Kwazulu Natal (Durban, Vryheid); Orange Free State (Bloemfontein); North-West (Mmabatho); Gauteng (Johannesburg, Pretoria); Eastern Transvaal eta Northern Transvaal (Pietersburg).

Azken erroldaren arabera 40’7 milioi laguneko populazioa. Beltzak 30 milioi inguru, 5 milioi inguru zuriak, 3 milioi coloured-ak eta milioi batedo asiarrak.

Beltzak bi talde nagusitan banaturik daude: nguni taldea eta sotho taldea.

1.– Nguni taldea: zuluak, xhosak, swaziak eta ndebeleak. Zuluek Kwazulu Natal dute herrialdea; zulueraz mintzo dira; beraiek dira identitatea hobekien gorde dutenak. Xhosak asko barreiatu ziren XIX. mende erdialdean; izan ere, Nongqawuse deituriko neska xhosa batek profezia bat izan zuen 1856an: profeziak agindu zuen azienda guztia hiltzea, ezen, handik aurrera, lu-

rrak emanen baitzien azienda eta jateko behar zuten guztia... eta xhosa jendeak azienda guztia hil zuen, haien aberastasun bakarra!; jakina, lurrak lehortea baino ez zien ekarri, eta gosetea hedatu zen; xhosa jendeak hirietara eta beste lurralde batzuetara jo zuen. Ndebeleak Transvaalen bizi dira eta, jatorriz, Zimbabwekoak dira.

2.– Sotho taldea: leinuaren nazioa Lesotho baldin badute ere, gehienak Hego Afrikan bizi dira.

Gainontzeko etnia beltzak talde txikiagoak dira: tswanak, jatorriz Botswanakoak; tsongak; vendak, zeinak Hego Afrika, Zimbabwe eta Mozambikeren artean banandurik dauden. Talde hauei gehitu behar zaio khoi-san herria, zeina Cape Town inguruan bizi baitzen kolonizatzaileak ailegatu zirenean. Khoisanak ia desagerturik daude. Gelditzen diren gutxiak Kalahari desertu inguruan bizi dira, mendebaldeko zibilizaziotik erabat aparte.

Herri hauek guztiek beren hizkuntzak mintzatzen dituzte. Erlijioz gehienak kristauak dira: katolikoak, metodistak, Zion elizakoak. Batzuk-ba-

tzuk erlijio kristaua bertako sinesmenekin nahasi dute.

Zuriek ere bi talde nagusi osatu dituzte:

1.– Afrikanerrak: holandar kalbinistak eta Frantziako erregeari ihesi etorritako higanoten ondorengoak. Hauek bozkatu izan duten National Party alderdi politikoak ezarri zuen apartheida. Afrikaans-ez mintzo dira, nederlandera oinarri harturik, frantsesaz eta bertako hizkuntzez aberastutako *patois*a. Gehienak Dutch Reformed Church elizakoak dira.

2.– Ingeles jatorrikoak: Hego Afrika Britainia Handiko kolonia bilakatu zenean etorritako kolonizatzaileen ondorengoak.

Bi talde hauez gainera, zurien artean ere badira talde txikiagoak: juduak, Bigarren Mundu Gerratik ihesean iritsitako Europa erdialdekoak, portugaldarrak, italiarrak eta abar.

Beltzen eta zurien artean colouredak daude, 3 milioi inguru. Colouredak mestizoak ditugu, eta apartheid garaian aparteko kategorian sailkaturik zeuden. XVII. eta XVIII. mendeetan Holandako Indiar Konpainiak Malaysiatik ekarritako esklaboen eta konkistatzaileen eta esklabo bel-

tzen arteko odol nahastetik sortutako jendea dira colouredak. Afrikaner kulturakoak dira, kolonia garaian beren kultura galdurik, nagusiena hartu baitzuten. Asko eta asko musulmanak dira, nahiz eta katolikorik eta protestanterik ere baden. Dena dela, Cape Town inguruko coloureden artean islama talde ikur bilakatzen ari da.

Azkenik, mosaikoa bukatzeko: asiarrak, hinduak gehienak, zeinak ingeles kolonizazioarekin batera etorri baitziren. Kwazulu Natalen bizi dira, eta haien hizkuntzak baldin badituzte ere, ingelesez mintzo dira batik bat.

1488: Vasco da Gama iritsi zen Cape Town (Lurmutur Hiria) izanen zenera. Jan van Riebeeck-ek egin zuen lehen asentamendua, Konpainia Holandarraren izenean. Khoi eta san herriekin topo egin zuen. Ekialderago xhosa herria. Ipar mendebaldean zulu herria. Eta erdialdean sothoak.
1688: Higanotak ailegatu ziren.
1700: Esklaboak ekartzen hasi ziren: malaysiarrak, Afrika erdialdekoak... Mende oso bateko esklabo trafikoa.
1779: Xhosak gudan Cape Koloniaren aurka.
1787: Zulu erresuma indartsua sortu zen, Xaka enperadorea buru zuela. Zulu erresuma gatazkan hasi zen hegoaldera zituen xhosekin.
1806-36: Britainia Handia Cape Koloniaren jabe egin zen. Koloniaren eta xhosen arteko gudek jarraitzen zuten, Koloniaren hedatzeak haien lurraldea hartu baitzuen
1836-54: Great Treak (Bidaia Handia): boerrak ingelesen menpekotasunetik ihesi. Iparraldera jo ahala gudan hasi ziren sotho, ndebele eta zuluekin. Errepublika boerrak sortu zituzten: Transvaalgo errepublika iparraldean, Natalgoa ipar-

ekialdean, Orange Free State erdialdean. Ingelesek Natal konskistatu zuten.

1856: Nongqawuse neska xhosaren profezia. Gosetea.

1880: Zuriek diamanteak aurkitu zituzten Kimberley inguruan. Boer eta ingelesen arteko lehen guda.

1886: Johannesburgen urrea aurkitu zuten. Urrearen kontrolagatik, ingeles eta boerren arteko bigarren guda.

1902: Boerrek guda galdurik, Hego Afrikako kolonia eratu zen, betiere Inperio Britainiarraren menpean.

1910: Hego Afrikako Errepublika sortu zen, Britainiar Inperiotik kanpo. Etnia afrikarrek ez zuten eskubiderik izanen. National Partyk (boerren alderdiak) aurretik bazetorren beltzen kontrako diskriminazioa legeztatu eta apartheida ezarri zuen.

1912: African National Congress (ANC) sortu zen.

1914: Partidu Komunista (SAPC), Hego Afrikako lehen talde politiko ez-arrazialaren sorrera, ANCren talde politiko kide eginen zena.

1920: Koalizioan lan egiten hasi ziren SAPC, Hinduen Kongresua eta ANC. Bestalde, zulu erregeak Inkhata kultur mugimendua sortu zuen.
1950: Desafio Kanpainak: apartheidak ezarritako banaketa hautsi nahian, jende beltza zuriendako tabernetan sartzen hasi zen edo zuriendako bakarrik gordetako autobus aulkietan esertzen, paseen aurkako kanpainak...
1955: ANCk, SAPCk, Hinduen Kongresuak eta Demokraten Batzarrak (zurien talde politiko bat) Freedom Chapter (Askatasunaren Agiria) sinatu zuten, berebiziko garrantzia duen agiria, bizitza politikoaren ildoa markatu baitu.
1959: ANC barnetik, zatiketa moduan, Pan African Congress (PAC) sortu zen.
1960: Sharpvilleko sarraskiaren ondoren (16 hildako), bide armatuari ekitea erabaki zuen ANCk, Umkhonto we Sizwe (Herriaren Lantza) antolaturik.
1964: Nelson Mandela abokatuari biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten.
1975: Mangosuthu Buthelezi printze zuluak Inkhata berpiztu zuen, askapen mugimendu gisa.

1990: Inkhata Freedom Party sortu zen (IFP). ANC legez onartua. National Party eta ANCren arteko negoziazioak, Hego Afrikan demokrazia ezartzeko.
1994: Hauteskundeetan ANC talderik bozkatuena izan zenez, Gobernuan ari da, botoen %5etik gora lortu zuten beste talde politikoekin. Nelson Mandelak, adiskidantzaren izenean, atea ireki baitzien PAC eta National Partyri.
1996: Konstituzio berria sinatu zen. Hego Afrika bederatzi probintzia autonomotan antolaturik dago. Hamaika hizkuntza ofizial ditu: ingelesa, afrikaansa, ndebelea, iparraldeko sothoa, hegoaldeko sothoa, swazia, tswana, venda, tsonga, xhosa eta zuluera.

Kaffirbootie bat da emakume hori

Air Franceren hegazkinean iritsi naiz Cape Townera, edozein Vasco da Gama bezala... basko eta zuri. Uda da Hego Afrikan, Hego Europan negua denean. Ez dugu hodeirik jo eta ez da istripurik izan. Bidaia oso lasai egin badut ere, lur hartu dugunetik tximeletak ditut sabelean, gertatuko dena ezin sumatuz. Motxila bizkarrean, maleta eskuan, Nadine Gordimerren *None to accompany me* eleberria bestean, aireportuko gela nagusian barneratu naiz. Gizonezko beltzaran batek eskua altxatu dit jende piloaren artetik.

– Kaixo, Jurie naiz –afrikanerra da, boer bat, lanbidez bihozkailu saltzailea.

– Ni Juanjo. Pozik zu ezagutzeaz.

Autoan sartu gara, aire egokituaz. Eguraldi zoragarria egiten du. Autopistan barna goaz. Ni paisaiari begira. Burdin-uralitaz, olez, plastikoz, lastoz egindako txabolak hare gainean eraikirik.

– Horrelako batean bizi naiz –esan dit Juriek adar joka–, baina gure auzoa hau baino oraindik kaskarragoa da!

Irribarre egin diot, «hasi gaituk!» pentsatzen.

Guguletu, Michael Plain, Langa... autopistan barna aurreratu ahala auzoak aldatuz doaz. Figura beltz batzuk txabolen artean. Nowbray: etxetxo txikiak larreska aurrean. Observatory: coloured-en auzoa. Eta azkenik City Stad: dorre erraldoi batzuk, abenidak, badia han behean bi mendi tontorren artean: Table Mountain bata, Lion's Head bestea. Ezkerretara jo dugu. Hormez inguratu eta alarma sistemez hornituriko etxe victoriar koloretsuak. Miseria gorrienetik luxura, hamar kilometroren buruan.

Auzoko pisu bakarkakoetan bizi da Jurie: Panorama Mansion. Ez dago gaizki txabolatxoa. Lau gela handi eta bi komun. Jardina, balkoi ederra eta badiara bista miragarria.

– Ez esan hori irakurtzen ari zarela! –Juriek Nadine Gordimerren liburuan erreparatu du.

– Barkatu?

– Hori irakurtzen ari zara? –errepikatu dit.

– Hego Afrikan gertatzen denaz jabetzeko erosi nuen.

Begiak dir-dir ditu Juriek.

– Kaffirbootie bat da emakume hori.

– Kaffirbootie?

– *Kaffir* hitzak beltza esan nahi du ez oso modu positiboan, eufemismo bat erabiltzeagatik; eta *bootie* hitzak anaia esan nahi du afrikaansez. Geroz: beltzen anaia, beltzen laguna, beltzen maitalea.

Oi euskaldunok! Zuek denok liberal communist zarete. Nadine Gordimer liberal communist da. Zer irakurtzen dute liberal communistek? Beste liberal communisten liburuak. Arrazonamendua segi dezaket: Nadine Gordimer kaffirbootiea da, nork irakurtzen dituzte kaffirbootieen liburuak?, eta abar.

– Baina Juanjo –segitu du, nire irudiko adar jotze tonua areagotuz–, aise konturatuko zara gauzak ez direla emakume horrek kontatzen dituen bezala. Hau nazio demokratikoa da orain. Apartheida duela hiru urte bukatu zen; beraz, orain bakoitza nahi duen tokira irits daiteke. Kontua, jada, ez da azalaren kolorea, norberaren tre-

betasuna baizik. Gainera, zure buruan ahalbait azkarren kokatzeko zera esanen dizut: nazio honetan turista eta arrazista baten arteko ezberdintasuna... bi aste baino ez dira.

Europako zati bat

Braai batera gonbidatu nau Juriek. Braaia arrasoan egindako saiheski-jana baino ez da. Afrikaner kulturaren baitan erroturiko sinboloa izan da, afrikanerrak nekazariak izan baitira ia mende honen erdialdera arte. Suaren inguruan, Jainko Handia eta ortzia lagun, afrikaner kultura goratzen zuten, hizkuntza goraipatzen, kalbinismoa erlijio bakartzat aldarrikatzen, jende 'garbia' taxutzen, kontserbadurismoa indartzen eta, noski, apartheida sostengatzen.

Baina egun arraza eta klase ezberdinen ohitura bilakatu da braaia. Braaiketan *(braaing)* ariko zaizkizu larunbat gauean Sandton Johannesburgeko auzune aberatseneko biztanle judutarrak nola Sowetoko pobrerik pobreenak, edo Cape Towngo Manemberg *township*eko colouredak.

Nelson Mandelak berak ere braai batera gonbidatu zuen Winnie Mandela, National Partyrekin negoziazioak hasi eta etxalde-kartzela batean zegoela. Gorpuak bertan, braai eta braai ariko zi-

tzaizkizun poliziak 1986an, Guguletun ANCko zazpi militante hil ondotik.

Iritsi gareneko sua eginik zuten parrillan, eta gizonak (gizonen zeregina baita haragia erretzea) inguruan zebiltzan edariak eskuan; emakumeak lorategian sakabanaturik.

Azal ilunskako neska gazte batekin ondoratu zait Jurie.

– Hau nire arreba da: Jazzmin, Jazz. Hau: Juanjo, nire lagun espainiarra... Tira, nire lagun euskalduna –zuzendu du berehala.

– Arreba? Ez duzue batere antzik!

– Bai, begietan –arrapostu egin du Juriek, bien begi berdeak seinalatuz.

Juriek edariak ekarri dizkigu eta suaren ondoan haragia erretzen ari diren gizonengana hurbildu gara. Gau osoa beratzen edukitzen dute haragia menda uretan. Suan paratu baino bi ordu lehenago atera eta gatza botatzen diote. Gehiegi egiten dute haragia nire gusturako, baina ona dago.

Juriek afrikaansez ez dakidala esan eta segituan aldatu dira ingelesera.

– Kaixo, ni Nico naiz eta hau Peter. Txiste batekin ari ginen...

– Ezetz asmatu –Peterrek– zergatik dagoen beti irribarrez Steve Wonder?

– Ez...

– Ez dakielakoz beltza dela! –algaraka hasi dira.

– Zer iruditzen zaizu Hego Afrika? –galdetu dit Nicok, haragiari buelta ematen dion bitartean.

– Ailegatu berria naiz. Eta ezagutu dudan bakarra Hego Afrika zuria da.

Esan ahala konturatu naiz txistea eginik utzi dudala.

– Merezi duen bakarra! –bota du Peterrek.

Zalaparta batean lehertu dira denak.

– Izan ere, oso kultura ezberdinekoak gara zuriok eta beltzak –xuabe-xuabe ari zait Nico, hegoafrikar zurien irudia zuritu nahian, nonbait–. Haiek ez dute lana eta kapitalismoa entenditzen. Esaterako, ni aseguru konpainia baten bulegoko burua naiz Cape Townen. *Affirmative Action* bidez sartutako beltza daukat laguntzailetako. Beltza da, jakina. Badakizu zer den Affirmative

Action? Zera da: beltzek garai zaharretan ezin zuten konpainietako goi postuetan lan egin...

– Adimenak ematen ez dielako! –bota du Peterrek.

– Badakizu hori ez dela egia –muzin egin dio Ni cok–. Beno, ezin zituzten zuriendako gorderik zeuden lanak egin. Gobernu berriak beltzak enplegatzeko programa bat sortu du orain, eta beltzek lehentasuna dute lana lortzeko orduan. Ez daude beharturik, baina programa horri atxikitzen zaizkion konpainiek irudi hobea daukate. Gaur egungo egunkarietako lan eskaintza gehienak programa horri loturik daude.

– Horrek esan nahi du –eten dio Peterrek atzera–: zenbat eta beltzago orduan eta errazago lana lortzea!

Haragia egina dago. Platerak ekarri dituzte. Haragia hartu eta belar gainean eseri gara. Gauetze epela egiten du. Hemen nagoenetik lehen aldiz begiratu diot ortziari. Hegoaldeko Gurutzea. Hemen ez dute Esne Biderik.

– Hator nirekin! –Peter daukat aldamenean barra-barra eginik–. Hator!

Etxearen aurrealdera eraman nau eta Cape Towngo badia erakutsi dit.

– Ikusten duk ze edertasun? Munduan ez zagok hau bezain leku ederrik. Hemen bakarrik egiten diagu afrikaansez. Hau duk nire lurra! Zergatik aldegin beharko nikek?

Egon naiz zerbait esatekotan, baina horretan utzi dut.

– Gure arbasoek sortu ziaten hau dena. Haiek eraiki ziaten hiri hau, haiek garatu ziaten nazio hau, eta orain... guk, afrikanerrok, ez diagu britainiar jatorrikoek bezala nora aldegin. Hau duk gure lurra!

Badakit *Garunen Ihesa* delakoaz ari zaidala. ANC gobernura ailegatu denetik egoera politiko eta sozial 'nahasiak' eragin duen zuri prestatuen emigrazioaz ari zaidala.

Isildu egin da. Goitik behera begiratu dit.

– Ez dik merezi –amaitu du, eskuaz zerbait uxatzeko keinua eginez–. Hi europar harroxko bat baino ez haiz –bizkarretik heldu eta lorategira itzuli gara–. Juanjori hiri honen edertasuna erakusten aritu naiz!

Lehen baino motelago dago braaiko giroa. Jendea etzanda dago belarretan, kukuxumuxuka. Edaria bukatu da. Juriek joateko keinua egin eta altxatu egin gara. Adio esan diegu.

Jazz arreba etxean utzi eta Jurieren balkoian eseri gara.

– Begira hori Juriek badia seinalatu dit; argiak ñir-ñirka, dorre erraldoiak, autopistak–. Hau Afrika dela iruditzen zaizu? Hau ez da Afrika, hau Europako zati bat da!

– Afrikako lurraldean.

– Bai, Afrikako lurraldean, baina Europako zati bat. Zu biziko zinateke Afrikan? –esan dit, zertaz mintzatzen jakin ez dakienari gordetako tonuan.

– Bai, zergatik ez?

– Ez dakizu zertaz ari zaren! Zuek europarrok beti berdin. Irakastera etortzen zarete. Eta ez dakizue zer dagoen lehian –ebatzi du Juriek haserre antzean.

Horrela segitzeraz ederrak aditu beharko ditut. Estrategia aldatuko dut:

– Aizu, Jazz zure arreba oso guapoa da.

– Jazz!? –harritu zait–. Azala ilunegia du niretako eta begi zapal horiek ekialdetar airea ematen diote. Ez da nire edertasunaren ereduan sartzen.

– Benetan da zure arreba?

– Zer ba?

– Ez dakit... Ez duzue antzik eta!

– Esan dizut, begietan... Ez gizona ez, ez da nire arreba. Zuzen zabiltza. Jazz coloureda da. Familia tradizional eta musulmanekoa. Jakinen duzunez, Capeko coloureden %60 musulmana da. Etxetik ihes egin eta nire etxean sortu zitzaidan. Aterpea eman nion. Hura ezkero, nire arreba dela esaten diot mundu guztiari. Afrikaans azenturik gabe ingelesa mintzatzen ikasi zuen, auzune zuri batera etorri zen bizitzera, beloa eta arropa musulmanak alde batera utzi zituen. Hitz batean esateko, zuri bilakatu da. Gehienek ez dakite coloureda dela, eta dakitenei ez zaie inporta.

– Eta orain ze harreman du familiarekin?

– Haren aitak hiltzat ematen du.

– Nobela hegoafrikar bat dirudi. Neska gazte bat, arraza mugak iragan eta zuri bezala bizi

dena. Gero umeak beltzak atera eta zuriek arbuiatu eginen dute...

– Kontu horiek ez dira jada gertatzen. Hego Afrika berrian bizi omen gara.

Mandelaren Jauregia

Balkoian eseri naiz *Cape Times* egunkaria eta, Jurieren liburutegian ezezik, hegoafrikar guztien etxean aurkituko duzun *Cry my beloved country (Negarrez gure aberri maiteagatik)* nobela kaskarra leitzeko asmotan. Liluragarria nola biltzen den hiria itsaso inguruan! Juriek esan zidan bezala, hau ez da Afrika. Dena den, ez dakit nolakoa izan beharko lukeen Afrikak, zein estereotipo bete beharko lukeen.

Badia sarreran Robben Island, Bartolomeu Dias menturazale portugaldarrak 'aurkitu' eta kolonizatu zuen lehen lur puska. Robben Islandi buruzko gehigarria dakar egunkariak gaur. Van Riebeeck-ek hor paratu zuen Ekialdeko Indiar Konpainia Holandarreko lehendabiziko hornidura basea. Hortik abiatu omen zuen Afrikako 'aurkikuntza'. 1658tik kartzela izan zen Robben Island. Bertako biztanleen –khoikhoi, guk hotentotak deitzen diegu– Autsumato buruzagia atxilotu zuen Van Riebeeckek.

Gehigarria buru-belarri irakurtzen ari naizenez, ez naiz ohartu ere egin Jurie hurbildu zaidala.

– Zertan ari zara?

– Lur puska horri buruz leitzen.

– Zer, kaffir nagusiaren jauregia?

– Kaffir nagusia?

– Mandelaren Jauregia esaten diogu Robben Islandi. Tira, gogoratzen duzu sarri Gail etorriko dela, zure etxearena-eta komentatzera? –Jurieren etxea utzi eta Gailenera joatekotan nago.

– Bai.

– Bitartean zuk segi Hego Afrika Berriari buruz informatzen; gero kontatuko didazu. Izan ere, ni ez naiz hemengoa, hemen bizi baizik ez bainaiz egiten –eta etxe barnera desagertu da.

Milaka preso pasatu izan dira Robben Islandetik: Macassar (Holandako kolonia asiarren buruzagi matxinatua), xhosa buruzagiak, African National Congress-ekoak, South African Communist Partykoak eta abar. Denetarik famatuena: Nelson Mandela. Egun, irla turismorako amu bihurtu dute.

– Hello! –entzun dut atetik.

– Zer moduz, aspaldikoa! –erantzun du Juriek.

Berrogei urte inguruko emakumea da Gail. Eskoziarra. Duela lau urte Hego Afrikara lanera etorria. Juriek aurkezpenak egin ditu.

– Pozik zu ezagutzeaz –esan dit, orain arte Hego Afrikan entzun ez dudan azentu britainiarraz.

Kafea eskaini du Juriek. Kafearekin eseri gara balkoian, badiara begira.

– Zerbait ikasi duzu Hego Afrika Berriari buruz? –bota dit Juriek, maltzur.

– Berriari buruz? Ez, Hego Afrika Zaharrari buruz –esan diot, ezin adar joka nire ingelesarekin–. Robben Island aspalditik da kartzela. Zaharra beraz.

– Badakizu –esan dio Juriek Gaili– jendeak nola esaten dion Robben Islandi? Mandelaren Jauregia. Izen egokia!

Gailek irribarre ñimiño bat besterik ez du ageri aurpegian.

– Ez zaizu barregarria iruditzen? –oldartu zaio Jurie, bihurri–. Ez esan zure umore britishak ez dizula barre egiten uzten.

Gail, ezer erantzun gabean, niregana zuzendu da, Jurie demasa delako keinua eginez.

– Jurie –ausartu naiz, hilabeteko elkarbizitzak emandako konfiantzaz–, fucking bloody racist bat zara!

– Eta zu ez? Begira: alemaniarrek beltzak gustuko dituzte, baina turkiarrak gorrotagarri; australiarrek beltzak eta turkiarrak maite dituzte, baina txinatarrak eta vietnamdarrak ez dituzte ikusi ere egin nahi...

– Denok gara arrazista orduan?

– Jendea ez da arrazista urrutikoekin, bai ordea ingurukoekin.

– Ez nago konforme –erantzun diot, eztabaida batean sartzeko prest.

– Aizu, ijitoekin duzuen arazoa konpontzen duzuenean hitz eginen dugu. Zuk zenbat ijito lagun duzu?

– Nik batere ez... baina ezagutzen dut...

– Bai, zure lagunaren lagun baten lagunak ezagutzen du bat –eta barre egin du algara batean.

«Agoteez baleki», pentsatu dut; «hala ere horrek ez dezake arrazismoa justifika». Eulia eta kakaren txistea.

– Baina Jurie –ausartu zaio Gail ere–, zuk ezin duzu justifikatu...

– Gail, zaude isilik, edo 27.000ak ekarriko dizkizut gogora!

27.000 da Bigarren Anglo-Boer Gudan britainiarrek kontzentrazio eremuetan eduki zituzten haur eta emakume afrikanerren kopurua, zeinetarik asko eta asko hil egin ziren.

Sangoma

Neskamea daukate zuri gehienek, baita klase ertaina erdietsi duten beltz gehienek ere. Idazle lagun batek esan zidan: «Gaztea zarenean agintzen diozu zeure buruari zerbitzaririk ez duzula edukiko, baina gero sistemak harrapatu eta neskamea hartzen duzu, lorazaina, auto garbitzailea... denetarik; eta azkenean pentsatzen duzu... zer eginen diogu, horrela behintzat familia batek jateko izanen du!».

Apartheid garaian, eta oraindik ere, emakumezko zerbitzari beltzei *girl* (neskatoa) esaten zieten, gizonezkoei *boy* (mutikoa). Berdin da zenbat urte, hirurogei urteko emakumea girl izanen da beti, berrogeita hamar urteko gizakia beti boy izanen den bezala. Terminologia hau ez da *zuzena* gaur egun, baina jendeak elkarrizketetan, hitzen bila ibili ondoren, boy edo girl esaten du azkenean.

Jurieren etxean neskamea nuen eta Gailen etxera aldatzean, bat gutxi ez balitz... bi: 'ofiziala' esanen genukeena, Mavis, eta hura laguntzen

duen ahizpa. Badakit berez ez dela Mavis. Beltz gehienek, batez ere apartheid garaian bizi izandakoek, bi izen dituzte: izen afrikarra eta zuriek aise ahoska dezaketen izen ingeles edo afrikaansa.

– Zein da zure izena? –galdetu diot, apartheidaren kontrako nire borroka pertsonalean saiatuz.

– Mavis –erantzun dit, «bada hilabete elkar ikusten dugula, eta zertara hator orain galdera horrekin!» esan nahiko balu bezala.

– Baina zure izen afrikarra? –Ez dit esan nahi–. Tira, esaidazu.

– Tsmala –erantzun dit lotsaturik.

Tsmala xhosa etniakoa da, Transkein jaioa. Ez da, ordea, Transkein bizi, urrutiegi dauka. Guguletun bizi da, Cape Town inguruko txabolez eraikitako townshipean. Handik etortzen da egunero hirira, asteko egun bakoitzean etxe ezberdin batera lanera. Tsmalaren ingelesa nirea baino kaskarragoa da eta zaila da gure arteko komunikazioa. Hala ere, elkar ulertu dugu mila itzulingururekin.

Tsmala zazpi seme-alabaz erditu zen, baina bi baino ez ditu bizi. Senarrak aspaldi utzi zuen (aurrerantzean ezagutuko ditudan neskame gehientsuenei gertatu zaien bezala), eta bakarrik hazi behar izan zituen.

– Zenbat irabazten duzu?

Ez dit erantzun nahi izan, baina erraz egin ditzaket kontuak. Guk pagatzen diogunaren arabera pagatzen badiote besteek, 800 rand inguru irabazten ditu. Huskeria bat. Kafe batek 4 rand balio ditu-eta.

Sukaldean ari da lan eta lan... Komuna garbitzen haren ahizpa.

– Eta nongoa zara zu? –galdetu dit Tsmalak.

– Spain –esan diot, Euskal Herria non dagoen azaltzeko zailegi izanen delakoan.

– Han jende beltzik bada?

– Ez. Bat edo beste bai, baina oso gutxi.

– Ez dago Amerika inguruan? –harritu egin da.

– Ez, ez. Badakizu non amaitzen den Afrika iparraldean? Ba hantxe.

– OK –esan dit, ulertzen duelako keinua eginez; baina Spain non dagoen ez duela ulertu konturatu naiz.

Hitz eta pitz harrapatu gaitu Gailek, bostak aldera sortu denean. Gabonak dira eta Gabonak hemen ipar hemisferioko abuztuaren antzeko dira. Opor usaina.

– Transkeira noa oporretan –aipatu dio Tsmalak Gaili–. Hurrengo bi asteetan ahizpa bakarrik etorriko da lanera.

– Ni ere oporretara noa –adierazi dio Gailek–, datorren astean bertan. Juanjo da etxean egonen den bakarra, hortaz, galdetu hari garbitzera etorri behar duzun ala ez.

– Beno, beharbada hobe hurrengo astean etortzen ez bazara –esan diot Tsmalaren ahizpa izengabeari–; hurrengoaren hurrengoan etorri.

– Abenduaren 28an? –egutegia atera du poltsikotik.

– Hori da.

Komunera sartu dira eta aldatuta irten. Badoaz. Aldegin dutenean esan dit Gailek:

– Badakizu Mavis sangoma dela?

– Zer?

– Sorgin-mediku-buruzagi antzeko batzuk dira sangomak.

Jendeak haiengana jotzen du gaixo dagoenean edo etorkizuna jakin nahi duenean edo... Afrikar gehienek ‘mendebaldeko medikua’ eta sangoma dituzte. Sangomek gaixotasunak sendatzen dituzte, amodio galduak berreskuratzen lagundu, begikoak uxatu, animen aurka borrokatu, etsaien aurka babestu eta abar. Mavis oso pertsona inportantea da bere komunitatean, nahiz eta, hemen, etxea garbitzen duena baino ez izan.

Abenduak 28 ditu. Bakarrik utzi naute etxean. Badakit gaur Mavisen ahizpa etorriko dela etxea garbitzera. Bederatziak aldera jaiki naiz. Non ote dago emakume hau? Beste batzuetan hemen izaten da ordu honetarako. Berandutzen ari da. Ogia eta *Cape Times* egunkaria erostera irten dut. «Hirugarren Indarraren berri bazekiela ukatu du De Klerk presidente-ohiak. Apartheid garaian beltz populazioa eta beltzen aldeko eskubideen alde borrokatzen zirenak beldurtu eta zigortzeko, ustez Poliziaren kuarteletan eta

Gobernuaren oniritziarekin antolaturiko Hirugarren Indarraren berri...».

Itzulitakoan ikusi dut lehen irteterakoan ikusi ez dudan oharra. Letra biribilez idatzita dago, nirea baino ingeles traketsagoan:

«Gizon espainiarrari: Zuk esan gaur etortzeko. Ni etorri naiz. Haizeak gogor jotzen eta euria eta euria. Ordu erdi baino gehiago egon atarian zure esperoan eta zuk ez atea ireki ere egin nahi. Non dago zure hitza? Eskerrik asko nire denbora eta dirua alferrikaltzeagatik».

Berriz leitu dut. De Klerk bat bezala sentiarazi nau.

Xhosa

Xhosa eskoletan hasi naiz, ia horrela beltzen bat gehiago ezagutzen dudan. Zortzi bat gara, zuriak gehienak. Coloured bi ere badaude. Ez da oraingoan izanen... irakaslea ere zuria baita.

– Molweni –agurtu gaitu Stevek, edozein okasiotarako balio duela argitu ondoren.

– Molweni –erantzun diot.

– Ez, ez Juanjo. Lagun bakarra agurtzen duzunean «molo» esan behar duzu –argitu dit–. Beraz... uyaphila? –gal detu dit.

– Ewe, uyaphila –erantzun diot.

– Ez, Juanjo, ez. Badakit ni ongi nagoela, hori erantzun baititazu. Ewe, nola esaten duzu «ni»?

Apunteak begiratzen hasi naiz gainontzekoen arreta neureganaturik.

– Ndi, ndi esaten da.

– Orduan...?

– Ewe, ndisaphila –esan dut, neu ere ongi nagoela erantzunez.

– Ongi, baina zerbait paratu duzu gaizki. Ndi: ni; phila: nago. Baina phila (egon, izan) aditzari beste denbora marka bat dagokio.

– A bai. Ewe, ndiyaphila –erantzun dut azkenean zuzen.

Hitz zerrenda bat eman digu pronuntziazioa lantzeko. Ahoskatzea ez litzateke zaila klikengatik ez balitz.

– Badakizue hiru klik daudela: c: horzkaria; x: albokaria; eta q: ahosabaikaria. Tira ba, goazen hirurak lantzera.

Niri behintzat (pentsatu dut) bi azkenekoak berdinak iruditzen zaizkit belarrira, eta zailak ahora.

Lehenabiziko klika: esan itzazue hitz hauek: amancici (belarritakoak), cinga (pentsatu), coca (garbitu). Eraman ezazue mingaina hortzetara eta kolpe bat eman. Soinuak hortzak eta mingainaren artetik atera behar du.

Hurrengo klika, albokaria. Eraman ezazue mingaina alde batera eta zurrupatzen ariko bazinete bezala egin. Xhosa, xoxa (eztabaidatu) eta xelela (esan). Denok hasi gara ozen, batzuk besteok baino arrakasta handiagoz.

Azkeneko klika, ahosabaikaria: qonda (ulertu), qhuba (gidatu), iqanda (arrautza). Hau behintzat ez dut horren gaizki egiten.

– Orain Juanjo, zuk bakarrik –eskatu dit Stevek.

– Qonda, qhuba, iqanda –esan ditut mingainaz sabaia klikatuz.

– Barkatu Juanjo, baina atzo esan genuen bezala, qhuba-aren *h*-a arnastu beharra duzu.

– Bai, baina denera ezin dut ailegatu. Klik egiten badut, aspirazioaz ahazten naiz; eta *h*-a aspiratzen badut, ezin dut klik egin!

Binaka jarri gaitu agurrak lantzeko. Agurrak oso inportanteak omen dira xhosaz, ez omen da gizalegekoa elkarrizketa bat hastea agur formalik erabili gabe.

– Unjani (zer moduz)? –galdetu diot nire aldamenari–. Uyaphila?

– Ewe, ndiyaphila –erantzun dit.

– Uphilile? –galdetu diot sasoian dagoen jakin nahian.

– Ewe, ndiphilile –baietz, sasoian dagoela.

– Ngubani igama lakho (zer izen zaizu)?

– Ngu Rober igama lam.

Horrela joan zaigu klasea. «Hambani kakuhle (ongi izan)» esanez agurtu gaitu Stevek hurrengo asteraino.

– Hambani kakuhle –erantzun diot neronek.

Zer edo zer egin diat gaizki, pentsatu dut Steveren aurpegiari erreparatzean.

– Singularra, Juanjo, singularra...

– Hamba kakuhle!

1976ko Belaunaldia

Nahiz eta 1988an *Separated Areas Act* delakoa, arraza ezberdinetako jendea auzune banandutan bizitzera behartu zuen legea bertan behera gelditu, oraindik ere nabariak dira lege horren ondorioak: hirien geografiak arrazaka marrazturik daude. Beltzak etorri, etortzen dira auzune zurietara, lanera baino ez bada. Zuriei, ordea, ez zaie bururatu ere egiten township beltz batera joatea. Are gehiago, nik joan nahi dudala esaten diedanean, hoberenera, «zertara?» botatzen didate; «zure europar erosotasunetik beltxiño gixajoak zein miseriatan bizi diren ikusiz turistarenak egitera?» ironizatzen dute maltzur.

Kontua da bi hilabete daramatzadala Hego Afrikan eta ez dudala, neskameez gain, batere beltzik ezagutzen. Gezurra dirudi Afrikan nagoela. Baina gaur, azkenera, jende beltza bilduko duen braai batera joanen naiz Gailekin.

– 1976 Belaunaldikoak dira –esan dit Gailek txosten bat luzatuz.

Sowetotik Hego Afrika osora hedatu zen altxamendua hasi zuen belaunaldia. Beltzen hezkuntzaren eskasa, eskola gainpopulatuak, apartheidaren egoera jasanezina... txinparta txiki bat nahikoa izan zuten lehertzeko. 1976ko ekainean Gobernuak eskolako gaiak ingelesez ikasi beharrean afrikaansez ikastera behartu nahi zituen. Ikasleek protesta egin zuten eta Poliziak demasaz egurtu zituen. Altxamendua Hego Afrika osora zabaldu zen, eta urte t'erdian 600 lagun hil eta 3.000tik gora zauritu zituzten. Gobernuak atzera egin behar izan zuen, afrikaansa derrigorrezko egiteko asmo hartan.

– Altxamenduko protagonistak ume mukitsu batzuk baino ez ziren –argitu dit Gailek–, hamabi-hamazapi urteko neska-mutilak. Horiek hogeita hamar urte inguru dituzte orain, eta sortzen ari den beltz klase ertaineko partaide dira asko.

– Azkenean, ezagutuko ditut beltzak!

– Ez hainbeste uste. Ezagutuko dituzun beltzak, Juriek dioenez (nahiz eta ni ados ez egon), ez dira beltzak, beltz zurituak baizik.

– Beltz zurituak?

– Juriek ukatu egiten die belztasuna mendebaldetu egin diren beltzei.

Gailen txostena leitzen hasi naiz:

Ikerketak 30 urte inguruan dauden gizonemakumeak hartu ditu. Gurasoek hezkuntza eman zieten, gehienak eskola multi-arrazialetan edo beltzendako eskola onetan aritu dira. Auzune zurietan bizi dira, auto ona dute, sakelako telefonoa darabilte, eta bidaiak egiten dituzte negozioak direla-eta. Aisialdietan: futbola ikusi, townshipetako *shebeen*etan dibertitu, *party*ak lagunen etxeetan, jazza entzun, antzerkira joan eta etxetik kanpo afaldu. Jende horiek hartu zituzten lagintzat, eta elkarrizketetako emaitzak hauexek dira:

1.– Aberastasuna baliogabetzat jo dute, baldin eta tartean ez badago balore afrikarrik; alegia, komunitatearekin konpartitu gabeko aberastasuna bada.

2.– *Ubuntu* aipatu dute. Ubuntu filosofia honetan laburbil liteke: «Zu bazara, gainerako jendeari esker da, horrexeri esker soilik». Beraz, esan daiteke Ubunturi dagozkion baloreek bizirik dirautela: helduenganako errespetua, komunita-

tearen partaide sentitzea, kontzientzia soziala garatzea, familia ardatz nagusitzat hartzea.

3.– Kontzientzia politikoaren garrantzia, zuritzat joa ez izateko. Zuri izatea negatibotzat dute: harrokeria, hertsikeria, insentsibilitatea, inseguritatea, besteekiko goxotasun eta kezka falta.

4.– Egoneza ageri dute. Haien bizitzan gertatutako aldaketek balore hauek galaraziko ote dituzten beldurra, sustraiak galtzeko kezka.

Elkarrizketatu batek kontatu zuen:

«Mutila eta biok autoan gindoazen. Gizon bat hurbildu zitzaigun semaforoan eta *umlungu* (zuria) esan zigun. Ni haserretu egin nintzen. Ez zaituzte haietakotzat jotzen. Eta guk dugun ingelesezko azentu onak makurrago egiten du afera. Euren larrua bezalakoa duzu, baina zu auzune zuri batean bizi zara, auto on batean zoaz, unibertsitatean ikasia zara... beraz, ez zara nahikoa beltz. Aldaketa nabari du jendeak gugan, guk nabari ez dugun neurrikoa. Orduan, zure jendearengandik bakarturik senti zaitezke, eta aldi berean ez zara gizarte zuriko parte. Geure gisako gutxiengoaren artean babestu behar izaten dugu».

Klase ertainaren eredua zurien eredua da, eta sortzen ari den klase ertain beltzak ez ditu eredu propioak garatu. Haien buruei zera galdetzen diete: zein bizimodu eredu garatzen ari gara, afrozentrikoa ala eurozentrikoa?

Non egin duk ile-mozketa hori?

Auzune urrun batera iritsi gara. Lorategiz inguratutako etxeñoaren atarian, lapur ziztrinena ere hiltzera bultzatuko lukeen BMW irrikatu pare bat dago aparkaturik.

– Lwazi –esan dit Gailek.

Lwazi zulua da, Durban aldekoa. Gailekin arestian aipatu txostenaren antzekoak egiten ibilia baina, egun, TRC *Truth and Reconciliation Commission* delakoan ari da, apartheid garaian giza eskubideen aurka egindakoak epaitzen dituen erakundean. Dotore jantzirik dago Lwazi, txaketa berde batekin, kaskoa ia afeitaturik du aldeetan, luzetxoago gainean.

– Unjani! –agurtu nau Lwazik zulueraz.

– Unjani! –erantzun diot nire xhosako lehen lezioak gogoratuz.

Lwazik, beltz askok bezala, Hego Afrikako hizkuntza gehienak jakiteaz gain, alemana eta ingelesa ere mintzo ditu. Ingelesa dena den, Ox-

fordeko azentuarekin mintza badezake ere, nahita dauka beltz azentuz zipriztindurik, borroka garaietan gaizki ikusia baitzegoen zuri azentua.

– Gure aita beti izan da ingeles-zalea, txikitxikitatik ikasi genuen hizkuntza, eta ikasketak ere ingelesez egin genituen. Afrikaansa zertarako? Zertarako ikasi hemen baizik hitz egiten ez den hizkuntza?

– Hala ere hitz egiten duzu, ezta?

– Bai, beharko. Nahitaez ulertu, behintzat, egin behar zenuen. Ni ez naiz afrikaans-zalea. Aurreko egunean artikulu bat bidali nuen egunkarira, non nioen hamaika hizkuntza gehiegi direla eta sortu beharko genukeela guztien nahasketaz bakar bat. Argi dut, hizkuntza horretan haserrea adieraztekoek afrikaansez izan beharko luketela.

Jende franko ailegatu da. Lorategiaren inguruan gabiltza denok; Gail eta biok, zuri bakarrak. Gizakiak ederki jantzita, traje eta gorbataz asko; emakumeak, gona-traje dotoreekin, edo bakerotan, mottoa atzera orrazturik edo txirikorda estensioekin. Makillatuak gehienak.

Haragi errea eta putua (kuskusaren antzeko zereala) mahai gainean. Edateko garagardoa. Ahotsaren bolumenak gora egin du azkeneko minutuetan. Jazz musika dator bozgorailuetatik: Pops Mohamed, jazz afrikar xuabea.

– Non egin duk ile-mozketa hori? –galdetu dio Lwaziri gelaren bestaldetik hurbildu zaigunak.

– Durbango township batean, Umlazin.

– Banengoen ba! –esan dio tipoak–. Hori duk Cape Towni falta zaiona: beltz kultura!

«Hemen ez badago beltz kulturarik, ez dakit non izanen den», pentsatu dut.

– Zer esan nahi duzu? –ausartu naiz galdetzera.

– Begira, gogor aritzen zara lanean, eta gero Cape Townen ez duzu zerbeza bat hartzera nora joanik!

Milaka leku daude CTn garagardoak hartzeko... Ez dakit zertaz ari diren. Leku horiek zuriegiak ote dira?

– Ni ere konforme nago. CTn ez duzu nahikoa beltzik kultura indartsua sortzeko. Esaterako, ni townshipera joaten banaiz ilea moztera, ez daukat azaldu beharrik nola moztu behar didaten;

baina hiriko leku batera joaten banaiz, azaldu egin behar dut nola nahi dudan, eta gehienetan ez didate nik nahi bezala moztuko, ileapaintzaileak nahi duen eran baizik.

– Jo'burg-en bai, Jo'burgen badago nahikoa beltz kultura!

Alkohol kopuruak gora egitean gora egin du ahotsen bolumenak. Sutsu ari dira politikaz eztabaidan, ANC dela, TRC dela, National Party dela. Algara batean lehertzen dira batzuetan, batak besteari (etnia ezberdinekoak izanik) adarra jotzen dionean, «hago isilik, zulu ostia hori!» bezalako esaldiak botaz.

Gail nekatuta dago eta mugitu egin nahi du. Hor utzi dugu Black Middle Class.

Hara! Gurpila zulatu zaigu hirira bidean. Gail beldurrez irten da autotik. Nik gurpila aldatzen dudan bitartean, telefonoz hoska ari da.

– Zertan ari zara? –galdetu diot, nire gizon harrotasuna mindurik, gurpil bat aldatzeko gauza ez naizela pentsatu duelako.

– Lwaziri-eta hoska!

– Zertarako? –dagoeneko gurpila aldatzen hasia naizenean.

– Ikusten dut badakizula gurpila aldatzen, baina auzo hau –autobide hesiaz bestaldeko etxeak seinalatu dizkit– Manemberg da! Izugarria da horko delinkuentzia maila! Hemen luze egonez gero, jendea hurbiltzen hasiko da eta auskalo zer eginen diguten!

Ingurura begiratu dut. Lasai askoa ematen du. Etxeetan argirik ez da ageri. Gail sakelako telefonoarekin ari da.

– Kaka, ez du bateriarik!

Teknikak, behar denean, ez du funtzionatzen. Gail urduri dago bi aldeetara begira. Aldatu dut gurpila eta abiatu gara.

– Hauxe da Hego Afrikan bizi eta emakume izatearen desabantaila!

– Ez zara exageratzen ari?

– Exageratzen? Egunero, minutuoro emakume bat bortxatzen dute nazio honetan, eta asko eta asko horrelako lekuetan. Adibidez, orain trafiko legea aldatzeko proposamena egin dute: gauez bakarrik gidatzen doan emakumea baldin bazara, semaforoak gorriz pasa ditzakezu. Thendai, braaian ezagutu duzun Zimbabweko neska hori, gorrian zegoen semaforo batean gelditu

zen Johannesburgen; gizon bat hurbildu zitzaion eta pistola paratu zion kristalean; gizonari begieetara begiratu eta argi ikusi omen zuen, leihatila zabalduz gero hil eginen zuela. Martxa sartu eta semaforoa gorrian pasatu zuen; auto bat heldu zen bestaldetik eta istripua izan zuen. Bi hilabete egon zen eritetxean!

Hirian sartzen ari gara. Ez da inor kalean. Harrigarria da zeinen huts geratzen den Cape Town gauez. Autorik ere ez dabil.

– Uste dut klaseak nolabait berdindu egiten dituela populazioak. Hartzen baduzu, eman dezagun, afrikanerrez osatutako braai bat eta maila berdintsuko beltzez osaturiko bat, ezberdintasunak ez dira handiegiak. Beltzek ozenago hitz egiten dute (ezkutatzeko ezer ez daukatela adierazteko modu kulturala da) eta agian gehiago edan. Ez, hori ez, berdintsu edaten dute. Ahotsaren bolumena da ezberdintasun oinarrizko bakarra.

– Beraz, Juriek esaten duen moduan, ez dira beltzak...

– Beltz mendebaldetuak zuritu egin dituzte.

– Ez zuriek bakarrik! –bota diot, txostena gogoan.

Edertasuna

Gail edertasunari buruzko ikerketa egiten ari da emakumeendako produktuak iragartzen dituen konpainia baterako. Eztabaida talde bat dauka, eta gonbidatu nau eztabaida taldea ispilu baten atzetik behatzera.

– Produktuak iragartzeko arazoak dituzte apartheidaren istorioa dela-eta. Apartheidak ezezik baloreek ere eragina dute. Badakizu 80etan emakume beltzek azala zuritzeko erabiltzen zuten produktu baten kontra kanpaina gogorra egin zutela ANCko emakumeek. Produktuak beruna zuelakoz; eta jakina, beruna oso toxikoa izanik, denbora bat ematen aritu ondoren, azaleko gaixotasuna sortzen zitzaielakoz.

Kontua da zenbait konpainiak bi iragarki telebistaratzen dituela (modelo zuria eta modelo beltza), beste batzuk bakarra, beste batzuk konpromezuko firrista batean coloureda. Produktua oso mendebaldekoa bada, emakume beltzek ez dute iragarkia aintzat hartzen, modeloa beltza izan arren. Iragarki bakarrarekin identifikazio

arazoak sortzen dira. Coloured modeloarena zuriek hobeki hartzen dute beltzek baino. Apartheidarekin sinbologia ez da bera arraza guztiendako.

Lau emakume sartu dira gelan, berrogei urte inguruko british bat, hogeita hamar inguruko afrikaner ilehoria, berrogeita hamarreko emakume zulua eta hogeiak pasatxoko sothoa.

Gailek erretratu batzuk paratu dizkie eskuan, bakoitzaren inguruan bururatzen zaiena esateko.

Lehendabizikoan 30 inguruko emakume zuria ageri da irribarre zabalarekin. Argazkia egiteko ile luzea atzera bota izanak txima batzuk utzi dizkio kopetaren gainean. Hippy antzeko belarritako handiak ditu eta jertse nabarra. Zuzen begiratzen dio kamerari, begiak alai.

ZULUA: Nik uste dut azaleko irribarrea duela, ez barneko irribarrea. Badirudi, ileagatik-eta, ez duela bere burua gehiegi zaintzen. Niri behintzat ez zait oso ederra iruditzen.

AFRIKANERRA: Niri oso hurbilekoa egiten zait, polita, lasaia, benetakoa, oso irekia.

SOTHOA: Ez duzue ikusten irribarre hori oso burlatia dela? Burla imintzioa da-eta!

INGELESA: Oso irribarre zabala iruditzen zait. Oso naturala ematen du, lasaia eta aldi berean abenturazalea, mardula.

ZULUA: Ez nago batere ados.

Hurrengo argazkia eman die Gailek. Jite anglosaxoniarreko emakumea, 30 inguru, errubioa, atzerantz orraztua. Begi urdinak. Irribarrez, baina hortzak erakutsi gabe. Eskotedun soineko beltza darama. Lady Di dela esango nuke.

AFRIKANERRA: Ederra da. Lasaia ematen du eta oso sofistikatua.

SOTHOA: Niri ere ederra iruditzen zait, airosa dirudi.

ZULUA: Ez zait batere ederra iruditzen. Hotza da. Ez du konfiantzakoa ematen. Beraz, ez da ederra. Zuriendako produkturen bat saltzeko balio dezake, baina ez litzateke emakume beltzarengana ailegatuko.

INGELESA: Sofistikatua iruditzen zait. Bere buruaz oso seguru dago. Britainiarra edo alemana ematen du. Aristokratikoa.

Hirugarren argazkian emakume mestizoa. Rastafarien antzera txirikorda txikitan orraztua. Diadema moduan paraturik, painuelu nabarra. Begiek dir-dir dagiote. Belarritako biribilak. Irribarre zabala dauka, hortz zuriak erakutsiz.

INGELESA: Ez du batere sofistikaziorik. Hegoafrikarra izanen da.

ZULUA: Hara bestea! Benetako irribarrea duela iruditzen zait niri. Konfiantzakoa, bere buruaz segurua, arrakastaduna!

SOTHOA: Jatorra dela esanen nuke. Ederra, atsegina. Begi xerloak dauzka.

AFRIKANERRA: Irekia dela esanen nuke, interesantea. Amerikarra ematen du.

Azkenekoa emakume beltza da. Aurpegia baino ez zaio ageri. Ile harroa nolanahi erortzen zaio. Begiak ñir-ñirka. Mestizoaren irribarrea baino zabalagoa du, hortz zuri-zuriak erakutsiz.

ZULUA: Begiak barrezka dauzka. Barnetik datorkio horri edertasuna.

SOTHOA: Ederra dela baino ezin dut esan.

INGELESA: Ederra baino gehiago, bizia iruditzen zait, bizi betea. Brasildarra dirudi.

AFRIKANERRA: Karibetarra dela esanen nuke. Edo coloureda. Gaztea, indarrez betea.

ZULUA: Beltza da-eta! Zulua izan daiteke! Zergatik esaten duzu karibetarra ematen duela? Zergatik ezin du hegoafrikarra izan! Dena dela, barnetik datorkio horri edertasuna.

GAIL: Orain esaidazue beste arrazako zein ezaugarri iruditzen zaizkizuen positiboak eta zein negatiboak.

ZULUA: Emakume zuriek oso sudur handiak dituzte. Ezpainak finak, finegiak... eta horrek itsusi egiten du. Ez daukate titirik...

SOTHOA: Bai, ipurdi apalak dituzte. Begi txikiegiak... Hortz gehiegi.

ZULUA: Eta askotan aurpegia estaltzen dute orrazkerarekin! Beno, ilehoria izatea ongi dago.

SOTHOA: Niri gustatzen zait argalak izatea eta masailezurra altua izatea.

INGELESA: Niri ez zaizkit batere gustatzen beltzen titi eta ipurdi handiak. Begiak ere oso hutsak, sakontasunik gabekoak iruditzen zaizkit.

AFRIKANERRA: Ilea da niri gustatzen ez zaidana. Eta sudurrak, sudur motz eta zabal horiek ez ditut gogoko, ezta ezpain lodi horiek ere!

Haien hortzak eta irribarre zabala gustatzen zaizkit.

INGELESA: Azal kolorearen tonua gehiegi gustatzen ez bazait ere, onartu beharrean nago akatsik gabeko azalak dituztela! Mugitzeko modua ere oso deigarria dute.

[*L.A. Confidential* filmeko edozein polizia kirten bezala egon naiz ispilu atzetik adi. Lotsaturik egon naizela adierazi diot Gaili].

– Konturatu zara, oinarrian beltzek ez dutela edertasuna kontzeptu fisikotzat jotzen –esan dit–. Haiendako edertasuna barnetik sortutako zerbait da, nortasuna eta ezaugarri fisikoak batzen dituena. Zuriendako, aldiz, nahiz eta afrikanerrak bat ez etorri erabat, edertasuna ezaugarri fisikoei lotutako zerbait da.

Manemberg

District Six auzunea Cape Town erdi-erdian zegoen. Eta desegin egin zuen National Partyren garaiko gobernuak, arraza ezberdineko jendea auzo berean ezin zela bizi erabaki zuenean. Han *anabasan* eta *lohikerian* bizi omen ziren coloureedak, zuriak, beltzak, homosexualak, prostitutak, gangsterrak... Bakoitza bere arrazakoen artera bizitzera behartu eta Cape Towngo auzunerik zaharrena eta (diotenez) ederrena suntsitu egin zuten eskabadorekin.

Periferian propio sorturiko auzuneetara mugiarazi zuten coloured populazioa, Cape Flats deituriko zonara. Utzitako tokia eta zigorra ahantz ez zezaten-edo, District Six zaharreko karriken izenak paratu zizkieten auzo sortu berriei.

Horietako batera eremanen nau gaur Hudsonek: Manembergera. Hudson, nire irakaslearen laguna, afrikanerra izatez, aspaldi hasi zen Hego Afrikako egoeraz kezkatzen. Baina ez beste batzuk bezala, ideologia politiko batek sortutako gogoetaren ondorioz, baizik eta marjinalitateak

ernetutako sentsibilitatez. Izan ere, Hudson droga guztiak dastatua baita, eta giro marjinal orotan ibilia. Horrela ohartu zen egoerari buruz.

Harea eta harea. Herri txiki baten antzeko auzunea, hare gainean eraikia. Hego Afrikan 1954ra arte ezagutu gabeko pisu-eraikinak, zenbait etxetxo lorategiz inguraturik.

Hamazortzi-hemeretzi urteko mutikoa dugu esperoan *sheeben* aurrean: Angelo. Sheebena taberna da, bertako taberna, alegia, zerbezak-eta saltzen dituen etxe partikularra. Hesituriko leihotik eskuratu ditugu garagardoak. Barnean hiru emakume ohean etzanda.

Aulkian eseri gareneko Mercedes handi eta brillant zuria pasa da, dotore jantzitako bi gizonekin. Batek sakelako telefonoa belarrian. Hudsoni galdetu diot begiradaz. Gero Angelori. Bizimodu Latza taldeko gangsterrak dira, bi gizon zuri auzoan dabiltzalako zurrumurrua egiaztatzera etorriak.

– Staggieren mutilak –esan du Angelok, Hego Afrikako gangsterrik handienaren izena aipatuz–. Mendean du zona hau. Beste hura Amerikarrak taldearen menpe dago. Bazterrak harroturik

daude eta ez da giro. Leituko zenuten tiroka gabiltzala.

– Bai –Hudsonek–, gangsterren eta PAGADen artean.

– Halaxe da. Staggie bezalako gangsterrek mendean harturik zituzten auzune hauek, baina duela urte batzuk musulman integristak elkartu, PAGAD sortu (Gangster Eta Drogaren Aurkako Jendea) eta... guda latzean hasi dira gangsterren aurka! Zainketak antolatzen dituzte auzoetan, aurpegia zapi palestinarrez estalitako manifestazioak, auzoko gangster eta drogazaleen aurkako jipoitzeak... Gangster bihurtu dira haiek ere!

Batzuk besteen aldamenean bizitzeak arazoa larriagotu baino ez du egiten. Duela bi urte, adibidez, PAGADen manifestazio bat bildu zen Rachied Staggieren etxe aurrean, zerabilen droga trafikoa salatzeko. Staggieren mutilek inguruko auzoak mendean harturik zeuzkaten, haiek ziren eta dira boterea hemen. Auzo osoak kontrolatzen dituzte, gazteak gangster lanetan enplegatzen dituzte, jaten ematen diote jendeari, dena droga eta prostituziotik lortutako diruaren bidez. Orduan, Staggie anaiak edanean ari omen ziren.

PAGADeko jendea etxaurrean bildurik zeukala jakitearekin bat, familia defendatzera abiatu omen zen Rachied... anaia Rashaad-en arrisku oharmenei kasurik egin gabe. PAGADeko jendeak harrapatu eta su eman zion!

Komunitatearen alde aritzen den jendeak dioenez, *anaia okerra* hil zuten, Rachiedek utzi egin nahi omen baitzion drogak saldu eta gangster izateari.

– Orain Rashaad gelditzen zaigu. Eta hura ez balitz, beste bat izanen genuke –bukatu du Angelok, etsita.

Berriz pasa da Mercedesa. Aldegin ote dugun ikustera etorria beharko du.

Sheebeneko emakumeak hots egin eta afrikaansez hasi zait.

Ulertzen ez dudalako keinua egin diot.

– Emakume bat nahi duzu? –esan dit ingelesez, oheko neskatoa seinalatzearekin batera titi handien keinua eginez–. Garbia da eta oso ederra.

Neskatoari hots egin dio. Leiho hesitura hurbildu da neska, batere lotsarik gabe. Ezezkoa

egin diot. Begiratzeko esan dit, neskari ipurdi masailak ukitzen dizkiola.

– Ezetz ba!

Etsi du, baina ez berehalakoan:

– Drogarik? Erre, erre nahi duzu! –tematu da atzera.

– Ezta ere!

Zerbait esan die Angelori eta Hudsoni afrikaansez. Barre egin dute biek.

– Goazen beste etxe horretara –esan digu Angelok.

Sukaldea eta egongela batera dituen etxe txikia. Armairu gainean, telebistaz aparte, arabieraz idatzitako posterra eta liburuak: Korana egin dudan bat eta *Cry my beloved country* baitezpadakoa.

Sofan eserita dago nagusia, ehun kilo izanen dituen gizon coloured handia. Emaztea behar duena, sukaldean ari zaio, burua oihalez estalirik. Suelto-suelto hasi zaigu hizketan:

– Gu District Sixen bizi ginen. Gau batez, handik mugitzeko agindua jaso eta, astebetera-edo, Polizia etorri eta hona ekarri gintuzten. Ez gu bakarrik, auzo osoa mugiarazi zuten. Guk ez ge-

nuen nahi baina. Zu lehen izan zaren District Six zenekoan... orain Unibertsitatea dago. Ez dago alderik! Hau hiritik oso urrun dago, eta hemen dena da harea. Ni oso gaztea nintzen eta ez nuen ezer ulertzen. Mutiko beltz eta zuriekin aritzen nintzen jolasean, haiekin joaten nintzen eskolara... Zer eta handik aurrera nor bere auzunera eta nor bere eskolara! Orain, badakizu, gure etxeak itzultzea eskatu diogu Mandelaren Gobernuari, baina, klaro, gure etxeak eskabadorekin bota zituzten handik mugiarazi gintuzten egun berean. Auzitegira jo dugu eta epaiketa aurrera eramateko diru mordoa eskatu digute. Guk, ikus dezakezuenez, ez daukagu dirurik –egongela seinalatu digu–. Tira, kontua da, ni gizondu nintzenean kamioizale hasi nintzela. Beharbada zuek poliziak izanen zarete... baina igoal dit! Nik armak garraiatzen nituen ANCren talde armatuarendako, Umkhonto we Sizwe-rendako. Zimbabwetik Hego Afrikara.

«Hau ere badugu!» pentsatu dut, esaten ari dena zalantzan jarriz. Badirudi herri honetan azal zuriko guztiak izan direla Umkhontoko laguntzaile. Bisaiak barnea salatu dit nonbait!

– Ez didazu sinesten? –haserretu da–. Egia da! Ez nik politikan sinesten nuelakoz. Niri ez zait sekula politika gustatu, baina ukatzerik ere ez zegoen. Eta horrela egin nituen lauzpabost bidaia. Zimbabwera edo Mozambikera zerbait garraiatu behar nuen aldiro, armak jartzen zizkidaten merkantziaren artean. Leku batean uzteko agintzen zidaten, eta hori zen dena... Baina orain Mandela gutaz ahaztu da! Are gehiago, zapaldu egiten gaitu musulmanak garelako! Gangsterren aurka Poliziak ezer egiten ez zuela-eta, gerok hasi gatzaizkielako borrokan!

– PAGADekoa zara, beraz?

– Bai.

– Eta zer nahi duzue? Ezen esan, esaten baita, gangsterren aurkako borroka aitzakia hartuta, islamismo integrista ezarri nahi duzuela.

– Zuk ez dituzu auzo hauek ezagutzen! –botadit zertaz ari den ez dakienari gordetako begiratu mesprazagarriaz–. Hemengo gazteen gehiengoa droga eta gangsterren menpe dago. Gangsterrak dira boterea. Guk gure jendea izurrite horretatik salbatu nahi dugu. Batzuek diote gu ere gangster bilakatu garela! Baina zer eginen zenu-

ke zuk Polizia arrimatu ere egiten ez den auzo hauetan? Guk haien metodoak baizik ez ditugu erabiltzen. Ez dut uste hau merezi dugunik apartheidaren aurka borrokan aritutakook... ze nik maila berean paratuko bainituzke apartheidak gugan izan zuen eragina eta drogek eta gangsterismoak gaur dutena. Lehen bezain preso bizi gara.

Eskolan

Erosi nuen Vespa eta mapa harturik, Cape Flats aldera abiatu naiz adiskide zurien arrisku-oharrei jaramonik egin gabe. Gaur eskolara noa. Eskola coloured batera, eskola baino gehiago kartzela ematen duen arren. Eskola barrutia hesiturik dago, eta baita leihoak ere.

Irakasleek zein ikasleek, sistema britainiar eta estilo musulmanaren nahasketa dute: trajez jantzita, musulmanen txanoa buruan gizonezkoek, emakumezkoek zapia. Txirrinak jotzean ilara egin eta banan-banan sartu dira geletan, sartu ahala egunonka. Zutik diraute, otoitz egin eta irakasleak esertzeko baimena eman dien arte.

Zuzendariak, malaysiar arrazako colouredak, bulegoraino eraman eta barkamen eskeka aldegin du, nerau eta mutiko gazte bat bulegoan utzita. Patioaren bestaldean ikusi dut gazte talde batekin. Itxura txarrekoak, zerbait esateagatik, gehienak. Hortzak ments izateaz gainera, malabidaren tatuajeak ageri baitituzte: sudur hau-

tsiak, orbainak aurpegian, drogaren ñir-ñirra begietan, eta irribarre panparroia ahoan. Badoaz.

– Badakizu nor ziren horiek? Gangsterrak! Eskolako patiora etortzen dira droga saltzera! Poliziak ezer egiten ez duenez, neronek deitu behar izan ditut eta arazoa konpondu. Ez du arazo hau izanen auzo zuriko eskola bateko zuzendariak, ez! Staggie ezagutzen duzu?

Aditzeraz baietz esan diot, Mandela baino garrantzitsuago bilakatzen ari zaidan izena entzunda.

– Staggiek hona bidaltzen ditu seme-alabak. Aldi berean, hor ikusi dituzun mutiko horiek Staggierendako ari dira lanean eta...

Halako batean, emakume bat sartu da suak harturik. Salam alekum esateko ia betarik gabe, burumakur dagoen mutikoarengana hurbildu eta joka hasi zaio afrikaansez oihuka. Makila bat hartu eta kolpeka hasi zaio batere gupidarik gabe. Zuzendariak patxadaz hartu du andreari makila kentzea. Noizbait ere kendu dio! Ni erabat deseroso nago eta bulegotik atera naiz. Bizpahiru irakasle etorri dira oihuetara.

Hamar minuturen buruan irten dira denak: mutikoa lehen baino burumakurrago, begiak bete-bete eginik, ama oraindik garrasi batean.

– Ikusten duzu zer arazo ditugun eskola honetan –jarraitu du zuzendariak–. Gainera, Mandelak agindutako diskriminazio positiboa ez da betetzen; eskola guztiek diru kopuru berdina jasotzen dute, eta hori ez da zuzena. Auzo zurietako eskolek ez dute honelako arazorik.

Hemen ikasle gehienek ingelesez jasotzen dute hezkuntza, eta afrikaansa dute aukerako hizkuntza (ikasle hauen ama hizkuntza afrikaansa baita). Beste eskola batzuetan, esaterako Western Capeko auzo beltzetako eskoletan, xhosa daukate bigarren hizkuntzatako.

– Izugarrizko arazoak ditugu, zenbait ikaslek ez duelakoz ingelesa ongi menderatzen.

Atea jo dute. Berrogei urte inguruko gizona sartu zaigu bulegoan. Aspaldiko adiskideak bezala agurtu dute elkar. Afrikaansez hitz egin dute. Paper batzuk utzi eta joan da heldu berria.

– Ikusten duzu... –eskaini dit ekarritako papera:

Hezkuntzaren arrakasta bermatzeko ikastaroak:

edozein arazo duzula izanda, geuk lagunduko dizugu!

– Eskola enpresa arrakastatsua bihurtzeko ikastaroa.

– Eskola-zuzendaritza ikastaroa: nola izan zuzendari arrakastatsua.

– Hezkuntza ikastaroa: nola lortu ikaste prozesu arrakastatsua.

Arrakasta hitza da ikastaroen gakoa, bistan da.

– Nire adiskide hau irakasle zen eskola honetan. Orain bere kontura jarri da. Badakizu, irakasle lanpostua ez dago oso ongi pagatua, geletan gero eta ikasle gehiago dago, Gobernuak gero eta diru gutxiago... soldata eskasagoa pagatzen du. Irakasle ofizioak prestigioa zeukan, baina egun ez. Irakasle askok ospa egiten du. Eta prestatuenak dira aldegiten dutenak.

Eskola maila izugarri jaitsi omen da. Orain hezkuntzara bideratzen den diru eskasa gehiagoren artean banatzen delako, ez delako denendako nahikoa ailegatzen. Baina niri ez zaizkit

kontuak ateratzen: garai zaharretan zuriendako bideratzen zen diru gehiena, eta coloured eta beltzendako apurrak baizik ez ziren gelditzen.

– Orain hobea beharko luke eskolak –esan diot.

– Lehen colouredok beltzen hezkuntza baino hobea genuen, batez ere azken hamar urteetan. National Partyren gobernuak eskola beltzetan baino diru gehiago banatzen zuen coloured eskoletan. Beraz, eskola gutxiago zeuden dirua banatzeko.

– Jontxo! –harritu natzaio–. Apartheidaren mailakatze xoragarria.

– Cry my beloved country –erantzun dit zuzendariak.

Antjie Krog

Afrikaans hizkuntzako poetarik nagusienetakoa da Antjie Krog. Orain berrogei edo berrogeita hamar urte inguru dituztenen belaunaldikoa. Hizkuntza irauli, afrikanertasunari *traizio* egin eta beltzen eskubideen alde hasi ziren lanean. Batzuk-batzuk errepresioa jasan zuten beren haragitan, Breyten Breytenbach idazleak kasu, belaunaldi horretako poetarik garrantzitsuenak, zeina Paristik Hego Afrikan klandestinoki sartu ondoren, Poliziak atxilotu eta zazpi urtez eduki baitzuten kartzelan isolamenduan. Han izkiriatu zuen Breytenbachek *Terrorista albino baten benetako aitorpena.*

Antjie Krogek ere, ‘parte hartzea’ erabakirik, afrikaner komunitatearen arbuioa eta Poliziaren jazarpena pairatu zituen. Maistra hasi zen lanean township coloured batean, eta orduan aurkitu zuen «etxetik bertara zegoen beste mundua».

– Atzerria ematen zuen gure bizitzarekin alderaturik, eta hamar kilometro baizik ez zeuden!

«Jende hori ezagutzen» saiatu zen eta haien backgroundari aurre egiten. Eman zuen jauzia ez zen debaldekoa izan, afrikaner komunitateak ez baitzion nolanahi barkatu *bestaldera* pasa izana.

Gaur egun kazetari dihardu Egia eta Adiskidantzaren Aldeko Batzordean (TRC).

J.O.: Azken aldian egunkarietan egundoko eztabaida dago apartheid garaiko zurien jarrerari buruz. Zenbait iritzik diote zuri guztiak errudun direla, beste zenbaitek zuriek ez zekitela zer gertatzen ari zen. Zuk aukera egin zenuen. Nola jabetu zinen?

ANTJIE KROG: Apartheidak oso ongi funtzionatzen zuen, baina ez hainbeste, inguruan aski jende beltz baikenuen zer gertatzen ari zen jakiteko. Ez zen Berlingo Harresiarena bezala, non zurrumurruez baliatu behar baitzenuen gertatzen ari zenaz ohartzeko. Gaur egun horregatik da horren erraza esatea ez zekitela zer gertatzen ari zen. Ez genekien, baina jakin bagenekien. Aukera kontua zen: konturatu eta kontra egiten zenion edo gertatzen ari zena ikusteko itsuturik zeunden... Zurien sukalde guztietan bazen bel-

tzen bat, eta pertsona horri galdetzea besterik ez zeneukan.

[Berrogeiak pasatxoko emakumea afrikaans azentuz lakartutako ingelesez mintzo zait. Harrigarria ere bada, ezen, egun, garai zaharrak ahantzi asmoz jende afrikanerra ingeles dotore azenturik gabean saiatzen baita, apartheida ezarri zutenekiko identifikazioa saihestu nahianedo].

J.O.: Zein da afrikaansaren egoera?

KROG: Afrikaansaren estatusa aldatu egin da. Lehen, garai zaharretan, afrikaansa zen bi hizkuntza ofizialetako bat, baina orain estatus hori beste hamabi hizkuntzarekin konpartitu behar du, eta ingelesa bilakatzen ari da hizkuntza. Eta nik galdetzen diot neure buruari: hizkuntza bat mehatxaturik egonda, hizkuntza horrek jasan ote dezakeen ‘traiziorik’, kritikarik, traidororerik, ezen hiztun guztiak hizkuntza babesten ari baitira. Horrek dakarkio hizkuntzari *itotze efektua,* hiltzen ari deneko sentipena. Beraz defendatu egin behar duzu, beti positibo izan.

J.O.: Afrikaansa ez da kontu garrantzitsuetarako erabiltzen orduan?

KROG: Afrikaans egunkari bat hartu eta berehala ohartuko zara ez dela debate garrantzitsu bakarra ere afrikaansez. Esaterako, hartu ANC barnean gertatzen ari diren talde ezberdinen arteko borrokak; ba, ez duzu hitz bakarra ere aurkituko... National Partyz baizik ez dira mintzo. Gauza bera gertatzen da afrikaans hiztunen komunitate ez-zuriekin; ez dira afrikaans egunkarietan ageri; ez duzu Cape Flats-eko komunitatearen arazoei buruzko arrastorik ere aurkituko. Hori horrela, hiztunek beste hizkuntza batera jotzen dute, ingelesera.

J.O.: Baina beharbada gaur egungo lehentasuna ez datza afrikaans hizkuntzaren etorkizunari buruz kezkatzean, baizik eta nazio bateko herritarra bilakatzean, gizarte bateko partaide bilakatzean.

KROG: Arazoekiko ikuspuntua aldatu egin da: orain klasea da gizartea neurtzeko parametroa. Zuriek oso klase-zentzu azalekoa izan dute beti, arraza zentzu sakonagoa zuten: afrikaner langileak gorago zeuden langile colouredak eta beltzak baino. Baina orain, klase kontzeptuak aurre-

ra egin ahala etnizitate kontzeptuak atzera egiten du.

J.O.: Zuriak (nolabait esateko) begira daude, esperoan, beldurturik, herri honetako gehiengoak... beltzek, alegia, zer eginen ote duten?

KROG: Beldur hori dela eta denek Western Capera etorri nahi dute bizitzera! Zimbabwen izan nintzen oporretan eta haserre etorri nintzen handik. Han dituzu zuriak, antzina bezala bizitzen, kolonia garaietan bezala, pribilejioekin, harro-harro, isolaturik, haiendako bizimodua sortu dute eta ez dute ezer jakin nahi Gobernuaz (esaterako) edo gehiengoaren arazoez. Zimbabwen oraindik kolonia bailitzan bizi dira. Espero dut horrelakorik hemen ez gertatzea. Baina arrastoak ikusiz, bide berean goazeneko susmoa dut: afrikaner jendea Cape Town ingurura, hiriburura etortzen ari da bizitzera, Afrikaans Unibertsitatea hemen dago, Western Cape da National Party boterean dagoen autonomia bakarra. Autonomia hau populazio zuri-zorro bat bihurtzen ari da, eta horrek gehiago oker ditzake kontuak.

Estereotipoak eta zauriak

Nico Malan antzokian gaude, Cape Towngo antzezlekurik handienean. Hego Afrika Berriak Zaharrak eragindako kalteak baretzeko sortutako programa batean parte hartuko dugu. Hego Afrikako arraza ezberdineko langile jendearen arteko harremanak hobetzean datza programa, garai zaharretan gertatutakoari buruz gogoeta egin eta mina sendatzea.

Enpresa handitako langileen artean gosaltzen ari naiz: Shell, Pick and Pay supermerkatu sare erraldoia, South African National Bank eta abar.

Hudson igo da oholtzara eta eguna nola joanen zaigun azaldu digu: antzerkia ikusiko dugu lehendabizi, ondoren geletara joanen gara enpresa taldeka, eta arratsalde partean denok bilduko gara atzera, gauzak nola joan diren ikusteko.

True Colours (Benetako Koloreak) antzezlanaren esku-programak dio: «Hegoafrikarrok beharrezkoa dugu elkar ezagutzea. Eta elkar eza-

gutzetik, aldatzea. Ezen aldatzearen aurkako erresistentzia ezabatzen baita, ohartzean saminagoa dela ez aldatzetik sortutako mina, aldaketak ekarriko diguna baino».

Hasi da antzerkia. Hiru pertsonaia mota daude: Zuria, enpresako nagusia; Colouredak promozionatua izan nahi du, baina nahi zuen lanpostuan Affirmative Action bidez iritsitako langile Beltz berria paratu dute.

Aktore berberek beste hiru pertsonaia egiten dituzte: idazkari zuria, idazkari coloureda, garbitzaile coloureda, idazkari beltza eta igogailuzain beltza.

Hego Afrikako beldur, arraza nahaste eta jarrerak agertzen ditu antzezlanak, modu arin eta trufagarrian. Aretoa mukuru dago, eta jendeak barre egiten du bakoitzaren burua islaturik ikusten duelako.

Bukaera zoriontsua du, Hego Afrikan dagoen gauzak konpontzeko esperantzari erantzunez. Diskriminazio positiboz lana lortu duen Beltzak Coloured langilea etsaitzat ez hartzeko konbentzitu ondoren, Zuria aldatzen dute... eta hirurak ongi moldatzen dira.

Enpresaka biltzeko eskatu digu orain Hudsonek. Pick and Pay supermerkatu sareko langileekin bilduko naiz ni. Gurekin etorri da Hudson. Gela txiki batean sartu gara; gure izenak paratzeko txartel txiki batzuk eman dizkigu; bularrean paratu ditugu izenak.

Hamaika gara, Hudson eta biokin:

NICO, supermerkatuko sailburu afrikaner lodikotea (50 urte inguru).

ROGER, ingeles jatorriko erosketa arduradun kaskagorria (40 urte).

ANIKA, afrikaner jatorriko kutxazain moñoñoa (37 urte).

FATIMA, kutxazain coloureda (28 inguru).

SARA, ordezkatzaile coloureda (31).

TOYA, harakin coloureda (50).

Arraza beltzekoei, zuriek emandako izena eta euren izen afrikarra erabiltzeko esan die Hudsonek.

MAVIS-PHUMZILE, almazenean aritzen den ‘mama’ (60).

CLARA-PUSELETSO, neska gaztea, laguntzaile supermerkatuan (23).

MTHUTHUZELI, banaketan aritzen den mutila, xhosa (25).

Bi koloretako kartulinazko txartel batzuk aukeratzera behartu gaitu Hudsonek. Gorria ala urdina. Bakoitza bere koloreko jendearekin elkartzeko agindu digu.

– Gaurko helburua –dio Hudsonek– bakoitzaren eta gure herriaren historiari buruz hitz egitea da. Baina hori baino lehen norberak bere burua ezagutu beharko du, ezen gerok ezagutu gabe ezin baita inor ezagutu. Bada, UCLA unibertsitateko James Clark irakasleak zera frogatu du: badela kolore aukeraketa eta nortasunaren arteko lotura.

Test bana eman digu erantzuteko. Gero emaitzak atera ditugu denon artean, plastikozko arbel zuri batean.

– Emaitzak oraingoan ere –azaldu digu– Professor James Clarkek lortutakoen berdinak dira. Clark ohartu zen urdina aukeratu zuen jendea Arrazionala dela.

Idatzi egin du arbelean: «Egin Aurretik Pentsatu Egiten Dute. Harremanetarako Onak Dira, Buruzagi Onak, Toleranteak, Orekatuagoak».

Jarraian gorrien ezaugarriak idatzi ditu arbelean: «Suharrak, Egin Pentsatu Aurretik, Harreman Istilutsuak, Jarraitzaileak, Ez-toleranteak eta Agresiboak, Sortzaile Baina Oreka Gabeak».

Gorri taldekoek etsita ematen dute, erorita. Gorri eta Urdin taldeak, bakoitza bere aldetik, gorrien jarrera nola aldatu asmatzen ipini gaitu lanean. Gorriak aretotik bidali eta urdinok geldi-tu gara Hudsonen arreta osoarekin.

Gorriak nola aldatu jardun dugu: euren jarrera aldatu beharko luketela, grinei eutsi, harreman orekatsuagoak landu beharko lituzketela; azken finean... urdinengandik ikasi beharko luketela.

Gero, bakoitzak adierazi du nola sentitzen den daukan kolorearekin. Urdin gehienok pozik gaude urdinak izateagatik, egoki eta zuzenen aldean egoteagatik. Gorriek aldiz, urdinen taldean egon nahiko lukete, beraz aldatu beharra dute urdinak bezalakoak izateko.

– Orain –esan digu Hudsonek–, hartu test hauek guztiak eta egin nik egingo dudana.

Testak hartu eta puskatan txikitu ditu eta gela erdian dagoen zakarrontzira bota. Taldea

harriturik dago. Elkarri begiratu diogu larkara. Testak puskatu ditugu denok. Hudson arbel parean jarri zaigu.

– Tira, ariketa bukatu dugu. Eta orain aitorpen bat egin behar dizuet: Professor James Clark ez da existitzen eta, jakina, ez dago koloreak eta nortasun ezaugarriak lotzen dituen ezer!

Isiltasuna. Ez dugu zer esan nahi duen ulertu.

– Zer esan nahi duzu? –galdetu dio Mthuthuzeli gazteak.

– Aditu duzuena! Test hori gezurrezkoa dela, James Clark neronek asmatu dudala, neronek asmatu dudala koloreak eta nortasuna lotzen dituen test hau! Emaitzak trukatu ditut. Begira.

Lehen Urdinari zegozkion emaitzak Gorrien zutabean daude Hudsonek erakutsi digun paperean. Gorriak: Arrazionalak Dira, Egin Baino Lehen Pentsatzen Dute, Harreman Onak dituzte eta abar.

– Minoriak eta estereotipoak zein erraz sortzen diren erakusteko jolasa dugu hauxe. Ikusi duzuenez, oso erraz sortu ditugu. Hego Afrikan asko dakigu horretaz, estereotipoekin funtzionatu izan dugu orain arte, ez dugu elkar ezagutzen,

eta kanpotik ikusten duguna baizik ez dugu aitatzen gainontzeko taldeei buruz mintzatzean.

Isiltasuna. Taldeak iruzurra nabari du eta aldi berean lasaitasuna gorri eta urdin zera hori jolasa izan delako.

HUDSON: Orain denon artean Hego Afrikan dabiltzan zenbait estereotipo gogoratuko ditugu.

[Inork ez du ezer esan. Jendeak mindurik dirudi Hudsonekin].

HUDSON: Ongi da, ni hasiko naiz... Colouredek asko edaten dute eta, ondorioz, beti liskarretan dabiltza!

TOYA: Hori ez da egia!

HUDSON: Jakina ezetz. Baina estereotipoak gainditzeko, lehenik jakin beharko dugu ba zein diren...

TOYA: Ba bai! [Pentsakor gelditu da]. Colouredoi buruz diote alferrak garela.

SARA: Eta drogazaleak. Denak musulmanak garela. Eta ez da egia.

FATIMA: Hinduei buruz esaten da zikinak direla. Eta ez direla hegoafrikarrak, Indiakoak baizik.

MTHUTHUZELI: Hala da-eta, ez dira hegoafrikarrak. Zuriak hegoafrikarrak ez diren bezalaxe.

HUDSON: Eta Mthuthuzeli, Hego Afrikan sortutako hinduak, nongoak dira orduan?

MTHUTHUZELI: Hemen bizi dira, baina ez dira hegoafrikarrak. Haiek jakinen dute nongoak diren. Zuriak ere ez dira hemengoak. Beltzok gara hemengoak garen bakarrak!

MAVIS-PHUMZILE: Baina hemen jaio badira... hemengoak dira. India ez da haien etxea, edo Ingalaterra edo Holanda. Nik uste dut hemen jaiotako guztiak hegoafrikarrak direla eta denok elkar entenditzeko ahalegina egin beharra daukagula.

MTHUTHUZELI: Baina gu geunden hemen haiek etorri zirenean. Beraz gu gara bertakoak!

NICO: Hori aspaldi gertatu zen, horiek kontu zaharrak dira!

MTHUTHUZELI: Jode kontu zaharrak! Zuri, ziur, apartheid garaiko sarraskiak ere kontu zaharrak irudituko zaizkizu!

HUDSON: Eta zein estereotipo dabil beltzen gainean?

MTHUTHUZELI: Alferrak garela, basatiak, primitiboak, ez dakigula lanean.

CLARA-PUSELETSO: Ez dakigula pentsatzen!

MTHUTHUZELI: Elkar hiltzen dugula!

ROGER: Ez dute merkatuaren legea, kapitalismoa entenditzen.

NICO: Hori ez da estereotipoa, hori egia da!

ANIKA: Nik uste dut egia dela elkar hiltzen dutela. Eta primitiboagoak direla ere bai.

MTHUTHUZELI: Bai, missis...!

[Anika eta Nico izan ezik, taldea barrez lehertu da beltzek apartheid garaian emakume zuriei eman behar zieten tratamendua Mthuthuzeliren ahotik entzundakoan].

MTHUTHUZELI: Zuriek haurrak bezala ikusten gaituzte. Adibidez: nire anaia zaharrena kazetaria da *Cape Times*en; 82tik ari da han lanean; bazuen egunkarian harekin lan egiten zuen lagun zuri bat; behin lagun zuri horrek gurasoen etxera eraman zuen, eta ama ez zitzaion bada umeei egiten zaien ingelesean mintzatzen hasi! Hor ageri da umeak bezala ikusten gaituztela.

TOYA: Niri ere gertatu zitzaidan horrelakorik. Nik fabrika batean lan egiten nuen; behin emaz-

tea eritetxean neukala, joan nintzaion kapatazari eta esan: «Aizu, emaztea eritetxean daukat eta telefonoa erabili nahi nuke nola dagoen jakiteko»; eman dit baimena kapatazak eta joan naiz bulegora; han idazkari afrikanerra aritzen zen: «Aizu, emaztea eritetxean daukat eta hots egin nahi nioke telefonoz»; goitik behera begiratu eta esan dit: «Ez duzu telefono hau erabiliko, nik nahi ez dudalako»; atzera ere kapatazarengana; itzuli gara bulegora eta esan dio kapatazak idazkariari: «Nik gizon honi telefonoa erabiltzeko baimena eman diot eta zu ez zara inor hori ukatzeko... beraz, emaiozu telefonoa eta hots egin dezala!»; han hasi da idazkaria, nola litekeen coloured baten arrazoia zuri baten arrazoiaren gainetik gailentzea: «Baina ni zuria naiz!» esaten zion kapatazari, malkoak zerizkiola. Honekin esan nahi dut, apartheidak ez dituela bakarrik beltz eta coloureden buruak izorratu, zurienak ere ederki asko izorratu zituen!

HUDSON: Horretara joan nahi nuen, zuriengana. Zein estereotipo dabil zuriei buruz?

TOYA: Gaiztoak dira, ankerrak, gupidagabeak!

MAVIS-PHUMZILE: Azkarrak dira.

MTHUTHUZELI: Baina ez zaie nabari...

[Berriz ere barrez lehertu dira taldeko ez-zuriak. Nico, Roger eta Anika, aldiz, serio daude].

MAVIS-PHUMZILE: Nik benetan uste dut azkarragoak direla.

[Phumzilek apartheid garaiko ekoizpen tipikoa behar du].

NICO: Nik ez dakit azkarragoak garen ala ez. Baina kontua da jende zuriak antolatu duela nazio hau, guk eraiki ditugu autopistak, industria eta abar. Guk egin dugu nazio honetaz Afrikako lurralderik aberatsena!

MTHUTHUZELI: Hara bestea! Jende beltzaren izerdiarekin eraiki duzue zuek nazioa hau! Nork egin ditu bestela autopistak? Nor aritu da meatzetan? Nork zerbitzatu zaituztete? Beltzek!

SARA: Eta colouredek eta hinduek...

ROGER: Hori egia da, baina Nicok dioena ere egia da. Pentsatu duzue inoiz non izanen litzatekeen Hego Afrika hemen dagoen zuri populazio handia ez balitz? Ingurura begiratzea besterik ez duzue... Horra Zimbabwe, horra Mozambike...

MTHUTHUZELI: Akojonantea! Gure kultura desegin duzue, gure lurra okupatu zenuten, berrogei urtez aparte eduki eta hil egin gaituzue... eta gainera eskerrak eman behar! Akojonantea.

[Mthuthuzeli garrasika ari da, eta tentsioa labanez ebakitzeko modukoa da].

ROGER: Zuk diozunaren arabera, badirudi zuri guztiok egin dizuegula hori! Eta hori ere beste estereotipo bat da. Begira, nik Pick and Payn lan egiten nuen. Eta, beno, orain bizi naizen tokian bizi izan naiz azken hogeita hamar urteetan. Nolabait esateko, nik ez nekien zer gertatzen ari zen... Esan nahi dut, gu zuriok itsuak ginela zentzu batean, ez baikenekien zer gertatzen ari zen...

ANIKA: Nik ere ez nekien. Gobernu zaharrak begiak itxi zizkigun.

MTHUTHUZELI: Ezin dut sinetsi! Hor zenuten jende beltza, zuen inguruan lan egiten genuen. Zer pentsatzen zenuten?

ANIKA: Guk ez genuen ezer pentsatzen. Ez genuen planteatzen jende beltzaren arazoa. Nahikoa arazo bagenuen bizimodua aurrera ateratzen!

MTHUTHUZELI: Ez dut sinesten.

ROGER: Guk ez genekien! Gogoratu, 80etako ia osoan eszepzio estatua zegoela. Ezin genuen, beraz, gertatzen ari zenari buruz ezer jakin. Komunikabideek ez zuten gertatzen ari zenaz ezer argitaratzen.

MAVIS-PHUMZILE: Nik uste kontu horiek guztiak iragana direla. Ahaztu egin beharko genituzke!

NICO: Nik uste dut, eta ez dezala inork txarrerako hartu, guk afrikanerrok geure eskubideak bermatu genituela apartheid garaian. Gaizki eta izugarrikeriak eginez, egia da, baina azpian gure iraupena zegoen. Orain, beltzen eskubideak bermatzeko hortxe dago Mandelaren Gobernua!

MTHUTHUZELI: Denon eskubideak bermatzeko dago Mandelaren Gobernua!

TOYA: Batzuenak besteenak baino gehiago! Gu colouredok lehen ez ginen nahikoa zuri eta orain ez gara nahikoa beltz!

MTHUTHUZELI: Hori ez da egia!

ANIKA: Hori egia da! Baina, bestalde, coloured jendeek nahi duzuena daukazue. Beltzak bo-

rrokatu dira beren eskubideen alde, baina zuek ez!

FATIMA: Nola ezetz? Coloured asko borrokatu ziren apartheidaren aurka!

ANIKA: Ez nago hain seguru. Zergatik bozkatu zenuten orduan National Party hauteskundeetan? Gu bezain beldur zinetelakoz gobernu beltzaz!

TOYA: [Erabat haserre] Zuek zuriok zeuena defen datzearen alde egin omen zenuten. Bai, baina gainontzeko guztiok zapalduz! Eta gaur da eguna ez zaretena errudun ere sentitzen. Baina errudun zarete, errudun zaretenez!

HUDSON: Gure helburua ez da gaur bertan kontsentsu batera ailegatzea, kontatzea eta besteen iritziak entzutea baizik. Horrela, elkar ezagutuz, bestea ulertzeko modua izan daiteke-eta. Gaurko ekitaldia oso garrantzitsua izan da! Beharbada ez zarete ohartu, baina arraza ezberdinetako jendea nahasten den toki bakarra da lantokia. Ez daukagu, beste leku batzuetan bezala, denok elkartuko gaituen fororik, dela taberna, dela auzunea. Arraza bakoitzeko jendea bere arrazakoen artean bizi da oraindik. Elkar ulertze-

ko guneak sortu beharra daukagu, eta elkar eza-
gutuz sendatuko ditugu apartheidaren zauriak.

Ellen Kuzwayo

– Bihar parlamentuan!? Konforme.

Telefonoa zintzilikatu dut. Ellen Kuzwayo mendearen bigarren hamarkadan jaio zen, beltzak lurraren jabe izan zitezkeen garaian. Haren belaunaldiko asko bezala (Nelson Mandela, Oliver Tambo, Sisulu...) Misioetako eskoletara joan zen. African National Congresseko (ANC) Batzorde Nazionalekoa izan zen aipatu horiekin batera, harik eta Mandela atxilotu eta ANCko buruzagitza klandestinitatera pasatu zen arte.

Urtebete eduki zuten kartzelan, oraindik ere, ia berrogeita hamar urte beranduago, argitu ez dizkioten arrazoiengatik. Egun ANCko parlamentaria da. Johannesburgeko Soweton bizi da, Parlamentuan lanean ari denetan salbu, Parlamentua Cape Townen baitago.

Ederra da Hego Afrikako Parlamentuaren eraikina; sendoa, legearen indarra hormei atxikia balu bezala. Parlamentariak, bulegariak eta abarrak metal detektoretik pasatuz doaz «Unjani!» edo «Good morning» diotela.

Kuzwayoren bulegoraino gidatu naute. Berandutu delako desenkusatu zait ahots lodiz. Ez dagoela zer barkatzerik. Baietz, ordua ordua dela. Laurogei urteko emakume zutia, enantza handikoa. Adinak ez dizkio nolanahi zizelatu zimurrak, gorriak pasatua behar du!

Txalaparta argitaletxeak ateratako liburua jarri diot esku artean. Begiratu eta ez du ulertzen.

– Opari bat? –galdetu dit.

– Bai, opari bat... Zure liburuetako bat da, *Sit down and Listen.*

– Zer esan nahi duzu, hau nire liburuetako bat dela?

– Euskaraz beste titulu bat dauka, baina euskarazko bertsioa eta ingelesezkoa parekatu ditut eta berdin-berdinak dira. Titulua da aldatzen bakarrik. Euskarazkoak *Soweton Kontatuak* du izenburua. Beharbada arrazoi komertzialengatik aldatu diote. Badakizu, Soweto oso leku ezaguna da mundu osoan eta saltzen laguntzen du –desenkusatu naiz, editorea neu banintz bezala.

Liburuaren kontua ulertu duenean oso pozik jarri da.

– Ez nekien nire liburua beste hizkuntza batera itzulita zegoenik! Nire agenteak ez dit ezer esan. Hots egin beharko diot Londonera.

Agendan izkribatu du arkatzez. Indar handia du atzamarretan. Arbola sendo baten erroak dira.

J.O.: Nola uztartzen dituzu zure baitan Hego Afrikan lehian ari diren bi kulturak, afrikarra eta mendebaldekoa?

ELLEN KUZWAYO: Nik bi sustraia mota ditut, nazio honek bezala: Afrikako sustraia, nire kasuan tswana, eta mendebaldeko sustraia. Nire irudiko, bi sustrai mota horiek, bi kultura horiek ez dira aukerakoak; ez dagoela bata ala bestea aukeratu beharrik, esan nahi dut. Biak nire baitan daude eta biekin sintesia egiten saiatzen naiz. Bestela gertatzen da Hego Afrikan. Afrikako kultura nolabait bazterturik egon da eta orain azaleratzen ari da. Jendeak uste baino garrantzitsuagoa da gainera.

J.O.: *Call me woman* zure biografian emakume beltzek apartheidaren aurkako borrokan jokatu rolaz ari izan zara.

KUZWAYO: Oso garrantzitsua izan da emakumeen zeregina borrokan. Emakumeak izan ziren paseak eramatera ukatu ziren lehendabizikoak. Badakizu, lehen, garai zaharretan, jende beltzak nagusiak sinatutako pasea behar zuela bizitokitik mugitzeko. Bada, gizonek urteak zeramatzatenean paseak garraiatzen, Gobernuak emakumeak ere paseak eramatera behartu nahi izan zituenean, ukatu egin ziren eta izugarrizko istiluak sortu zituzten. Izugarriak, emakumeak erotu egin ziren. Hor hasi zen emakumeen borroka. Hala eta guztiz, gizon beltzek ere ez gaituzte, oraindik ere, banakako emakumetako hartzen, multzo bezala baizik. Gaur egun nire kideen iritziak aldatzea zaila da. Oraindik ere *minor* izaten jarraitzen dugu, baina ez gaude prest. Minortasun horretatik aterarazteko izkiriatu nuen *Call me woman,* jendeari hau guztia ezagutzera emateko, eta nire buruari atsedena emateko, noski.

J.O.: Hego Afrikara ailegatu naizenetik barkamen sentimendu itzela nabaritu dut: beltzek, zuriek egin dietenaren ondoren barkatu nahi dituzte, adiskidantzara jo nahi dute.

KUZWAYO: Nire biografia izkiriatu nuenean oso emakume haserretua nintzen. Baina haserrearekin ez goaz inora. Mandelak, kartzelan 27 urte egon ondoren, barkatzen badu, nola ez dut ba neronek barkatuko, urtebete baizik ez naiz egon kartzelan-eta! Mandela oso gizon handia da, haren nortasunak gizarte guztia kutsatu du. Zuk nabaritu duzun barkamen giro horri eusteko, jakina, jendearen baldintzak hobetu behar dira lehen-lehenik. Pobrezia konpondu behar da, pobreziak eragiten baitu krimena eta biolentzia. Hego Afrikako hiri eta herrietan, lehen mundua eta hirugarrena kilometro gutxiren buruan daude. Miseria lekuetatik kilometro gutxitara daude etxe zoragarriak, modako dendarik hoberenak, auto distirantak eta abar. Horri gehitzen badiozu jende beltzak izan duen eta daukan oportunitate eza, koktel lehergarria duzu. Bigarren, hezkuntza sistema hobetu behar da. Eta hirugarren, etxe gabeziaren arazoa konpondu.

[Argazki batzuk egiteko baimena ez dit ukatu. Bitartean, liburuan irakurri dudan pasadizo bat argitzeko eskatu diot].

KUZWAYO: Nire semea apartheidaren aurka aritzeagatik Hego Afrikako iparraldean konfinatu zuten. Ezin zuen zegoen herritik atera, lagun bakarrarekin baizik ezin zuen egon. Kontua da nire semeak ezkondu nahi zuela, eta ezkontza antolatu genuen. Apaiza, nire erraina, haren ama, nerau eta nire senarra biltzea baizik ez zuen onartu Gobernuak. Beraz ezin genuen eztei otordua egin. Polizia beltz bat paratu ziguten etxe barnean eta herrian bertan anitz zeuden barreiatuak. Azkenean herriko jendea hurbildu zen janari pilo batekin eta etxean sartu ziren. Poliziak ez zien sartzen utzi nahi, baina azkenean, hola edo hala, lortu zuten. Barnean zegoen polizia beltza harriturik zegoen. Gixajo hari ere janaria jarri genion plater batean... eta isildu zen. Orduan ikusi nuen herriko jendearen elkartasuna, orduan frogatu zidaten atzera berriz Ubuntua, Afrikako filosofia: «Norbera pertsona da beste pertsona baten bitartez», edo itzul daiteke beste era honetan: «Inor ez da irla bat».

[Altxatu egin da. Uste baino garaiagoa da. «Bi metro inguru gizalege eta ezti», pentsatu dut Parlamentuko labirintoan galdurik].

Guguletu

Guguletura goaz, Cape Towngo township zabalenera. Aireportuaren aldamenean dagoenez, horixe da hegazkinez ailegatutako kanpotarrak ikusten duen lehena. Horixe ikusi nuen heldu nintzenean. Autobide bazterrean dago Guguletu. Gizon multzoak daude autobidearen irteeran. Zain ematen dute.

– Zertan ari dira, Hudson?

– Norbait lana eskaintzera etorri esperoan daude.

– Lana?

– Bai, norbaitek pintore edo igeltsero edo zurgin edo (besterik gabe) langile bat behar duenean hona etor daiteke, komeni zaiona hartu eta lanean paratu.

«Lan bulego ederra» pentsatu dut, gizon beltz saldoari begira.

– Eta etortzen ote zaie inor?

– Noizbehinka bai, baina, badakizu, langabezia izurritea bezalakoa da Hego Afrikan. %30 eta 40 artean omen dago, inkesten arabera. Gehie-

nak beltzak. Beltzen %29 langabezian dagoen bitartean, zurien %4 baino ez dago langabe. Emakumeen kasuan zenbakiak are handiagoak dira. Eta nekazari giroan, hiritik kanpo portzentaiak are altuagoak. Gainera oso beltz gutxik egiten du lan kualifikaturik.

Auzoan barna sartu gara. Blokez egindako etxeak, kaleak asfaltatu gabe, jendea abaroan karrikan. Elizak. Zaborra kalean nonahi barreiaturik. Erdialdetik urrundu ahala etxeen eraikuntza kaskartu egin da. Lehen bloke zena egur da orain. Txabolak, zenbaki bana atean, pilatu egiten dira bata bestearen ondoan, batzuk-batzuk karrikak osatuz, besteak nolanahi.

Lan ordua izanik ere, jendetza dabil harahona.

– Ikusten dituzu –aipatu dit Hudsonek–, beharbada bakoitzean zazpi lagunetik gora bizi da.

Freedom Farm-era goaz, Guguletu inguruko *squatter-camp* batera. Urtetan, apartheidaren legeak indarra galduz zihoazen heinean, zizak bezala sortu dira squatter campak hiri nagusietan. Diru eta lurrik ezean, jendea populazio guneen aldamenetara joan eta txabolak eraikitzen

hasi zen. Horrela sortu dira auzune hauek, ez orden ez kristina. Zuriak kexatu egiten dira, beltz pobreek aberastasunari segika haien auzune inguruetan eraikitzen baitituzte, aberatsek botatako zaborretik bizi ahal izateko-edo. Cape Town erdian adibidez, turismo guneetatik gertu, baina ezkutuan, jende ugari bizi da autobidearen zubiaren babesean; edo Johannesburgen, hiri erdi-erdian dituzu negozio guneetatik bertara.

Freedom Farm –izenak badu ironia– hare gainean eraikita dago. Bertako jendeak ez du ez argindarrik ez kanileko urik. Hesi altu batek inguratzen du auzoa, eta sartzeko ate bakarra baino ez dago.

Johnny gizon xhosa zain daukagu. Hudsonen arrebak etxea berritu behar duela eta Johnnyri lana eskaintzera dator. Oso koloniala iruditu zait niri. Hudsonek bidean esan didan bezala, paper bat eginen omen dio gero, igeltsero ona eta langilea dela esanez.

– Horrela Johnnyk paper hori aurkez dezake, autobidera lan bila ateratzen denean.

Aukezpenak egin ondoren, argitu egin zaio aurpegi mehea Johnnyri, zertara gatozen entzun duenean.

– Behar nuen. Emazteak ahizparen etxera joan behar izan du, jatekorik ez-eta.

Txabolara eraman gaitu. Hormetarako egurrezko olak, teilatua uralitazkoa, zorua kanpoko hare bera...

Emaztea sortu zaigu umea besoetan. Pozik jarri da, Johnnyk egun batzuetarako lana duela jakindakoan.

– Oso gaizki dago lanarena. Hilabete daramat egunero autobidera irten eta inork ez didala lanik eskaintzen. Ezin dut Lanka mantendu eta ahizparen etxera joan behar izan du zerbait janen bazuen. Eskerrak hemen ez daukagun alokairua pagatu beharrik!

Hudsonek ekarritako janaria atera du. Usainera-edo aldamenak sortu dira, eta denok batera afaltzen hasi gara. Gautzen ari du eta Johnnyk auzo-zaindaritza erronda dauka gaur. Harekin eta aldamen batekin abiatu naiz, Hudson txabolan utzita. Egunero egiten dute zaindaritza, txandaka, lapurretatik babesteko.

– Hona ostera etorriko denak ez dauka asko! Zer ostu daiteke hemen? –galdetu diet.

– Ostu beharbada ez, baina bai gaiztakeriaren bat egin... Horregatik paratu genuen auzo inguruan hesia, inor sar ez dadin. Gauero egiten ditugu txandak, iluntzetik hamabiak arte bata, hamabietatik laurak arte bigarrena, eta lauretatik zazpiak arte hirugarrena. Egun argiz zailagoa da gaizkileak hurbiltzea. Lehen ez genuen egiten, baina emakume bat bortxatu zuten behin, eta hura ezkeroz zaintza egitea erabaki zuen auzo-batzarrak.

– Batzarra duzue orduan?

– Komunitate oso antolatua gara. Dirua ere jartzen dugu ahal dugunean, gosez dagoenari laguntzeko. Arazoa da gehienok ere diru gutxi daukagula besteei laguntzeko.

Hesiak ematen duena egin dugu oinez. Bare dago dena. Sua egin dute Johnnyk eta aldamenak. Han aritu gara txutxumutxuan, harik eta Hudson etorri arte.

Itsusia da miseriaren aurpegia.

Agur esan eta autobidean barneratu gara. Lanaren zain zeuden gizonak ez daude. Janen ote

dute gaur? Etorriko ote zitzaien etxea konpontzeko beharrean zuriren bat? Guguletu, Cross Road, Michel Plain, Langa. Beltzetik zurira Hego Afrika Berrian.

Azala baino ez dudala ikusi, kexatu natzaio Hudsoni:

– Turistek egiten duten modura, begiratua bota, sudurra zimurtu eta hotelera lotara!

– Hegoafrikar zuri gehienek sekula egin gabea egin duzu, township batean izan. Zuriok bai garela turistak, gutako askok beltzak ikusi ere ez ditu egiten. Eta orain, halabeharrez, lehendabiziko aldiz, Afrikan bizitzen ikasi beharra daukagu. Eta beldur gara, jakina.

Afrikaren atarian izan ondoren Europarantz goaz, hiriaren erdialdera.

– Ezagutzen duzu *Barbaroen zain* izeneko poema hegoafrikarra...

> Urteetan aldegiteko prest egon naiz.
> Horrela errazago izanen zait garaia ailegatzean,
> Aldaketa ez da hain bortitza izanen eta
> Erosoago ibiliko naiz nire bizitza berrian.
> Urte hauen guztien ondoren balio du esperatzeak.
> Gauzak aldatzeko aukera izan daiteke.
> Baina jendeari erreparatu diot kaleetan

Eta elkarrizketak entzun autobusetan.
Jendea, izan ere, seinale ona baita:
Solasean istilu gogoa nabari diet.
Meatzak mugiturik dabiltza. Grebak,
Borrokak eta heriotzak noiz edo noiz.
Ez da oso larria, baina insolentzia nabaria da.
Badira, hasieran, txikikeriak diruditen gauzak.
Gero, denborarekin, larri bihurtzen dira.
Lehen ez zen horrela: hiria lasaiagoa zen eta
Trenengatik baizik ez ginen kezkatzen.
Gizon bat lasai ibil zitekeen eta
Eguraldiaz gozatu. Ez zen mehatxurik.
Orain nire gauzak enpaketaturik bizi naiz.
Egunkariak leitu eta entzun ditut
Iparraldetik ilea urdinduago eta zaharrago
Itzulitakoen istorioak. Arriskua ikusi dute
Uhaldearen bestaldean. Harrapatu dituzte
batzuk hatuekin eta armekin mendietan.
Hemen gaude gu, bitartean, zain, harrizko
Balkoietan arratseko freskuran, aldamenen
Eta ezezagunen ahotsek
Freskurarekin bat laztantzen gaituzte:
Denok ekidin ezinaren zain zerbeza hotza lagun.
Hilabeteak dira aldameneko nazioekin
Arazorik ez dugula. Urtetan ez da izan
Istilu arrastorik, hilketaren bat ez bada
Etxalderen batean han nonbait.
Bakan gertaturiko txikikeriak.
Aste gutxi batzuk iraun zuen

Gerratearen ondoren, isiltasuna baino ez:
Ordutik hona gertatutakoaz zurrumurrurik ere ez.
Zein ondorio atera dezakegu hortik?
Ez bada barbaroak heldu direla.
Gaua da atzera eta beharbada hemen daude.
Bihar oheetan oin arrasto arrotzak izanen dira.
Baina zakurrek ez dute zaunka eginen,
Eta etorri baldin badira asteak joko du
gu ohartzerako. Hain dira txikiak arrastoak.
Gertatua gertatu, guk eraikitzen segituko dugu.
Urtero bide hobeak ditugu eta negozio
arrakastatsuagoak:
Porrotari ez ikusiarena egiteko modua.
Lanik gabe, zain egotea ezinezkoa litzateke.
Buruan porrota izanen genuke beti.

– Gustatu zait.

– Ona da, oso ongi adierazten du 80etako zuriak zertan zeuden.

– Orain ezberdin daude gauzak?

– Aldatzen hasi dira, baina zurien beldurra oinarrian beldur berbera da: aldamenean dituzten barbaroekiko beldur izugarria.

Zentral Elektrikoa, Rosenbank, Observatory, Cape Town. Europako auzune zurietara ailegatzen ari gara. Isilik goaz.

– Zertan pentsatzen ari zara?

– Barbaro eta barbaroen zain daudenen artean hamar kilometro baizik ez daudela! Harrigarria da –erantzun diot.

– Baina europarrendako –Hudsonen eguneko azken lezioa– urruti egoteak ez luke gozoago egin behar.

Ingelesek dute apartheidaren errua

National Partyko parlamentariari Ana van Wyk zaio izena. Italiar itxurako emakumea: garaia, beltzarana. Ingeles ederrean mintzo da. Apartheidak aitzakiarik ez duela argi eta garbi utzi ondoren, apartheidaren erroak azaltzen hasi zait bere bulegoan.

ANA VAN WYK: Ingelesek dute apartheidaren errua, haiek ekarri zituzten Hego Afrikara klasea eta arraza prejuizioak, eta prejuizio horiek erroak bota zituzten. Har ezazu kontuan holandarrak ailegatu zirenean, gizonezkoak zirela gehienak eta bertako emakumeekin nahasi zirela. Ez zuten beraz arraza prejuiziorik. Ni txikia nintzenean, kontu ergela iruditzen zitzaidan. Nik ez dut apartheida justifikatzen, baina ez dut justifikatzen ere ANCk egindako jende beltzaren erabilera; politikoki manipulatu ditu apartheid garaian gure aurka borrokatzeko. Kontuan har ezazu, gainera, ANC baliatu dela zuluei gain hartzeko...

zeren jakinen duzun bezala, ANCn gehiengoa xhosa baita, eta horretaz baliaturik zuluak baztertu dituzte.

J.O.: Garapen Banandua kontzeptua entzun izan dut eta...

VAN WYK: Ez da deabruaren kontzeptu bat! Izan ere, arraza zuria eta beltza garapenaren maila ezberdinetan daude. Nola elkarbizi daitezke garapen ezberdinetan dauden bi arraza? Ez dakit, baina istiluekin ziur aski.

J.O.: Egia al da egunkariek argitaratu duten Hirugarren Indarrari buruzkoa, alegia, National Partyko zenbait buruzagik bultzatu zutela gerra zikinaren sorrera?

VAN WYK: [Zirritu egin ditu bere begi nabarrak, nire asmoak neurtzen bezala] Ez duzu sinetsi behar egunkariek dioten guztia. [Ume bati ariko balitzaio bezala erantzun dit]. Ez dut uste Gobernua gerra zikinean inplikatuta zegoenik. Ez zen Gobernua izan Poliziari sarraski horiek egiteko agindu ziona. Eta gainera, oraingo National Partyk ez dauka ezer ikustekorik lehengo National Partyrekin...

J.O.: Ez dira lider berberak, base sozial berbera?

VAN WYK: Ez. Propaganda besterik ez da. Kontuan har ezazu ANCren aliaturik handiena –elkarrekin aritu baitira beti– Partidu Komunista izan dela. Komunistek komunismoa ezarri nahi dute Hego Afrikan, eta horretarako prest daude edozer egiteko, baita gezurra esan eta kanpotik apartheidaren aurka jasotako dirua zurien (bereziki afrikanerren) aurkako propagandan gastatzeko ere. Beltzek ongi asko dakite afrikanerrak nor garen. Haiek badakite beltzak eta zuriak ezberdinak garela... eta gu haien aldekoak garela.

J.O.: Eta sarraskiak?

VAN WYK: Terroristak izan ziren. Eta orain, ANCk eta PACek egindako sarraskiak ez dituzte juzgatuko TRCn! Eta horiek xaxatu zituzten beltzak beltzen aurka borrokatzera. Inkhata Freedom Partyren (IFP) aurka batez ere, ANCkoek armak zituzten eta IFPkoek makilak baino ez. IFPk ez zuen sekula Estatua mehatxatu, ANCk egin zuen bezala.

J.O.: Nolakoa da Hego Afrika Berria?

VAN WYK: Nazio zoragarria da, zoragarria! Baina zer gertatzen ari da? Bada, nazioa ANCko sindikatuaren esku dagoela. Trantsizioa, National Partyk zuzendutakoa, oso ongi egin zen baina orain... Partidu Komunistak komunismoa ezarri nahi du, ANCk konstituzio progresistegia egin du, Polizia korrupzioan erori da –badakizu zergatik, bertan MK talde armatuko jendea sartu delakoz–. Affirmative Actionek kanpoan utzi ditu colouredak, eta jakinen duzunez coloured gehienek National Party bozkatu zuten azkeneko hauteskundeetan. Jende xeheaz ere ahantzi dira, haien partiduko kideak baizik ez dituzte begiratzen. Baina herri zoragarri hau aurrera aterako da! Zuri eta beltzen arteko elkar ulertzea berritu behar da, eta alde batera utzi ingelesek ekarri zituzten prejuizio arrazistak... Aizu, ANCko kideren bat elkarrizketatu behar baduzu, ziurta ezazu beltza izan dadin. ANCko zuri guztiak komunistak dira! Eta badakizu, komunistek gezurra baino ez daukate.

Hau ez da Zimbabwe

Jatetxe greziar batean zitatu nau Cameron Dugmorek, Western Cape probintziako gobernuko partaide eta ANCko kideak. Plateren tamainari buruz galdetu dio zerbitzari beltzari.

– Oso txikiak dira. Hemengo nagusia... badakizu... zimur samarra da.

– Baina zuri pagatu behintzat eginen dizu, ezta?

– Hola-hola –arrapostu egin dio zerbitzariak.

Entsalada bana eta haragia eskatu dugu.

– Ez da batere erraza ANCrekin elkarrizketa bat lortzea –jakinarazi diot Dugmoreri.

Irribarre xume batez baino ez dit erantzun jatorri britisheko gizon gazteak. Zuria da, baina National Partyko Ana van Wykek esandakoaren aurka, ez da Alderdi Komunistakoa.

J.O.: Jendeari aditu diot ahantzi egin zaretela herri xeheaz.

CAMERON DUGMORE: [Ingeles dotorean mintzo da] Berrogei urtetan baino etxe gehiago eraiki ditu gobernu berriak hiru urtetan, ura eraman

dugu leku askotara, osasun programak egin ditugu, eta lehen aldiz Hego Afrikako historia guztian edonork jakin dezake parlamentari batek zenbat irabazten duen.

J.O.: Baina jendeak gehiago espero zuen.

DUGMORE: Arazoak ditugu, jakina, eta arazo horiek konpontzeko ezin dugu apartheidari errua egozten aritu, nahiz eta arazo horiek apartheidean izan sustraiak: pobrezia, langabezia, gazteriaren alienazioa, garapen eza. Aurre egin behar diogu, eta horretan ari gara. Dirua falta zaigu, makroekonomiak diruak beste leku batzuetan sartzera behartu gaituelakoz: industrian, lanpostuak sortzen... Zerbitzuetarako ez da aski geratzen! Hala ere uste dut gure politika ekonomikoa zuzena dela, garapena bilatzen dugulakoz: ez zegoen tokietaraino eraman ditugu argindarra, ura... eta hezkuntza!

J.O.: Propaganda ematen du.

DUGMORE: Baina nik esandakoak egiak dira! Gainera kontuan hartu behar duzu nazio hau guda zibilaren zorian izan zela. Ekidin bakarrik ez, trantsizio baketsua egitea lortu dugu. Meritu

ikaragarria dela uste dut, eta meritu hori, besteak beste, gurea ere bada.

J.O.: Krimenak, gangsterrak...

DUGMORE: Hainbatek esanen zizun, krimenaren eragina apartheidaren adinakoa dela. Beharbada egia da, baina hor Poliziak du errua. Polizia ustelkerian ari da, baina gogoratu apartheid garaiko Polizia bera dela. Jendeak ez du Polizia laguntzen, begi onez ikusten ez duelako. Eta badakit krimenarekin amaitzeko irtenbideak garapen ekonomikotik, berreraikuntza nazionaletik etorriko direla. Dena den, hiru urtetan krimenarekin amai daitekeela uste duena gezurretan ari da.

[Entsaladak ekarri dizkigu zerbitzariak. Galduta ematen dute plateren handitasunean. «Benetan zimurra da zure nagusia» esan dio Dugmorek. «Honen araberakoa baldin bada zure soldata, gozoa zaude!».]

J.O.: Zatiketa izanen omen da ANCn.

DUGMORE: Hotsak badira, baina nik ez dut uste. Batzuek diote demokrazia ziurtatzeko modua dela ANC ahul bat izatea. Nik kontrakoa

uste dut, ANC indartsu batekin trantsizioa arrakastaz burutuko dela.

J.O.: Trantsiziorako nahikoa da Truth and Reconciliation Commissiona (TRC)?

DUGMORE: Gure borrokaren amaiera ez zen garaipenez izan. Negoziatu egin behar izan genuen: 1999ra arte funtzionarioen lanpostuak eta soldatak mantendu, koalizio gobernu bat osatu... Beste konpromezu bat TRC izan zen.

J.O.: Guda zibila ekiditeko konpromezua izan zen TRC?

DUGMORE: Batzuek esanen dizute ezin direla konparatu apartheida mantentzeko egindako sarraskiak eta apartheidaren aurka borrokatzen egindakoak. Eta moralki, uste dut, ez direla berdinak. Hau ez da Zimbabwe edo Mozambike, non populazio zuria oso txikia izanik ez daukazun kontuan hartu beharrik. Horregatik erabaki zen, adiskidantzaren izenean, TRC antolatzea eta ‘bi aldeetan’ egindako sarraskiak epaitzea. Eta horregatik erabaki du, ANCk eta ANCren izenean egindako sarraskiengatik amnistia eskatzea. National Partyko partaideei, ordea, amnistia edo

barkamena eskatzea ere ez zaiei bururatu ere egiten.

J.O.: Amnistiaren aldekoa zara.

DUGMORE: Giza eskubideak bortxatu zituztenei amnistia ematearen aldekoa naiz, bai. Baina beste zenbait bortxaketa, ordea, arrazoi politikoak aitzakia harturik populazio zibila beldurtzeko egin ziren. Nik horiei ez nieke amnistiarik emanen. Ikusiko dugu.

Munduko hiririk arriskutsuena

Mila eta seiehun kilometro dago Cape Towndik izen ederreko hirira: Johannesburg. Telebistako kazetariek berriak biltzean azentu ezberdinez ahoskatzen dute hiriaren izena: afrikanerrez, zuluz, xhosaz edo ingelesez. Zoragarria da esaten dutenean: «Urlia, SABC katea, Johannesburg!».

Juriek eta beste askok Johannesburgera zertara noan galdetu izan didate. Han ez dago ezer! Cape Town bezalakorik ez dago! Txiste bat ere kontatu zidaten Jo'burgeko egoera adierazteko:

«Ali Bacher entrenatzaileak berebiziko cricket taldea bildu omen du 98rako. Jaurtitzaile indartsu eta azkar bat baino ez omen zaio falta. Ibili, ibili omen da begira gainontzeko taldeetan, institutuetan, eskoletan... baina kia, ez du jaurtitzailerik aurkitu. Gau batean CNNeko berriak ikusten ari dela zer ikusiko eta... ikaragarrizko besoa daukan soldadu bosniarra. Soldaduak gra-

nada hartu eta zast! 500 metro apartetik, leihotik barna sartu du. Beste bat hartu eta 100eko abiaduran doan autoari jaurti... eta jo! “Morroi hori behar diat” pentsatu du bere baitarako Ali Bacherrek, “hori besoa daukana!”. Hego Afrikara ekarri eta cricketa erakutsi dio. Espero bezala, gazte bosniarrak Jaurtitzaileen Sari nagusia irabazi du eta taldeak Liga. Hego Afrikako heroi bilakatu da soldadua, Nelson Mandelak eta guzti zoriondu du. Joan zaio egun batean Ali eta esan dio: “Aizu eskatu nahi duzuna, lortuko dizut”. Bosniarrak ez duela ezer nahi, amari telefonoz hots egitea baino ez duela nahi. “Ama!” ari zaio gaztea telefonotik, “Hego Afrikako heroi bilakatu naiz!”. “Ez diat hirekin hitz egin nahi!” erantzun dio amak, “hik egin diguk, hik...”. “Baina ama, zer egin eta zer eginondo” egin dio arrapostu gazteak, “gailurrean nago!, heroi bilakatu naiz!”. “Ez, seme ez “ erantzun dio amak zotinka, “hi hor eta guri, une honetan bertan, tiroka ari zaizkiguk, auzoa hondakinetan zegok, ia hiltzeraino jipoitu zitiztean hire bi anaiak, aitari autoa lapurtu ziotek eta hire arreba bortxatu egin ditek aurreko astean”. Amak zotinka ebaki du, “ez diat

inoiz barkatuko... ez diat inoiz barkatuko Sarajevotik Johannesburgera ekarri izana!”».

Goizeko hamarretan ailegatu naiz, trenean lo egin ondoren. Ikaraturik, oraingoan, lagun, neskame eta abarren oharpen alarmistak egunkarietako berriez konfirmaturik baitatoz: Johannesburg, izen ederreko hiria, munduko hiririk arriskutsuena da!

Hego Afrika osotik dator jendea olde izugarrian hiriak eskaintzen dionaren bila, eta hiriak ez dauka nahikoa denendako.

Erdialdetik abiatu naiz. Harri eta zur. Hau da benetako Afrika. Beltzak, beltzak eta beltzak kale zabaletan, Cape Townen ez bezala. Orain uler dezaket Lwazik zioena, alegia CTk ez daukala beltz kulturarik. Han beltzak gutxiengoa izateaz gainera, hiri erdigunetik bazterturik dauzkate periferiako townshipetara; hemen zuriak dira erdialdetik ihes egin dutenak. Ihes egin hitzaren zentzurik hertsienean. Duela hamar urte-edo *Separated Areas Act,* arraza ezberdinetako jendea auzune ezberdinetan bizitzera behartzen zuen legea indarra galtzen hasi zenean, beltzak Johannesburgeko erdialde zurira ailegatzen hasi

ziren saldoka, eta zurien eraikin erraldoietan jarri ziren bizitzen.

Hillbrow, *non go area* diote gida guztiek. Zuriak bizi ziren garaian auzo bohemioa omen zen. Hemen zeuden kafeak, hemen liburutegiak, diskotekak, gau bizitza. Jende gazte zuria, artistak, pintoreak bizi ziren hemen. Hasieran jendea nahikoa ongi nahasi omen zen, baina delinkuentzia zabaldu eta zuriek iparraldeko auzoetara hanka egin zuten ziztu bizian. Orain arriskutsua bilakatu da: droga, prostituzioa, mafia nigeriarra. Azken honetara, ordea, iparraldeko auzo zurietan ere gora egiten omen ari da delinkuentzia... Dirua nora, hara lapurrak!

Eraikin erraldoiez osatutako kale zabal-zabaletan bizia ateratzeko huskeriak saltzen dituztenak, txabolez osaturiko squatter camp bat plaza batean, autoak, autobusak, hiriaren beste leku batera eramanen duen taxi konbiaren bila jende erlauntza, merkatuak, emakumeak artaburu erreak eskainka, plastikozko kanpin-denda antzekoak, ileapaindegi inprobisatua orrazkera argazkiak atean (rapatu moda dago), ordu erdiroedo zuriren bat, Home Affair (Barne Ministaritza)

eraikinaren atean ilara itzelak, etorkinak erresidentzia lortzeko zain, argazkilariak kamera eskuan «Argazki bat, bra?» galdezka, Coca-Cola deituriko dorrea (suiziden jardun toki) non 257 nazionalitate ezberdineko jendea bizi baita.

Johannesburg meatzen altzoan sortutako hiria da. *Great Trek* ondoren, british menpekotasunetik ihesi afrikaner edo boerren Bidaia Handiaren ondoren sortutako hainbat errepublikatako batean, Transvaalgo Errepublikan, hain zuzen, meategiak aurkitu zituzten, eta Pretoria ondoan zegoen Johannes herrixka... Sahara azpiko hiririk handiena bilakatu da.

Meatzeen jabetzak, jakina, beste guda bat ekarri zuen boer eta ingelesen artean, 1899tik 1902ra iraun zuena. Boerrek sekulako jipoia hartu zuten eta populazio zibilak izugarri sofritu zuen, batez ere emakume eta haurrek, britishek kontzentrazio eremuetan sartu baitzituzten. Guda bukatutakoan Hego Afrikako Batasuna sortu zen, Inperio Britainiarraren menpean.

Egun Jo’burg Hego Afrikako eta Afrika osoko finantza-gunea da, eta diruaren inguruan baino ez omen da bizi, hemengo batzuek diotenez.

Jurieri hots egin diot telefonoz, agindu bezala.

– Zer moduz zure ahizpa Jazz?

– Arazoak ditu. Zuri batekin maitemindu da eta ez dio kasurik egiten.

– Coloured delako?

– Ez, Juanjo, ez. Hego Afrika Zaharrari buruzko nobela gehiegi leitu duzu. Gustatzen ez zaiolako ez dio kasurik egiten. Eta zer moduz Jo'burg?

– Liluraturik nago. Hau Afrika da, ez CT bezala. Azkenean, asko kostata ere, beltzez inguraturik nago!

– Badakit –erantzun dit Juriek–. Zergatik uste duzu aldegin nuela!?

Martxoko Martxa

Hauek dira hauek bidaiariaren erriberak! Jaiki, egunkaria ikasi eta downtownera jaitsi. Autobusa hartu eta Johannesburg erdialdeko karrika zabaletan barna galdu naiz. Erdi turista erdi erromes, Afrikako dorrerik altuenera igotzea erabaki dut, *The top of Africa.* Argazkiak egin ditut goitik.

Hego-mendebaldera, han urruti, Eldorado Park, ‘garai zaharretan’ argia, ura eta zergak ez pagatzea apartheidaren aurkako borroka-arma gisa erabiltzera ohiturik, orain, ‘garai berrietan’, Sowetoko jende beltz frankok pagatzen ez dituela aitzakiatako harturik, pagatu nahi ez izanagatik Poliziarekin istilutan dabilen township coloureda.

Erdigunetik hurbilago, Soweto mitikoa, hiru milioi lagunen bizitokia.

Norabide berean, erdialderago, Riverlea, beste coloured township bat.

Iparraldera, Sandton, zuri aberatsen auzo erresidentziala, lorategiz inguratu eta alarmez babesturiko etxetzarrak, non familia bakarra bizi

den tokian Sowetoko hamaika familia sar daitezkeen.

Sandton erdian, Alexandra, Hego Afrikako beltzen town ship zaharrena... eta han urrutian, Tembisa, beste township beltza: apartheidaren legeak bertan behera geldituagatik, oraindik ere arraza bereko jendeaz osatutako auzuneak.

Hemen bertan, Johannesburg erdialdea. Kafe bat hartzera eseri naiz.

Begiak jaso eta jende multzo handia ikusi dut neoklasiko erako eraikin ofizial kutsuko baten aurrean. Kamareroari galdetu diot zer den.

– Zuluak dira, IFP Inkhata Freedom Partykoak. 1994tik urtero manifestatzen dira.

Kobratzeko agindu diot.

– Manifestaziora zoaz? –galdetu dit, nire abiaduraz oharturik–. Kontuz ibili, zuluak oso jende arriskutsua dira! Manifestazio hori urtero-urtero istilutan amaitzen da.

– Eskerrik asko. Zainduko dut neure burua eta... bide batez –galdetu diot, etnia ezberdinetako beltz jendea bereizteko ustezko trebeziak emandako ausardiaz–, zu ere zulua zara, ezta?

– Zulua? Aldegin ezazu paretik. Ni sothoa naiz, sothoa!

Karrikara jaitsi naiz. Non ote daude? Norabiderik gabe nabil. Udaletxe inguruan behar dute. Hara hurbildu naiz. Oihuak aditu ditut. Polizia asko dabil inguruan eta burdinazko hesiz inguraturik daukate udaletxea. Manifestatzaileak guardasol edo makilekin. Franko tradizionalez jantzirik: diadema antzeko bat lumez horniturik, paparreko koloredunak, larruzko oihalak bizkarrean. Arriskutsuak dirudite. Poliziaren babesean paratu naiz. Nire aurretik pasa dira, garrasi eta dantza: hanka bat goraka lehendabizi, gero bestea, besoak astintzen dituzten bitartean. Paisanoz jantzitako polizia gazte batek pistola dauka eskuan, tiro egiteko prest. Paseante bakanek ihes egiten dute manifestaziotik, zeharkako kaleetarantz jotzen duten gazte saldoak ikusirik. Harrapatu duten guztia hautsi eta barratu dute.

Kaleko jendearen ustetan, ANC xhosa herriaren alderdia da eta IFP zuluena. Baina uste hori ez da erabat egia: ANCn zulu asko baitago eta zulu ez diren hainbat IFPn.

Dena dela, bi partiduak bereizten dituen ideologiaz gain, bada Hego Afrikako testuinguruan berebiziko garrantzia duen ñabardura: zuluek beti mantendu izan dute ‘identitate’ sentimendua: haien kultura eta sinesmenek bizirik diraute, bizitza tradizionala egiten dute herrietan batik bat, erregea-eta onarturik daude Hego Afrika Berrian. Hitz batean, etnizitatean sinesten dute.

ANC ordea multirraziala da, eta ez ditu etnizitatea eta arraza zutabetzat hartzen. Xhosatasuna, zulutasuna, afrikanertasuna edo sothotasuna baino gehiago azpimarratzen du hegoafrikartasuna.

Inkhata sortu zenetik istiluak izan dira bai Kwazulu Natalen bai Sowetoko ‘hostaletan’, non etnia ezberdinetako langileak bizi baitira pilaturik. ANCk dio IFPk Poliziarekin bat egin zuela hauteskundeen aurretik, ANCko militanteak jipoitzeko eta hiltzeko.

Manifestazio burura jo dut. Pankartaren atzean doazenek buruzagiak ematen dute, batzuk arropa tradizionalez jantzirik, beste batzuk

mendebaldeko jakez. Izkinan paratu naiz eta grabagailua erakutsi diot bati:

– Atzerriko kazetaria! Zergatik ari zarete manifestatzen?

– 1994ko martxoaren 28an ANCren politikaren aurkako manifestazioa egin genuen eta ANCko egoitzaren aurrean geundela tiroka hasi zitzaizkigun barnetik! Hemeretzi manifestari hil ziren! ANCk esaten du hemeretzi lagunak guk hil genituela, baina hori ez da egia, frogaturik baitago dagoeneko tiroek Shell Housetik, ANCko egoitzatik irten zutela. Urtero manifestatzen gara! Martxoaren 28a jai egun nazionala izenda dezaten nahi dugu!

Manifestariak garrasika eta erdi dantzan erdi lasterka doaz. Eskuetako makila eta guardasolak astintzen jarraitzen dute.

– Zer da Inkhata Freedom Party?

– *Inkhata* zulu hitza da, gure partiduko militante gehienak zuluak baitira; zulu monarkia eta herriaren arteko lotura adierazten duen kutuna da, gai metafisikoz betea. Alderdia 1920an sortu zuen zulu erregeak, ANCren altzoan. 1975ean Buthelezi printzeak, oraingo buruzagiak, aska-

pen mugimendu kultural gisa berpiztu zuen. 1990ean bilakatu ginen partidu politiko.

– Zein da zuen egitasmoa?

– Estatu federalista proposatzen dugu. Oraingo probintziek autonomia handiagoa izan beharko lukete. Gure probintziak, Kwazulu Natalek, gobernu soberanoa izan beharko luke, modu horretan, Swazilandia edo Lesotho bezalako nazioendako onuragarria izanen litzateke Hegoafrikar Federazioan sartzea. Bertako hizkuntzak bultzatuko genituzke, federazioko gobernu bakoitzak aukera izanen bailuke hizkuntza horiek garatzeko. Guk uste dugu Hego Afrikan, modernitatearen aitzakian, kultura bakoitzaren balore, hizkuntza, eskola sistema eta abarren galera gertatzen ari dela. Hori konpontzeko federalismoa proposatzen dugu, iruditzen baitzaigu gaur egungo autonomia ez dela nahikoa.

– Inkhata Freedom Partyk ultraeskuindar fama du.

– Gu ez gara eskuindarrak! Balore tradizionalak zuzpertzearen aldekoak gara. Gure kultura suntsitzen ari dira, eta horren aurrean zer edo zer egin beharra daukagu. Gizartea eraikitzeko

orduan Ubuntu hartzen dugu oinarritako. Ubunturekin noranahi joan gaitezke...

– Zertan dira zuen harremanak ANCrekin? Hauteskunde inguruan ia-ia gudan zeundeten Kwazulu Natalen.

– Orain bakean gaude... Ez da lehen adina istilurik. ANCk eta ‘mintzatzen’ hasi diren poliziak esaten ari dira ANCko jendea hiltzeko Poliziarekin nahastu izan ginela, Poliziak ematen zizkigula armak, haiek xaxatzen gintuztela. IFP Poliziak sortu zuela esatera ere ausartu dira. Gezurra galanta! IFPko militanteren batek noizbait norbait hil baldin badu, bere buruaren defentsan izan da.

Manifestazioa utzi dut. Han doa poliziez eta tanketez inguraturik, paseanteei ihes eginarazi eta karrikak hutsik utziz.

Biharamuneko egunkaria: Inkhata Freedom Partyren atzoko manifestazioan hiru hildako. Hostal batean hasitako liskarrean hil omen ziren bi meatzari. Bestea, manifestazioan zihoala norbait tiroka hasi zenean. Argazkiak dakartza: gizaki bat, Humphrey Ndlovu, IFPko Gauteng-eko buruzagia, leopardo larruz jantizirik, sakelako te-

lefonotik garrasika ari da zaurituak garraiatzeko anbulantzia eske. Teknologiak eta tradizioak talka dagiten nazioa da hau.

Beste albiste harrigarri bat *Sowetan* egunkarian: 1994ko martxoaren 28an IFPk egindako manifestazioari buruz mintzo da Amedo bat, eta seinalatu ditu Eugene de Kock ('hizketan hasi' eta Amedorik Handiena bilakatutako poliziburuohia) eta IFPko Gazte Saileko buruzagia. Eta dio, egun hartan IFPk, Poliziaren laguntzarekin, ANCko buruzagitza osoa hiltzeko asmoa zeukala; manifestazioa Shell Housera hurbiltzean, aldez aurretik prestaturik zeuden hiltzaile batzuk egoitzara sartuko zirela manifestaziotik babesteko aitzakiaz. Behin barnean, ANCko buruzagitza osoa, Nelson Mandela barne, akabatzeko prest zeuden. Eugene de Kock, hainbat polizia eta IFPko buruzagien artean atondutako plana bertan behera erori zen, Shell Houseko ateak braust itxi eta barnetik tiroka hasi zirenean.

Martxoko Martxari buruzko interpretazioak ere anitz dira: IFPrendako, zulu identitatearen ospakizuna da; ANCrendako Inkhata Freedom

Partyren (eta ez zulu guztien) harrokeria agertzeko aukera baino ez.

Egunkariek atzoko hiru hildakoen adierazpenik ez dute argitaratu.

Chris van Wyk

Autobusa hartu dut hiri erdialdera. Larunbata da eta ez dabil kaleetan astegunez adina jende. Ondoren Van Wyk idazleak esandako taxia hartzera abiatu naiz, furgoneta konbi horietako bat; hutsik dago. Badakit furgoneta bete arte esperatu behar dudala. Emakume coloured bat agertu da handik puska batera. Riverleara doan galdetu diot badaezpada ere. Baietz, egoteko lasai. Hindu saldoak pasatzen dira taxiaren aurretik meskitatik bueltan. Pasaiariak ailegatzen ari dira. Hamalau bat-edo sartu gara taxian, eta martxan gara azkenean. Denak, ni salbu jakina, colouredak dira. Hego-mendebaldera goaz. Chris van Wykek egindako planoa atera dut karteratik, kostata, mugimendurik txikiena egiteko ere lekurik gabe, horren goaz pilaturik. Riverlea Extention, Sowetotik bertan.

Blokez egindako etxeak, kaleak asfaltatu gabe. Orain jaitsi diren lau gazteak gaizkile itxurakoak dira, ia hortz gabeak. Coloureden gaitza behar du, beltzek hortz onak baitituzte, baina co-

louredei hemen, Cape Townen bezala, hortzak falta zaizkie askori. Hobe ez naiz jaitsiko, harrapakinari behatzen zaion bezala begiratu baitidate gazteek. Taxia aisatu da pixka bat laurak jaitsitakoan, eta aurrerago banan-banan irten dira pasaiariak.

Geltokian atzera begiratu du taxi gidariak, ehun kilo inguruko coloureda.

– Zu nora zoaz? –galdetu dit lagunkoi.

– Riverleako azkeneko geltokira.

– Hauxe da –esan dit.

Leihotik begiratu dut: blokez eraiki denda antzeko bat, errepidea eta lur gerrituz osatu muino bat, larre. Harantzago etxe batzuk. Planoari erreparatu diot, eta errealitateak kale egin dio planoari, beti bezala.

– Chris van Wyken etxera noa. Ezagutzen duzu?

– Segi handik... Lehendabiziko etxera ailegatzen zarenean galdetu!

Hori daukate ona, edo txarra (nahi bada), Hego Afrikako hirietako auzoek: herrixkak bezalakoak izanik, denek elkar ezagutzen dutela. Larrean barna joan naiz muinoa ezkerretara utzita.

Planoaren arabera muino hori meatz abandonatu baten lur gerritua da. Lehen etxean galdetu eta Van Wyken etxera eraman nau bertako gizon helduak.

Lorategiko belarra mozten ari da emakume bat.

– Cathleen naiz. Zure zain geunden, ailegatuko ote zinen kezkaturik. Esan diot Chrisi nola ez zaizun hirira bila joan.

Txakur begibakar bat dago atean. Chris van Wyk agertu zait atera, zermoduzka. Txakurrari begiratu diot, gero berari. Barre egin dit.

– Bai, bai. Nagusia bezala txakurra ere betokerra da.

Chris van Wyk 1957an jaio zen Sowetoko eritetxean. Coloured izan arren, beltzetako dauka bere burua. Coloured gehienek lehen hizkuntza afrikaans baldin badute ere, ingelesa da Van Wykena. Gazte zela hasi zen United Democratic Front taldean militante. ANC eta PAC legez kanpo zeudenez, eliza, gazte elkarte, ikasle elkarte eta abarren apartheidaren aurkako frontea zen UDF, Desmond Tuturen gidaritzapean.

Poesia bilduma batez gain, *Teniaren urtea* nobela argitaratu du aurten. Sowetoko kazetari beltz baten ibilerak kontatzen ditu, modu barregarrian.

J.O.: Zergatik aukeratu duzu umore eta surrealismoa apartheid garaia kontatzeko?

CHRIS VAN WYK: Apartheid garaian beharrezkoa zen ANC, UDF edo dena delakoaren mesedetan izkiriatzea. Hego Afrikako literatura liburu ‘politiko’ edo konprometituz beterik dago, gehienak oso txarrak. Nik ere egin izan ditut horrelako poemak. Azken finean, liburuetan, egunkarietan irakurri ahal zenituen gauzak baino ez ziren agertzen. Bestalde, zuk hartzen badituzu apartheidaren legeak, nobela surreal bat bezala irakur ditzakezu; lege eroak dira, erabat surrealak eta barregarriak zentzu batean. Beraz nik surrealismo hori nabarmendu nahi nuen. Horregatik paratu nuen gobernuko presidentea township batean edo sangomen mundu hori sartu edo apar theidak jendearen buruan eragin duen mentalitatea islatu.

J.O.: Eta apartheida neurri batean bukaturik dagoenean, zer idatzi hemendik aurrera?

VAN WYK: Apartheida bukaturik dago legeak bertan bera gelditu diren aldetik. Ez gaude beraz zerbaiten aurka idazteko beharrean. Orduan, nik uste dut, orain aiseago idatz daitekeela apartheidari buruz, *petit apartheid* delakoari buruz, alegia... apartheidaren legeek jende arruntarengan nola eragin zuten. Esaterako, nola egiten zituzten arraza sailkapenak! Lagun bat coloured edo zuria ote zen duda zutenean, badakizu nola egiten zuten? Jartzen zioten lapitz bat buruan eta erortzen bazitzaion... zuria zen! Familia berean sailkatze ezberdinak egin ziren: seme-alaba batzuk zuriak ziren, beste batzuk colouredak. Apartheidaren alde umoretsua mingarriegia zen idazteko, baina orain idatz dezakegu horretaz.

J.O.: Hitz egin nahi duzu oraingo gobernuaz?

VAN WYK: Ez dabiltza ongi. ANC ahaztu egin da jendearekin. Ezinezko gauzak agindu zituen hauteskundeetan: etxeak, lana denondako... Edo ergelak ziren edo gezurretan ari ziren. Hartu duten estiloak ere ez du errespeturik agertzen: BMW eta Mercedesak gidatzen dituzte, izugarrizko soldatak paratu dituzte eurentzat, dirua lapurtzen dute goi postuetan daudenean. Ez dira

agindutakoa betetzen ari. Nelson Mandela oso lehendakari ahula da, eta jendeak jainkoa bezala ikusten du. Hori Afrika osoan gertatzen da, agintariak jainko ikusten ditu jendeak. Baina Nelson Mandelak indartsuago izan beharko luke. Esaterako: zergak ez ordaintzea borroka modua zen garai zaharretan, baina jendeak ulertu behar du orain gizarte berri batean bizi garela, eta ura eta argindarra pagatu beharra dituela. Eta horren kontra Gobernuak ez du ezer egiten. Edo gaizkileak... Krimenaren arazoak gain hartu dio Gobernuari. Krimena oso arazo larria da herri honetan, ezin dugu kalera atera! Krimena apartheidaren neurriko arazoa bihurtu da hemen. Gaizkileek bahiturik gauzkate. Eta, noski, gure Konstituzio Berria hain progresista denez, gaizkileak herritarrak baino eskubide gehiago ditu!

[Telebistako iragarkiez gogoratu naiz. Irrati eta telebistetako esatariak, kirolariak, artistak, kantariak agertzen dira jendeari *Don't do crime (Ez egin krimenik)* esanez].

J.O.: Kezka nagusia da krimena.

VAN WYK: Egia da zaila dela arazoa konpontzea. Pobrezia dago, jendeak berehala nahi du

agindutakoa eta... apar-theidak sortu duen gizartea arraso erotuta dago! Denok gaude eroturik, gizarte hau oso agresiboa da! Ubuntu aipatzen dute gero. Bada, zer Ubuntu dago, hamar urteko neskatxa bat bortxatu edo ostu ondoren, biktimari begiak atera zizkioten hiltzaile horiengan? Nik batzuetan pentsatzen dut beranduegi etorri dela aldaketa. Desmond Tutuk apartheidaren gobernuari aspaldi esan zion: «Utzi gu piztien moduan tratatzeari, beranduegi izan aurretik». Ba, nago beranduegi ez ote den.

[Cathleen, bi eltzekorekin agertu zaigu. Hemengo janaria omen da. Ia gustuko dudan. Baietz, ni edozein gauza jateko kapaz naizela. Babarrun nabarrak dira, ia Euskal Herriko modura prestatuak: patata eta haragi puskekin].

Istorio luzea

William aspaldiko laguna etorri zaio Chris van Wyki. *Jol* egitera joanen omen gara: edan, porroak erre eta neskatara.

– Badakit Sowetora joan nahi duzula –esan dit Williamek–. Eramanen zintuzket, baina auto honekin ez naiz fio. Mundu guztiak nahi du BMW bat, lapurrek batez ere. Ez dut nire autoa galdu nahi.

Autobidean barneratu gara.

– Leitu duzu Boesak putakume horrek esandakoa? –galdetu dio Williamek Chrisi–. Zuk badakizu nor den Allan Boesak, Juanjo?

– Ez.

– Boesak UDFko buruzagietako bat zen, coloureda, Teologian doktore eta apaiz protestantea. Ni UDFn aritu nintzen liberatu, eta ongi ezagutzen dut. Gizon honek Danimarkatik apartheidaren aurkako borrokara bideratu diru piloa poltsikoratu zuen. Boesak Cape Townen ANCko parlamentaria zelarik dena azalarazten hasi zenean, EEBBetara hanka egin zuen. Orain itzuli egin da,

«borondatez» diote ANCkoek. Baina itzuli da bestelaz estraditatu eginen zuketelako. Omar, gure Justizia ministroa, Boesaken laguna da; aireportura joan zaio ongi etorria egitera, eta «Ez kezkatu, bra!» esan omen dio. Ikusten duzu ze putakumeren eskuetan dagoen herri hau!

Yeoville txartelean utzi dugu autobidea. Yeoville, Judutarren Herria. Johannesburg erdialdetik gertu, iparraldera. Times Square izena du tabernak. Eguraldi ederra dago. Jendea karriketan, beltzak nagusi. Arrazen arteko konponezina ez da nabari. Terrazan eseri gara Chris, William eta hirurok. *Sakelako telefonorik gabe, hobe* dioen txartela dago tabernan.

– Telefono horiek hasi zirenean, jendeak terrazatik barrara deitzen omen zuen edariak eskatzeko. Behingoan jabea nazkatu eta txartela paratu zuen!

Gazte beltz bat inguratu zaigu: Fineas, Chris eta Williamen adiskidea. Emakume zuri batekin ezkonduta dago, ingeles batekin.

– Ni kaffirra naiz –esan dit–, nire arreba kaffirra da, nire anaia kaffirra, nire aita kaffir handiena, eta gure ama zer esanik ez! Nahikoa nuen

kaffirkeriekin. Horregatik hartu nuen emazte zuria!

Barrez lehertu dira Chris eta William, pasadizoa mila bider entzuna baldin badute ere.

– Emaztea Sowetora eraman nuen nire gurasoak ezagutzera. Ni Soweton bizi eta hazia naiz. Sartu gara etxean, elkar aurkeztu ditut, eta gure aita hasi ez zitzaion bada missis-ka! Missis andrezko ugazaba zuriei eman beharreko trataera zen apartheid garaian. Ni lotsa-lotsa eginda nengoen. Esan dizut: gure aita kaffirkerietan kaffirrik handiena!

Zerbeza dzanga batean edan eta badoala esan du, gero nahi badugu etxetik pasatzeko, etxean egonen direla emaztea eta biak.

Taberna leporaino dago. Prophets Of The City talde raperoa ari da jo eta ke. Gaiztoak dira. Ez daude Hego Afrikan hedatu den adiskidantza giroaren alde. Jendea zoratzen jarri da *To understand where I come from* kantua hasi denean: «Gaiztoa naiz ghettoan hazia naizelako». Txistu eta txalo. Porroak esku batetik bestera.

Mutiko gazte bati hots egin dio Chrisek.

– Hau Sandile Dikeni da.

Sandile Dikeni... ezaguna egiten zait izena... Hara!, astelehenetako *Cape Times* egunkarian zutabea dauka. Sutsua eta zorrotza, hegoafrikarrei egiak esateko garaian.

– Hau Juanjo. Euskalduna.

– Zer egiten duzu zuk zure herriaren liberazioaren alde? –bota dit huts-hutsean.

– Zer esan nahi duzu? –kale harrapatu nau.

– Ongi asko entenditu duzu. Zer egiten duzun zure herriaren liberazioaren alde!

To galdera!

– Non ibili zara Hego Afrikan?

Ibilitako lekuak aipatu dizkiot.

– Ez duzu benetako Hego Afrika ikusi, eta gero joanen zara zure herrira eta adituek hitz egiten duten bezala egin. Liburu bat ere idatziko duzu hura eta bestea aipatuz. Baina kaka! Eta gero diru ederrak kobratu liburuarengatik! Alexandran egon zara?

– Ez. Baina hori baldin bada benetako Hego Afrika, eramanen nauzu... Gustura joanen naiz.

– Ezin dut zure segurtasuna gorde Alexandran. Zuria zara! Eta orain banoa mahai hartara...

Chris eta William agurtu ditu eta aldameneko mahaian eseri da. Amorraturik nago: halako putakumerik! Ezin dut morroia burutik kendu. Putakume bat baino ez da: galderak metrailadorez bota eta ospa. Altxa eta bere mahaira hurbildu natzaio.

– Dikeni jauna, zatoz pixka bat. Uste dut putakume nazkagarria zarela!

– Putakumea? Zergatik? –zur eta lur gelditu da.

– Nahi izan dituzun galderak egin dizkidazu erantzunei batere kasurik egin gabe. Kristorenak esan dizkidazu eta zuk erabakitakoan aldegin duzu. Hori ez da jendearekin aritzeko modua.

Chris eta Williamengana zuzendu da ozenki:

– Ei! Zuen lagun honek, europar txatxu honek putakumea deitu dit!

Chris eta Williamek, ezulertuarena eginez, abiatzeko ordua dugula erabaki dute. Bizkarreko bat eman diote agur modura, eta han utzi dugu. Beharrik!

Gautzen ari du eta bederatziak inguru dira, berandu xamar latitude hauetarako. Jendea dabil kalean harat honaka. Denak agurtu ditut.

Autoan sartu gara. Fineasen etxera goaz. Hemen inguruan bizi da. Etxe victoriarreko auzune batean barneratu gara. Etxe victoriar handi baten atarian gelditu gara. Argiak pizturik daude... eta baita gu ere. Chris, mingaina motel-motel, kaffirka ari zaio Williami:

– Ni kaffir bat naiz, zu kaffir bat zara, gu kaffir batzuk gara.

To be aditz osoa konjugatu du. Irainari buelta emateko umorea badute, behintzat! Etxean ez du inork erantzuten. «Fineas! Fineas!» oihuka ari dira. Kalea hutsik. Murrutik salto egin eta etxe atarian dagoen txirrina jotzeko eskaini dut nire burua. Jauzi egin... ezta arimarik ere. Autora bueltatu gara.

– Zu basque kaffirra zara! –esan dit Chrisek, egindako balentriagatik.

– Eskerrik asko. Ohore handia da kaffir izatea!

Barrez lehertu dira.

– Aizue, mutiko hori, Sandile Dikeni... –tentatu ditut, haren ostia txarraren nondik norakoak argitu nahian.

– Ez egin kasurik! Oso mutiko jatorra da, gaztea-eta badakizu... berotu egiten da. Gorroto asko du bere baitan. Badakizu *comrade*ek amona erre ziotela? Sandile xhosa da, Karookoa. ANCko militanteek amona erre zioten sorgina omen zelakoz! Horrelako gauza asko gertatu dira gure borroka garaian.

Etxeko atarian utzi naute, taberna ireki baten bila alferrik aritu ondoren. Chrisek *Staffrider* bat oparitu dit, Hego Afrikako Idazleen Elkartearen aldizkaria.

Ohantzean sartu eta, mozkor-mozkor egon arren, aldizkaria zabaldu dut. Sandile Dikeniren poema batzuk heldu dira. Motzena hartu dut... nire ingelesa eta mozkorragatik.

ISTORIO LUZEA

Comradeek eta lagunek hil zidaten amona

erreta...

Baina aurretik bularra xurgatu zioten

lehortu arte

...hobe erre zedin horrela.

Soweto

Sowetora joateko gelditu naiz Siphiwe-rekin, rasta itxurako poeta gaztea. Isila, umila, ahots mehez mintzo da, klika dariola.

Black Taxi bat hartu dugu berrogeita hamar konbiko ilara luzean. Sardinak latan bezala sartu gara. Igandea izanik, ez du Johannesburg erdialdeak aste egunetako mugimendu bizia. Kaleak bare dauden arren, berehala bete da taxia, igandea aprobetxatuz familia bisitatzera doan pasajeroz. Izan ere, Siphiwek argitu didanera, jende asko etorri baitzen Johannesburg erdialdera bizitzera, kultura mendebaldetarrak ematen duen askatasun eta intimitatearen bila, apartheidak gaiztotutako girotik eta komunitate zentzu hertsiegitik ihesi.

SOWETO izena South Western Townshipetik dator (Hego-Mendebaldeko Townshipa). 1950ean Gobernuak Johannesburgen zehar tropoiluan hazitako township guztiak suntsitu eta paraje honetara ekarri zituen beltzak. Batetik, eremu industrializatua izanik, lan tokitik ahalbait

gertuen egon zitezen; bestetik, eremu desertu batek babesten zuelakoz Johannesburg zuritik. Hortaz, urtetan uko egin dio Gobernuak Soweto Johannesburg hiriari errepidez lotzeari, beltzak hirian sar ez zitezen, eta zuriak, autoz okerren bat eginda-edo, ez zitezen Soweton barneratu.

1920tik, nekazari giroan bizia ateratzeko aukera gabeziak bultzaturik jendea hirietara hurbiltzen hasi zenetik, Gobernua saiatu izan zen migrazioa ekiditen. Baina 1946rako Johannesburgeko biztanle zurien populazioa %29 igo zen... eta beltzena %70! Murrizketak hasi ziren orduan. Pase-Legea onartu zen. Pasea zeukana soilik bizi zitekeen hirian (Soweton kasu honetan), hots, lana zeukana; pasea nagusiak ematen baitzion langileari. Baina Gobernua oldar handiegiko mugimenduaren kontra ari zen: hirian geratzeko etorriak ziren beltzak! Milaka eta milaka emakume eta haur, langabe, ilegalki bizi ziren hirian.

Gobernuak ez zituen township haiek hornitu, ez zeukaten kanileko urik, ez argindarrik, ez kale asfaltaturik.

Horrelaxe hazi zen, gaur egun hiru milioi inguruko populazioa osatu arte. Soweto osatzen duten townshipak leku inpertsonalak dira: karrika guztiak berdinak, plazarik ez (lur eremu desertua ez bada). Leku inpertsonalak dira, zuriek beltzak kontsideratzen zituztenaren lekuko: inguruaren ederra hautemateko piztia ezgaiak!

Eta piztia horietako gazteenak matxinatu egin ziren 1976an. Black Conciousness mugimenduaren ariora, euren gurasoak amore emaileak baino ez zirela erabaki zuten. Milaka gaztek utzi zuen eskola ANCren leloari jarraiki: «Askapena Hezkuntzaren Aurretik». Kaleak bete zituzten Poliziaren aurka borrokatzeko. Eta hurrengo belaunaldiak ere berdin jokatu zuen. Leloaren gaiztoaz oharturik, ANC 1990ean atzera egiten saiatu arren, beranduegi zen.

Egun 25-35 urte bitarteko gazte sowetoar gehienek ez daukate prestakuntzarik. Horri apartheidaren legeak sortutako aukera-gabezia gehituz gero, koktel esplosiboa daukagu: pobrezia eta krimena. Pobrezia izan da Sowetoko arazorik latzena beti. 1990ean Sowetoko populazioaren %60 langabezian zegoen. Ondorioz, krimen

tasa izugarria zen (eta da), New Yorkekoa halako bi. Soweton ez dago gauez ibiltzerik, beltz nahiz zuri.

Hogeita zazpi goaz taxian. Besoa mugitzeko ere lekurik ez daukat. Beharrik bidaia ez dela luzea.

– Duela hamar urte –esan dit Siphiwek– taxi honetan joategatik detenitu eginen zintuzkete!

Lagunaren hitzei arreta gehiegi eman gabe, paisaiari begira noa. Etxeak eta hutsarteak zaborrez beterik.

– Hura Beverly Hills da –argitu dit.

Harritu naiz beltzen dohain ironikoarekin.

– Hemengo jende dirudunak, eta Soweton bada dirua duen jendea, Amerikako izen ponposoak maite ditu.

Ez da izen ironiko bat! Benetan jende aberatsa bizi da hor. Erreparatuz gero, urrutiko etxeek bideberri ingurukoak baino hobeak ematen dute. Hangoak etxeak dira, etxea handiak; hemengoak, blokezko txabola antzekoak. Denak berdinak.

Ailegatu gara. Zain dauzkagu Siphiweren bi lagunak: Smoky xhosa eta Tsibubile tswana. Tour batera eramanen naute.

– Zer egiten duzue bizitzeko?

– Aktoreak gara.

– Gu, nolabait, pribilejiatuak gara. Badaukagu nondik dirua atera. Gainera orain Europan belztasuna modan dago, eta kontratuak egiten dizkigute. Baina hemen gehienak miseria gorrian bizi dira. Hortik lapurretak-eta.

Sowetoko karrika asfaltatu gabeetan barneratu gara, eta plaza moduko batean gelditu.

– 1976ko ekainean hildako lehendabizikoari egindako monolitoa da hau –erakutsi dit Siphiwek hesi ñarro batez inguratutako harria–. Ikusten duzu anfiteatro antzeko hura? Bada han sinatu zuen ANCk ildotzat daukan Freedom Chapter (Askatasun Agiria). Karrika horretan barna segituz gero, Nelson Mandela bizi zen etxera ailega gaitezke.

Askatasun borrokarekin loturik dago Sowetoko geografia mitikoa.

Beverly Hills aldera goaz orain. Winnie Mandelaren etxera. Ingurukoak txiki uzten dituen

etxearen aurrean gelditu gara. Turista saldoa dago zizerone baten jardunari atezu. Soweto bidai-agentzien mapetan sartzen denez, turistak autobusez inguratzen dira hona, borroka zelaiak eta famatuen etxe atarietan argazkiak egitera. Ni bezalaxe.

– Etxe ederra dauka Winniek! –esan diet, erdi zintzo erdi txantxetan.

Zer edo zer susmatu dute nonbait. Isilik gelditu baitira. Winniek egindakoak eginagatik, figura mitikoaren hondarrak bainoago gordetzen ditu jendearengan. Oraindik ere indar itzela dauka ANC barruan, batez ere emakumeen artean. Apartheid garaian gorriak erakutsi zizkion Gobernuak, baina behin garai berria hasita, haren ospea zikintzen joan da, Nelson Mandelak dibortzioa eskatzeraino. Dirudienez, Winnie Mandelak zaindari pertsonalak zeuzkan, eta behinola ustez salataria zen mutiko gazte bat bahitu eta hil egin zuten. Epaiketa egin zen, baina ezin izan zuten ezer frogatu Winnieren aurka. Winniek argudiatu zuen mutikoa ez zuela bahitu, baizik eta «biziotik salbatu». Mutikoa apaiz protestante baten umezurtz-etxean bizi zen Sowe-

ton, apaizak homosexual ospea omen zuen, eta Winniek mutikoa homosexualitatetik salbatzeko bahitu omen zuen. Hala ere, kontua da, epaiketan ezer frogatu ez bazen ere, Winniek TRCn deklaratu beharko duela.

– Garagardo bat hartuko dugu –proposatu du Smokyk, autora sartuz.

– Nolakoa da gaurko ANC? –galdetu diet zurizuri.

Barre egin dute eta mutu gelditu dira.

– Mandelaren gobernuaren aldekoak zarete ala ez?

– Lehen bai –erantzun dit Siphiwek–. Baina orain ahaztu egin dira gutaz.

Saiatu naiz Siphiwen hariari tiratzen, alferrik.

Aparkatu dugu. Blokez egindako etxe batera goaz. Joan den astean norbait hil omen zen etxe honetan, eta aste osoan auzokoak eta familia etortzen zaie bisitan, mina konpartitzera. Hiletak ospakizun garrantzitsuak dira beltzen kulturan. Nolakoa pertsonaren garrantzia, halakoa hileta. Gizonak, agureak gehienak, atarian daude. Trufaka ari zaizkit nire azal zuriagatik. Barnean

daude emakumeak, eta etxeko nagusia. Ama hil zaio.

Gainezka dago gela. Denak beltzen zerbeza edaten. Pitxerretik edaten hasi naiz.

– Ez, horrela ez. Zango baten gainean belaunikaturik edan behar duzu, hildakoarenganako errespetuan.

Smokyren etxera abiatu gara gero. Bospasei etxeren artean konpartitzen dute komunarenak egiten dituen txabola txikia. Gela bakarrekoa da etxea. Ohe handia, eta sukalde moduak egiten dituen izkinaren artean mahai txikia. Han eseri gara Siphiwe eta Tsibubile garagardoen bila doazen bitartean.

– Arrakasta itzela duen irrati programa batera telefonoz hots egin zuen aurreko egunean emakume batek –kontatzen ari zait Smoky–. *Politikoki zuzen* kontzeptuari buruz ari ziren. Badakizu zer esan zuen alprojak? Bada, beltzen bizibaldintzak zurienak baino eskasagoak direnez, beltzei beltz esan beharrean *ezinduak* deitzea proposatu zuen. Jada ez gara ezta beltz ere! Ezinduak! Apartheid aurretik *bantu* ginen Legearendako; apartheid garaian, *native*; ondoren *plu-*

ral paratu ziguten; eta orain, politikoki zuzen zera horrekin, *ezindu.* Asko ikasten ari gara!

Siphiwe eta Tsibubile etorri dira zerbezekin. Edan dugu. Baina nik Sowetoko sheeben bat ezagutu nahi dut.

– Sheebenik izanen da hemen inguruan –hona gentozela bat ikusi dut.

Joan gara, gelan sartu gaituzte, eta egia esan, ez da hainbesteko aldea hemen izan edo Smokyrenean. Ezberdintasun bakarra da: hemen jendea elkartzeko gela handiskoa dutela, eskaiz tapizatutako sofak eta musika. Beste bi koadrila ere badaude algaraka.

– Egunkarian leitu dut gaur, iparraldeko auzune zuri aberats batean sheeben bat antolatu duela Sowetoko *sheeben queen* batek... inguru hartan bizi diren beltz aberatsendako.

– Hori ezin da –bota du Tsibubilek–. Sheebena township batean ez badago, ez da sheeben bat.

Txitean-pitean joan zaigu denbora eta ilundu du. Hirira eramanen nautela esan didate. Ez da karrikak argituko dituen farolarik. Autoaren argi-

tara ikusten da jendea banaka, sheebenetara doala. Umeak ere erretiratu dira.

– Hastera doa Sowetoko bizitza –esan du Smokyk–. Irteten ari dira eta laster hasiko da parranda.

– Eta arriskua! –moztu dio Siphiwek.

Borroka gehiago ez!

Durbanera noa motxila bizkarrean harturik. Johannesburg erdialdeko jendetzan barneratu naiz Durbango taxiaren bila. Geltokia bilatu behar duzu lehendabizi, norabide ezberdinetara doazen taxiak leku ezberdinetan baitaude, bata bestetik nahiko urrun.

Siphiwek esan bezala, taxi indiarrez galdetu dut, taxi beltzak baino hobe eta erosoagoak direlakoan. Beraz, garraioa ere apartheidaren sailkatze arrazistari egokitzen zaio. Hoberenak eta garestienak autobusak dira; zuriek erabiltzen dituzte batez ere. Gero taxi indiarrak daude. Eta azkenik, kaskarrenak, taxi beltzak.

– Hantxe –erakutsi dit txofer batek.

– Durban, Durban! –hasi zait gidari beltza, motxilarekin ailegatzen ikusi nauenean.

– Indian taxi? –galdetu diot.

Baietz. Konbia ikertu dut zeharka. Besteak baino hobea dirudi, karrozeria garbi, gurpilei oraindik ildoa nabari zaiela. Gidaria ordea ez da,

ezta hurrik eman ere, hindua... ikatza bezain beltza!

Pentsamolde apartheidatua amarrutan ari zaidalakoan, pentsatu beharko nuke taxi indiar guztietako txoferrek ez dutela zertan hinduak izan.

Hego Afrikako lurralde osoan zehar mugi zaitezke Taxi Beltzak baliaturik. Dirudienez 50etara arte jendeak autobus publikoak erabiltzen zituen, harik eta Gobernuak prezioak igotzea erabakita, garraio publikoari boikota egin zion arte. Orduan sortu ziren batetik bestera eramaten zituzten furgoneta hauek: konbiak. Beltzei zegokien edozer bezala, ez zeuden legeztaturik. Hego Afrika Berria sortu denetik, negozio handi hau legeztatzen saiatzen ari da Gobernua, ekonomia ofizialean sartzen alegia, baina arazo larriak dauzka.

Jurie ernegatu egiten dute taxi beltzek:

– Nik zerga itzelak ordaintzen ditut. Baina horiena negozio alegala denez, jabeek ez dute zergetan rand bakarra ere pagatzen.

Konpainiek 1997ko maiatza bitartean eduki dute legeztapena eskatzeko epea. Hortik aurre-

ra ilegalak dira. Legeztatu beharrak etekinen urritzea eraginen zuelakoan, konpainien arteko guda areagotu baino ez zuen egin. Konpainia handiak –Staggie gangsterrarenak, adibidez–, negozioaren etekin emankorrari eusteko, txikiek edo partikularrek hartutako zonetan sartzen dira, eskura dituzten arma guztiak erabiliz: taxiari segada egin eta barnean harrapatu guztiak tiroz garbitu, txoferrari etxeraino jarraitu eta hil, taxia errepidetik aterarazi, boikota ezarri...

Ordubete eskas esperatu behar izan dugu konbia bete arte. Gidariak bultzaka eta tropoiluan sartu du gure katxarreria guztia. Atzean sartzen saiatu naiz, baina aurrera bidali naute bi mama afrikanerrek; beharbada, zuria naizelakoz errukiturik. Atzeko jendea ere tropoiluan doa, hamazazpi lagun eta hiru ume denera. Beharrik gidariaren ondoan eserarazi nauten, bestela, hor atzean joanen nintzateke eta... Johannesburgetik Durbanera badira bostehun kilometro inguru.

Zabal eta lau hedatzen da paisaia Drakensberg mendietaraino. Ikusi ere ez da ikusten zeruak lurrarekin bat non egiten duen.

Lozorrotik atera naute atzeko bi nesken klik ozenek. Drakensberg mendikatean gora goaz. Tontorrera iritsitakoan erauntsi itzela lehertu da. Euria hasi du erruz. Dirudienez gidari zuluari euriak ez dio traba egiten, apurrenean ere ez baitu abiadura gutxitu.

Portuan behera taxi bat aurreratzen hasi zaigu. Gure gidariak, on puska ematen zuenak, gehiago zapaldu du. Beste taxiak aurreratu egin gaitu berriz. Hara!, borrokan hasi dira. Batak aurreratu, gero besteak. Euria ari du goian behean. Ziztu bizian goaz besteari aurrea hartu nahian. Atzera begiratu dut: bidaiariek errepidean josita dituzte begi handituak. Izua nabari zaie. Beste taxistaren aurpegia ikustea lortu dut leihatilatik: hindua da eta barrez ari da; hango pasaiariak ere izututa, gu bezala. Bi taxiak parez pare doaz maldan behera. Baina... ez du inork ezer esan behar!?

Bi gidariak elkarri begira doaz bidean errepa-ratu gabe. Ezin dut gehiago.

– Mesedez, mesedez, borroka gehiago ez! –erregutu diot gure zuluari.

Larkara begiratu dit. Baina abiadura gutxitu eta han urrundu da hinduarena. Joan dadila kabroi hori! Deskantsu ederra hartu dugu denok.

Durbango geltokira ailegatzean, gidariari esan diot:

– Mila esker hindua joaten uzteagatik.

Ulertzen ez duelako imintzioa egin dit.

– Bai, taxi indiarra!

Sorbaldak jaso ditu bakea eman dezadalaedo adieraziz.

Durbanek hiru milioi t'erdi inguruko populazioa du, %83 beltzak dira, %9 indiar jatorrikoak eta %7 zuriak. Cape Townen coloured direnak, hinduak dira hemen. Koloretsuak dira hiri erdiko karrikak. Curry usaina, intsentsu lurrina, meskitak, zuluak jantzi tradizionaletan, emakume beltzak kinkillak saltzen, surfer zuriak, Oxfordeko azentudun ingelesak. Denda baten atarian garrasika ari dira bozgorailuak, zulueraren klik ozenak kolpeka. Ikasle piloa dago zentro komertzial erraldoiaren ondoan. Hemen ere ezarri du gizon zuriak bere bizitzeko manera: libertitzea izozkia jan bitartean eskaparateak begiratzean datza. Hinduak hinduekin, beltzak beltzekin...

Hondartzan surf lehiaketa dago. Hor dena da zuria, Amerika. Neska panpinak, bikinitan, surferrengana ondoratu eta musukatu egiten dituzte uretatik irtendakoan. Kinkilla saltzaile beltzek aspertu aurpegiz so egiten diete, ikuskizuna mila alditan errepikatu izan balitz bezala. Bero egiten du, bero hezea, arropa larrura itsasten duen horietakoa.

Hemengo itsasoan murgilduko nintzateke gustura. Baina tiburoiak daude!

Mazisi Kunene

Unibertsitatean aurkitu dut Mazisi Kunene idazlea. 1930ean jaio zen Durbanen bertan. 1959an aldegin zuen Hego Afrikatik, Britainia Handira aurrena eta EEBBetara gero. Afrikako literatura irakatsi zuen. Afrikako literatura bertako hizkuntzetan idatzi beharko litzatekeela uste duten bakarrenetakoa da. Zulu kultura kantatzen du: mitologia, unibertsoaren kontzepzioa, kosmogonia, ohiturak.

Shaka errege zuluari buruzko poema epikoa du lan nagusia, *Emperor Shaka The Great*. Shaka diktadore odoltsu gisa aurkeztu zuten historiagile zurien aurka dihardu Kunenek, eta ikuspegi honek eragin handia izan zuen idazle beltzen historia interpretatzeko maneran. Diotenez, Steve Bikok politikan egindako lan berdintsua egin zuen Mazisi Kunenek literaturan.

Ile urdinduak jakite handiko itxura ematen dio gizon beltzari. Berehala jarri nau nire tokian, badaezpada ere, autoritatez jantzitako ahotsez.

MAZISI KUNENE: Europako jenderik azkarrenak, zuhurrenak, mendebaldeko kultura hilik dagoela oharturik, Afrikan eta Asian paratu ditu begiak. Europako kultura eta Afrikako kultura, zentzu batean, aurkakoak dira, borrokan ari dira, hemen Hego Afrikan zein Afrika osoan. [Kontu kontalaria dirudi].

J.O.: Eta zein gailenduko da?

KUNENE: [Itzulinguruka dabil, azpimarratu nahi duena kolpe batez bota arte] Nik uste dut Afrikako kulturak irabaziko duela, Europako kultura hilik baitago; gizonaz ahaztu eta materialismoan erori da. Gure kulturek (zulu kulturak, kasu) badute humanitateari zer eskaini: pertsonen izaera eta arimarekin bat datozen bizimodu eta baloreak.

J.O.: Ni ikusten ari naizenez, Afrikan ere bizimodu hori galtzen ari da, mendebaldeko kultura nagusitzen ari da...

KUNENE: Ez! Bizimodu hori hortxe dago, zuk uste baino biziago gainera. Arazoa, izan ere, honetan datza: nola uztartu zulu kultura mendebaldeko gizarteak ekarri dizkigun onurekin, gure kulturaren muina galdu gabe. Eman dezagun...

afrikanerrak, horiek mendebaldeko kulturakoak dituzu, baina zuluengandik hurbilago daude, edo egon dira behintzat, ingeles kulturatik baino. Afrikanerrak nekazariak izan baitira hona ailegatu zirenetik. Eta nekazariak izanik, komunitate zentzua mantendu dute, aldamenari begira bizi izan dira, elkarri lagundu diote. Hego Afrikako erronka nagusiena horixe da, nola mantendu bizirik kultura afrikarra, bizimodua... eta nola ez bihurtu mendebaldeko giza-emakume indibidualista, bakartia, kontsumitzaile hutsa.

J.O.: Politikariak horretara doazenik ez dirudi.

KUNENE: Politikariak! [Haserreak boza altxarazi dio]. Politikariak kakatsu batzuk dira! Burua non daukaten ere ez dakite-eta! Boteretxo zatiari helduta bizi dira.

J.O.: Politika koloniala egiten jarraitzen dute orduan?

KUNENE: Ni panafrikartasunaren aldekoa nauzu. Kolonialismoak ezarritako muga ez-natural guztiak hautsi eta Afrikako Estatu Batuak sortzen saiatu beharko ginateke. Horrela konponduko lirateke Ruanda bezalako arazoak. Kolonialismoak herriak zatitu egin ditu. Hor daude ven-

dak... Hego Afrika, Zimbabwe eta Mozambike artean banandurik! Eta horrela banatutako herriak edonon dituzu Afrikan. Nik herrika antolatuko nuke Afrika, eta herri guztiak konfederazio batean bildu. Baina zoaz politikariei hori esatera...

Banaketa orain!

Pan African Congress (PAC) 1959an ANCtik sortutako zatiketa da. PACekoek ez zuten ulertzen ANC koalizioan aritzea partidu ez-arrazial batekin, Partidu Komunistarekin, hain zuzen. Beraz, PAC sortu zuten. Geroztik ANC eta PAC kide eta etsai izan dira aldi berean: townshipetako kontrola lortzean zetzan afera. Horretarako, alderdi batek nola besteak jende ugari hil duen guda latzean jardun dute. Gaur egun, hauteskundeetan %5 lortu ondoren, koalizio gobernuan daude ordezkari batekin.

Patricia De Lille PACeko parlamentaria da, hogeita hamabost urte inguruko emakume coloureda. Harritu nau beltza ez izanak. Oso lanpetua ematen du, eta hamar minutu baizik ez dizkit eskainiko.

J.O.: Hauteskundeetan zenbait zurik arrazistatzat jotzeko lelo hau egotzi zizueten: *One settler one bullet (Kolonizadore guztiei bala bana).*

PATRICIA DE LILLE: Lelo hori jendearen amorruaren adierazpena zen. Guretako, afrikar bat

hemen jaio eta nazio hau maite duena da. [Oso era profesional eta politikoan ari zait, exekutibo bat enpresak nola funtzionatzen duen azaltzen ariko balitzait bezala]. Gu ez gaude zurien aurka (orain, lehen ez bezala, zuriak izan daitezke gure partiduko partaide), baizik eta zurien zapalkuntzaren aurka. Gu izan gara Hego Afrikako lehen partidu ez-arraziala. ANC, adibidez, multirraziala da eta arrazak badaudela onartzen du. Guk esaten dugu denok arraza berekoak garela: giza arrazakoak.

J.O.: PAC alderdi ezkertiarra da.

DE LILLE: Denek esaten dute hori, eta ez da egia. Guk nazio demokratikoa sortu nahi dugu, baina kontuan hartu behar da herri hau kolonizatua izan dela eta bertakoei lurrak kendu zitzaizkiela. Beraz, lur horiek aurreko jabeei itzuli beharko zaizkie. Honek izugarrizko istiluak sortzen ditu. Apartheidak sortutako desorekak zuzentzen saiatu behar dugula iruditzen zait, jende beltzari ukatu zaiona ematen. Beltzen aldeko diskriminazio positiboa ahalbidetzen duen programak huts egin du, eta ez da nahikoa. ANCk dio, aberastasunaren banaketa hazkuntzaren

ondoren eginen dutela. Guk diogu: banaketa orain! Marshall Planaren antzeko bat proposatu diogu Gobernuari.

J.O.: Beste era batera eginen zenukete trantsizioa?

DE LILLE: Zenbait gauza aldatuko genituzke: lurren erredistribuzioa, edo politika ekonomikoa ikusteko modua, edo pobreziaren... ANCko gobernua pobreziaz ahantzi da, eta garatzen ari den beltzen klase ertain txikiari begira antolatu du politika.

J.O.: Truth and Reconciliation Commission batera joango naiz laster.

DE LILLE: Beste era batean antolatu beharko lirateke. Ezin baitira modu berdinean epaitu apartheidaren alde eta aurka borrokatu direnak. Bigarrenak humanitatearen aurkako krimen baten aurka ari ziren borrokan, lehenak krimena mantentzearen alde. Baina lehen baino hobe gaude. Etorkizunari gogoz begiratu behar zaio. Gu behintzat lan egiteko prest gaude.

Transkei gudan

Ez hartu inor autoan, ez ireki inori autoko atea, ez gelditu bideberriaren erdian, hoteleko atarian baizik ez jaitsi autotik!

– Behin igaro nuen Transkei –esan dit Durbango lagun zuri batek–Cape Town bidean nindoala. Gasolina hartzeko gelditu nintzenean, gasolineroak esan zidan: «Baina, baina... zertan ari zara? Ezta jaitsi ere autotik! Ospa lehenbailehen Transkeitik!».

– Eta bestela?

– Bestela... –erantsi du nire lagun zuriak, ‘bestela’k «beltz hiltzaile horiek ez baleude!» ezin ezkutaturik–, leku zoragarria da, Hego Afrikako Afrika bakarra!

Homeland edo bantustan bat zen Transkei. Apartheidaren teoria, hots, arraza bakoitzaren garapen maila ezberdinari antolaketa sozial eta politiko ezberdina dagokiolako ideia, praktikara eramateaz gain, hirietarako migrazioa kontrolatu nahi izan zuen National Partyk Transkei beza-

lako homelandak sortzean. 1976an eman zion National Partyren gobernuak independentzia.

1977an Bophuthatswana sortu zuten tswana jendearendako, Venda vendendako, Ciskei xhosendako, Qwa-Qwa sothoendako, eta abar. Denera Hego Afrikako lurrazalaren %13 populuaren %90endako. Gobernari ustelak paratu zituzten homelandetako buru, eta jendea mugiarazten hasi ziren lurralde horiek jendez gainezka egiteraino. Qwa-Qwa sothoan, adibidez, 24.000tik 300.000ra igo zen populazioa hamar urteren buruan (1970-80).

Jende mugitze horrek lehendik desegin samar zebilen familia afrikar tradizionala arraso suntsitu zuen. Senarra hirian edo etxaldeetan edo meatzeetan ari zen lanean; emazteak eta umeek, paserik gabe eta nazionalitate hegoafrikarrik gabe, homelandean gelditu beharra zuten, senarrak irabazitako soldataren puskaren bat bidaliko zielakoan, bantustanetako lur antzuetatik bizia atera ezinean. Urtean behin ikusten zuten elkar, senarrak zituen opor bakarretan.

Paisaia muino berdez luzatzen da Umtata bidean, zuhaitzik gabe. Azienda bururen bat edo

beste. Etxeak porlanez edo buztinez egindako txabola biribilak dira, kolore biziz pintatuak, lastozkoa teilatua. Auzo txiki batzuk osatuz dautza muinoen magaletan, ur errekastoen altzora. Orain ulertzen dut Transkeiren balizko afrikartasuna: arkitekturak Afrika tradizonaleko moldeak gordetzen ditu, antzina bezala janzten dira emakumeak, hemendik urruti dago mendebaldeko kultura.

Lainoak ia dena estaltzen du, epela giroa. Jende saldoak bideberri bazterrean, taxien zainedo. Nire autoko leku hutsak zirika ari zaizkit kontzientzian. Adiskide zurien aholkuak bazter uztea erabaki dut eta gelditu egin naiz bakarrik dagoen mutiko gazte bat hartzeko.

– Nora zoaz?

– Horko herrixka batera –esan dit urrezko hortzak erakutsiz; beldurraren ausikia nabaritu dut erraietan; ez dauka itxura onik.

– Hemen bizi zara?

– Ez, Johannesburgen. Hillbrowen. Ezagutzen duzu Johannesburg?

– Baita Hillbrow ere.

– Ni oporretara etorri naiz. Aste Santuan jende asko etortzen gara jaioterrira. Hemen ez dago lanik, eta hara joan behar bizitzera. Segurtasun enpresa batendako egiten dut lan.

– Aizu, zergatik dago hainbeste jende bidebeberri ertzean... taxien zain akaso?

– Bai, baina taxirik ez dabil, edo oso gutxi. Atzo lau lagun hil zituzten taxi batean. Bidaiari bat, gidaria eta haiei laguntzera joandako bi polizia.

– Joder!

Muino gehiago bideberriaren bi aldeetara. Txabola koloretsuak, gehienak urdin edo berde. Larre dago dena.

– Zergatik dago horren arbola gutxi?

– Gaztea nintzenean gehiago zegoen. Eta gure aitak esan dit bere garaian gehiago zegoela. Homelandak sortu zituztenean jende piloa ekarri zuten hona bizitzera. Jende gehiegi eta lan gutxi. Jendeak moztu egin zituen arbola guztiak, berotzeko...

– Azienda ere gutxi ikusten dut. Afrika osoa elikatzeko larreak dauzkazue.

– Ez daukate dirurik azienda erosteko. Pobreegi dira... Eta zu nora zoaz?

– Umtatara –esan diot.

Hogei mila biztanle inguru ditu Umtatak. Sarreran aireportu internazionala, Chief Kaiser Matanzima lehendakariaren asmo megalomanoen aztarna. Karrika batzuk ordea, asfaltatu gabe daude. Transkeiko parlamentu-ohiaren eraikina ikustera joan naiz, itsusia itsusirik baldin bada. Ostatu hartu dudan hotelak, hemengo eraikin gehienek bezala, botere-antzezpen lekua izan eta egiaz denera etorritako lekuen luxu erori eta arraildua ageri du; garaien joan-etorriei uko egin eta bereari, botereari, txikia baina txikiagatik ponposoago, eta distirari eutsi nahiko baliote bezala.

Kofiadun neskixak zerbitzatu didan hiru plater-aldiko afari kaskarra irentsi dut: zopa urtsua, makarroiak eta masustazko ez dakit zer bat. Kafea hartzera herriko hotel modernoenera joatea erabaki dut. Bost gizon daude, telebistari begira, Aste Santuko bideberri istripuak zenbat ugaritu diren hizpide. Hiritartu eta oporretara etxera itzulien aire desegokia dute, jada herrian

lekuz kanpo, familiaren halabeharrei men eginik etorriak. Barrako bat hurbildu zait mahaira. Autobus gidaria omen da, Johannesburgeko langileak oporretan etxera ekartzera etorria.

– Ia gu ere hil gara bideberrian! Langileek lehenbailehen ailegatu nahi zuten, ahalik eta denbora gehiena familiarekin egoteko. Sakon zapaltzeko esanez etorri zaizkit bide osoan. Esan diet, beharrik orain lau aldiz etortzen zareten; garai zaharretan bezala urtean behin etorriko bazinete, seguru hilak izanen ginatekeela denok.

– Lehen Gabonetan bakarrik etortzen ziren, ezta?

– Apartheidaren garai gogorretan Gabonetan bakarrik. Orain lau bider. Ez dakit zertara, familiarekin egotera edota borrokatzera! Inguruko herri batek Ruanda ematen du. Urteak daramatzate gudan. Emakume eta haurrak herriko dendara hurbiltzen dira, asko eta asko kilometro luzeak eginda, Poliziaren babesean dendan lo egin ahal izateko. Izan ere, denda da guda taldeek errespetatzen duten leku bakarra. Biharamunean, etxera itzulitakoan, batzuek etxerik ere ez dute aurkitzen. Artasoroak ere ez dituzte lan-

tzen, artoen altueraz baliaturik erasotzaileak agertuko direlakoan. Gizonak, bien bitartean, gudan aritzen dira taldeetan antolaturik. Dirudienez, hiru herrixkaren arteko liskarra da, eta agureek jada gogoratzen ez dituzten garaietan hasi omen zen, lurra eta aziendagatik. Eta langile migrariak etortzen direnean, areagotu egiten da guda.

Egunkaria erakutsi dit. Emakume taldea ageri da denda atarian. Dendari colouredak dio: «Gu ere komunitate honetako partaide gara. Bezeroak baino gehiago dira guretako. Babesa errefusatuko bagenie, heriotzara kondenatuko genituzke».

Kanpora atera naiz. Ilun dago herria. Hoteleko argitik aldendu eta ortziari so egin diot. Izarrak, izarrak eta izarrak... horrelako zerurik sekula! Hegoaldeko Gurutzea topatzen saiatu naiz, baina ezin. Izar gehiegi dago.

Pretorius

Atzo ailegatu nintzen Vryheid-era. Kuwazulu Natal. Swazilandiako mugatik ehun eta berrogei kilometrora. Hego Afrikako herri eta hiri guztiak bezala Vryheid bi da: zurien eremua (herriaren izena daramana) eta *location,* non beltzak (zuluak kasu honetan) bizi diren. Lauzpabost karrika baizik ez dituen herria da, baina «historia luzea du», gosaria zerbitzatu didan neskak argitu didanez.

Vryheid inguruan, ingeles eta zuluen arteko bataila bat baino gehiago gertatzeaz gainera, Uhalde Odolduaren Bataila ospetsua izan zen.

1838an *Great Trek*ean ailegatutako afrikanerrek zuluei zigorra eman nahi zieten, zuluek haien etxaldeak erasotzen zituztelako. Pretorius zuten buruzagi –Pretoria hiriari izena emanen ziona–, eta zin egin zioten Jainkoari, zuluen aurka irabazten bazuten, egun hori betiko gogoratuko zutela. Kanpaturik zeudela, ikusi zuten zulu armada erasoan zetorkiela. Pretoriusek erasora ateratzea agindu zuen, eta uhaldea guru-

tzatu zuten zuluei segika. 3.000 zulu hil omen ziren, boerrak 3 baino ez!

Uhaldea gorriz tindatu zen. Hortik omen datorkio izena uhaldeari. Egun horretan Jainkoarekiko zina berritu zutena afrikanerrek. Orduan erakutsi omen zien Jainkoak: eurak zirela hautatutako herria, eta euren hizkuntza Jainkoarena!

National Party 1948an gobernura ailegatu zenean, jai publiko deklaratu zuen bataila gertatu eguna: abenduak 16. Gaur egun, Nelson Mandela boterean dagoenetik, Adiskidantza Eguna ospatzen da.

Desmond Mpilo Tutu

Kortatu taldeari eta Nobel Bake Sariari (1984) zor diet Desmond Tuturen lehen aditzera. Transvaalen jaio zen 1931ko urrian. Irakaslea zuen aita, eta Johannesburgera bidali zuen ikastera, Bantu High Schoolera. Irakasle egin zen Desmond Tutu ere. Hogeita hiru urte zituela ezkondu zen Leah Normalizorekin, eta lau seme-alaba dituzte. Ezkondu ostean amaitu zituen Teologia ikasketak, 1960an apaiz metodista izendatu zuten arte. Londresen bizi izan zen ondoren dozenerdi urtez, eta Hego Afrikara itzuli zelarik, apartheidaren aurkako borrokan murgildu zen UDFko (Unit Democratic Front) buruzagi gisa.

Egun, Hego Afrikako elizak biltzen dituen batzarreko idazkari nagusia izateaz gain, Truth and Reconciliation Commissioneko lehendakaria da.

J.O.: Zer da TRC?

DESMOND TUTU: Adiskidantza eta Egiaren Aldeko Batzordea, apartheid garaian giza eskubideen aurka egindako krimenak aztertzeko batzordea. Ikusi genuen krimen horiek ezin zirela

besterik gabe horretan utzi, eta jendeak gertatutakoa jakiteko eskubidea zuela.

J.O.: Nola funtzionatzen du?

TUTU: Ikerketa Batzordea daukagu, salatutako krimenak aztertzeko. Kasu horiek Epaiketa Batzordeak hartzen ditu, eskualdeka epaiketa irekiak antolatzeko. Epaiketa horiek bi modutakoak izan daitezke: entzuketak eta amnistia eskaerak. Entzuketetan, krimenen egileak ezagunak izatean, biktimek jasandakoa entzutea baino ez da epaiketaren helburua, egia jakinaraztea. Amnistiakoetan, krimen egile ezagunek amnistia eskatzen dute, biktimak edo biktimen senitartekoak aurrean dituztela. Amnistia eskaera guztiekin informe bat idatziko da 1998ko martxorako, eta ikusiko da amnistia nori eman eta nori ez. Epe horretan amnistia eskatu ez dutenak lege arruntaren menpe geldituko dira.

J.O.: Telebistan agertzen dira epaiketak.

TUTU: Gure helburua egia azalaraztea baita.

J.O.: Amnistia aplikazio gehienei baiezkoa eman diezue.

TUTU: Gehienei ez bada, askori bai. Dena dela, guk amnistiari baiezkoa emateak ez du

esan nahi gero Gobernuak guk baiezkoa eman guztiei amnistia emanen dienik.

J.O.: De Klerk eta P.W. Botha lehendakariohiek ez dute TRCra deklaratzera etortzeko asmorik.

TUTU: Guk ez dugu amnistia eskatzera inor behartu. Baina etortzen ez badira, prozesu hau bukatzean auzipetuak izateko arriskuan egonen dira. Noizbait lege arruntaren bitartez auzipetuak izan daitezke. Zein kamutsak diren erakusten dute amnistia ez eskatzean.

J.O.: Buruzagiak deklaratzera etortzen ez badira, apar theidaren arduradun nagusiek amnistia eskatuko ez badute, zertarako balio du honek guztiak?

TUTU: Egia jakinarazteko. Askok ihes egin dezake... baina ez dago ezkutalekurik eskubideak bortxatu zituztenendako. Noizbait jakinen da zer egin zuten, eta jakiten ez bada, horrekin bizi beharko dute betiko. Egiak indar handia du. Beti jakiten da.

J.O.: Egiaren kontzeptu oso noblea eta izpirituala duzu. Baina kezkagarria zera da: kriminalak egia aitortu eta etxera joan daitezkeela.

TUTU: Halaxe da. Jendea ez dago odol gosez, ez du mendekua nahi. Harrigarria zen De Kocken epaiketan zeinen jende gutxi zegoen, gizon horrek egin dituenarekin! Esperatzekoa zen, jendea De Kocken burua eskatzera joatea, baina ez! Jendeak jakin baizik ez du nahi, besterik gabe. Eta mendekurik nahi ez izate hori gure buruzagiek lortu dute. «Barka dezagun» dio Mandelak. Nork esan diezaioke 27 urtez kartzelan egondako Nelson Mandelari... «zuk zer dakizu guk pasatakoaz»?

J.O.: Batzuek uste dute kriminalei zigorra ezarri behar zaiela.

TUTU: Ez nago ados. Barkatu egin behar da. Eskuzabaltasuna da afrikarren ezaugarria. Ikusi Kenya. Independentzia lortutakoan, zuriek uste zuten denak akabatuko zituztela. Alderantziz gertatu da, Kenya zurien paradisu bilakatu da. Zimbabwen gauza bera gertatu zen, eta Namibian. Trantsizioa hastean, egoera politikoa eta guda zibil arriskua kontuan harturik, zera erabaki genuen: ez genuela Nuremberg bat nahi, ezta amnesia ere! Amnistia nahi genuen, amnistia baita etorkizunerako oinarri sendoa.

J.O.: Egia azalaraztea duzue lanaren alde bat, adiskidantza lortzea bestea. Nola lor daiteke adiskidantza, De Klerk aske dagoela edo Poliziak amnistia lortzen duela ikusita? Biktimetako batek esana da: «Tutu eta Mandelarendako erraza da barkatzea, baina gure bizitzan ezer ez da aldatu!».

TUTU: Harritzen nau norbaitek hori esana. Baina ni benetan harritzen nauena, jendearen gorroto eza da! Beraz, adiskidantza gertatzen ari da. Utzidazu esaten lehendabizi, adiskidantza ezin dela dekretuz erabaki, eta bigarrenik, adiskidantza hegoafrikar ororen lana dela. Rustenburg-en, esaterako, bada adiskidetzea: bik amnistia eskaera egin zuten, eta komunitate osoak, biktimen ahaideek barne, amnistia eskaera bultzatu zuten. Beste kasu bat: lau lagun hil zituen polizia batek bere apaizarekin hitz egin zuen, hildakoetako baten alargunarekin elkartu nahi zuela; biak elkartzea lortu dugu, eta senarra hil izana barkatu dio alargunak.

J.O.: Baina kezka eta arazoa ezin dituzu ezkutatu.

TUTU: Arazoa beste nonbait dago... Zuriengan dago arazoa! Komunitate zuriak uste du barkamena merezi duela, eta eskubide hori balu bezala jokatzen du. Afrikaans egunkari bateko zuzendariari esan nion: «Ez dakizu zein zorioneko zaren; zure zorteaz gaizki baliatzen ari zara, eskaini zaizun eskuzabaltasunari erreparatu beharrean; kexatu baino ez zara egiten, eta kritikatu!; baina begira zer gertatzen ari den Ruandan, Bosnian; hemen ere gerta zitekeen, baina ez da gertatu!».

J.O.: Giza eskubideen bortxatzaileak talde txikia dira, baina onuradunak talde handia, komunitate zuri osoa, alegia. Saiatuko da TRC zurien jarrerak aldatzen?

TUTU: Ez espero mirakulurik gugandik.

Nire senarraren hiltzailea

Truth and Reconciliation Commissionera abiatu naiz, hotelean ederki gosaldu ondoren. Metal detektorea pasatu eta eserlekuz beteriko futbito kantxa batean sartu naiz. Oholtza gainean, erdialdean, mahai bat hiru aulkirekin; ezkerretara, beste mahai bat; eskuinean, itzultzaileen kabina... eta telebista kamerak oholtzara zuzendurik. Nire alboan, publiko artean, adin ertaineko hiru gizaki eta emakume bat: zuri bakarrak... biktimetako batzuek Polizia inplikatuko dutenez, polizien abokatuak.

Saldoka etorri da jendea.

Oholtzara igo dira epaileak. Zutitu egin gara denok. Apaizaren otoitzaren ondoren, kantuan hasi dira denak: «Jainkoak lagun gaitzala gaizki egin digutenei barkatzen». Epaileburuak lekukotza ematera doazenak altxatzeko eskatu du. Eskerrak eman dizkie hona deklaratzera etortzeagatik: «Egiak eta Hego Afrikak eskertuko dizue!». Epaileak oholtzatik jaitsi eta eskuak eman dizkie lekuko guztiei, banan-banan.

– Harriet Jabubile Mcetshwa! –deitu dute oholtzara–. Zin dagizu esatera zoazena egia baino ez dela?

– Zin dagit.

Epaileteetako batek hitza hartu du entzutera goazenaren testuingurua argitzeko:

«Pongola herria Swazilandiatik sei kilometrora dago. Beheraxeago hiru triburen lurraldearen muga aurkituko duzue. Jo dezagun debekaturik zeuden talde politikoak legeztatu zituzten 1990. urtera:

»Legeztatu eta ANC gazteak bereganatzen hasi zen. Horri erantzunez, IFPko eremuko buruzagiek gazte horiei udalaren instalazioak ukatu zizkien presio moduan. ANCko gazteak manifestazioak egiten hasi ziren neurri haien aurka. Horregatik, IFPko buruzagiek Black Cats delako taldearen zerbitzuak kontratatu zituzten... ANCko militanteak garbitzeko.

»Egoera horretan, IFP buruzagiek autobus zerbitzua (taxiak baino merkeagoa) kendu egin zuten, autobus jabea ANCkoa zelakoz. Erantzun moduan, ANCko gazteek boikota antolatu zuten

taxien aurka. Taxi jabeak istiluetan hasi ziren gazteen aurka, eta IFP alderdira lerratu ziren.

«1993ko azaroan ANCk mitin bat antolatu zuen Pongolan. Nelson Mandela ere etorri zen mitin horretara. Gero jakinen zenez, IFPko bertako buruzagiek autobusak erasotzeko asmoa zuten. Zorionez autobusak lehenago itzuli ziren, eta ez zen ezer gertatu.

»Ikusten duzuen bezala, nahikoa egoera nahasia zegoen Pongolan. Entzun dezagun orain Jabubile Mcetshwaren testingantza».

Jabubilek idatzita ekarri du esatera doana. Ahots xumez urratu du salako isiltasuna.

«Gu Soweton bizi ginen, nire senarrak Pongolan lana aurkitu zuen arte. 1976. urtea zen. Senarra enpresa batean aritu zen idazkari hamabost urtez. Gero eta begi txarragoz ikusten zuten, jarrera arrazisten aurka hitz egiten zuelakoz. Enpresan ari zen bitartean erosi zuen taxia; baina saldu egin behar izan zuen azkenean, taxi enpresari zuriek, Poliziaren laguntzaz, zergaketa manipulatuz presio jasangaitza eragin ziotelako. Ondoren *saloon* bat ireki genuen bion ar-

tean. Saloonak bizitzeko ematen zigula ikustean, senarrak enpresa utzi zuen.

»1990ean ANCn sartu eta ANCko taldea antolatzeari ekin zion. Eskualdeko ANCko buruzagi bihurtzeak Poliziaren eta IFPkoen gorrotoa ekarri zion. Mehatxuak jasotzen genituen telefonoz eta kalean, hil behar zuteneko zurrumurrua ere hedaturik zegoen eskualde osoan. Saloonaren kaltetan izan zen hori guztia, saloona erasotuko zutelakoan ikaratu egin baitzen jendea, eta etorri ez.

»ANCeko gazteek antolaturiko taxi boikota nire senarraren lanetako jo zuten Poliziak eta IFPk. Kontuak areago gaiztotu ziren, eta ia egunero jasotzen genituen mehatxuak.

»1992ko azaroaren 22an, senarra erosketa batzuk egiten ari zenean... hamar tiro jo zizkioten! Esan zidatenera, hilketa baino une batzuk lehenago, Poliziak auto kamuflatu gisa erabilitako Ford Sierra bat igaro omen zen. Polizia instantean agertu zen; ez dakigu nola, Police Station urruti baitago.

»Hiletetara ANCko jende asko etorri zen. Poliziak eraso egin zuen, eta zazpi lagun zauritu zi-

tuen balaz. Erasotzaileen artean, Poliziaren atzean, Ford Sierra berbera ikusi genuen!

»Hortik aurrera oraindik latzagoa bilakatu zen nire bizitza. Mehatxuak jasotzen jarraitzen nuenez, MKko (ANCeko talde armatuko) kide batzuk bizi ziren nirekin. Konbi ugari pasatzen zen gure etxe aurretik, gehienak matrikula plaka gabe. 1994ko martxoaren 4an granada bat jaurti zuten etxe barnera. Izugarrizko leherketa izan zen! Ez gintuen hil beste gela batean geundelakoz. Poliziari hots egin nion, eta erantzun zidaten ezin nindutela lagundu, orduantxe autorik ez zeukatela-eta. Gero esan didatenera, Poliziaren furgonetak gure etxe inguruan zeuden... baita IFPko militanteen autoak ere.

»Epaiketa eguna ere ailegatu zen. Jendea bi multzotan banaturik zegoen epaitegi aurrean: alde batean ANCko militanteak, parez pare IFPkoak. Epaitegian esan izan zen poliziburuak antolatu zuela dena, eta zenbait polizia ere nahasirik agertu ziren. Dena dela frogatutzat eman zuten bakarra zera da: Mr. Mafhutak hil zuela nire senarra. Hogeita bost urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

»Nik uste nuen horrekin bukatuko zela dena. Bai zera! Mehatxuek jarraitu zuten, eta segada pare bat ere egin zidaten. Horietako batean, bide bazterrean zeuden bi autotatik tiroka hasi zitzaizkidan. Ez dakit nola atera nintzen bizirik! Johannesburgera joan nintzen bizitzera bolada batez. Ondoren Pongolara itzuli nintzen atzera.

»Iaz Vryheidera etorri nintzen erosketak egitera, eta nire senarraren hiltzailea ikusi nuen OK supermerkatuan. Hark ere ikusi ninduen. Dardarka hasi nintzen. Hurbildu zitzaidan eta... hil eginen ninduela esan zidan! Aurkituko zuela une egokia, baina seguru egoteko hil eginen ninduela!».

Epaile nagusiak hartu du hitza:

– Laguntza psikologikorik izan duzu? Badakizu, TRCren zereginetako bat hori dela: biktimei ondorioak arintzen saiatzea.

– Ez, ez dut laguntzarik jaso oraindik.

– Tira, jar zaitez gure idazkariekin harremanetan. Dena azalduko dizute. Baina... egun Poliziak eta IFPkoek molestatzen zaituzte?

– Bai, oraindik mehatxuak jasotzen ditut. Ez lehen bezainbat, IFP eta ANCkoen arteko liskarra

baretu delakoz. Baina oraindik ez dira mehatxuak amaitu.

Oholtzatik jaitsi da lekukoa. Bazkari garaia denez, arratsaldera arte eten dute saioa. Zutitu eta errezatu dugu. Jendea mugitzen hasi ahala tentsio guztia faundu da, kea bezala.

Bazkari ona eta txarra

Ikusi dudan lehen tabernan sartu naiz zerbait jateko asmoz. Denda eta taberna da aldi berean. Plastikozko aulki eta mahaietan bazkaltzen ari dira denak.

– Baduzue jateko zerbait? –galdetu diot etxekoandre beltzari.

– Ez, ez daukagu ezer.

– Horiek... –ingurura begiratu dut–, jaten ari dira –platerak dituzte aurrean.

– Bai, baina...–isildu egin da.

– Baina zer. Baduzu ala ez duzu?

– Bai... baina... ez daukagu zuretako janaririk. Zuk janari *nice* jaten duzu –esan dit desenkusan.

– Zer esan nahi duzu?

Ergela banintz bezala begiratu dit. Hara! Orain entenditu dut!

– Esan nahi duzu, ni zuria naizelakoz ezin dudala hemengo janaria jan?

– Zuek janari ona jaten duzue –esan dit.

Ez dakit ospa egin edo zuriek beltzen janaria jaten badakigula frogatu. Arriskatu egin naiz.

– Zer daukazue? Denbora gutxi dut beste taberna baten bila hasteko. Edozein gauza jateko prest nago.

– Baina gurea ez da janari ona.

Pazientzia galtzen ari naiz. Goseak pazientzia hiltzen du, baina pazientziak ez du gosea hiltzen.

– Igoal da, zer daukazue!

Esandakoetarik currya baizik ez zait ezagun. Currya eskatu diot, itxurosoena izanen delakoan.

Bost minutuan ekarri didate. Nazkagarria dago. Espezieek ez diote haragiari ustel kerua estaltzen. Jan beharko, taberna osoa begira daukat-eta. Nekez irentsi dut guztia, gehiago harrokeriaz. «Nazkagarria» esan dut euskaraz, plastikozko plateretik koilarakada ahoratu bitartean. Bezeroek irribarrea dute aurpegian, antzeman didate.

Bukatu dut. Azkenean! «Etxekoandrea ni baino zuzenago dabil janari kontuetan» bururatu zait, haragiaren kerua suntsitzeko Coca-Colari azken dzangada jo diodanean.

– Zer moduz? –galdetu dit etxekoandreak.

– Arrazoi duzu. Guk janari ona jaten dugu.

Bakea baino ez dut nahi

Goizean baino jende gehiago dago entzuketan. Lekukoaren testigantzak egunkarien arreta handiagoa bereganatu duelako, beharbada.

Poliziak babesturik ailegatu da Elphas Molefe, zulu lurraldean bizi zen buruzagi sothoa. Aretora sartzeko segurtasun neurriak ere zorroztu dituzte. Goiztirian metal detektoretik pasatzea nahikoa bazen, orain katxeatu ere egin gaituzte.

Berrogeita hamar urte inguruko gizon zimel eta txikia eserarazi dute lekukoen mahaian.

EPAILEA: Elphas Molefe 1966an bilakatu zen tribuko buruzagi. Molefe jaunaren tribua ehun lagunek osatzen dute. Mende hasieran utzi zuten sotho lurraldea zulu artera etortzeko, hemen bizitzeko aukera gehiago izanen zutelakoan. 1970ean hasi ziren arazoak, Kwazulu Nataleko IFPko gobernuak Molefe buruzagiaren tribua Qwa-Qwa bantustan sothora bidali nahi izan zuenean. Molefe buruzagiak ez zuen agindua onartu, eta zulu lurraldean jarraitu zuten bizitzen. Orduan, IFPko partaide bihurtzeko agindu zion Go-

bernuak. Buruzagiak ezezkoa eman zien berriro. Ezezkoari erantzunez, Gobernuak sothoen aurkako diskriminazioari ekin zion: zeuzkaten eskolak debekatu zizkien, jasotzen zuten diru apurra ukatu zien, eta abar. 80etan ANC eta IFPren arteko liskarrak hasi ziren. Entzun dezagun orain Molefe jaunak esan behar diguna.

[Ahots mehez hizketan hasi da buruzagia, sothoz. Kaskoak jarri ditut].

ELPHAS MOLEFE: Gure egoera are gehiago gaiztotu zen 1986an, Hego Afrikako buruzagi guztiak ordezkatu zituen batzorde bateko partaide gisa joan bainintzen ANCrekin biltzera Lusakara. IFPko gobernuari ez zitzaion gustatu. Lehendakariak, Buthelezi jaunak kendu egin zidan buruzagitza, eta tribua buruzagirik gabe utzi. Urte beltza izan zen guretako! Gau batean gure buruzagi laguntzailea, Gobernuaren ezkutuan buruzagi lanak egiten zituena, Vryheidetik heldutakoan segadan harrapatu eta hil egin zuten! Hori otsailean izan zen. Abuztuan, Joshua Oupa Molefe seme premua, buruzagiaren oinordekoa... hil egin zidaten! Oraindik ere ez da argitu nola. Epaitegira jo genuen, argi baikenuen IFPko-

ek hil zutela. Epaiak, ordea, ezezagun batzuek hil zutela ebatzi zuen. Gu konforme ez eta errekurritu egin genuen. Horrek Gobernuaren eta IFPkoen gorrotoa areagotu zuen, gure jendearen ehizatzea eraginez. Inon ez geunden seguru: segadak egiten zizkiguten, herria erasotu, soroak erre...

EPAILEA: Zer gertatu zen 1996ko martxoaren 3an?

MOLEFE: Goizaldea zen. ANCk Vryheiden egin beharreko manifestazio batera joateko asmoa zuten nire seme gazteenak eta haren lagunek. Autobusari espera zeuden gure etxe atarian. Hamazapi-hemezortzi urte ingurko mutikoak ziren denak. Halako batean, auto batzuk ikusi genituen hautsa zeriela. Ohartu ginenerako gainean genituen. Tiroka hasi ziren. Ni etxean babestu nintzen. Atera nintzenean mutiko gehienak lurrean zeuden, gehienak zerraldo! Eritetxera eraman genituen. Hamaika hildako, tartean gure seme gazteena. Gau hartan dolutan geundela, beste zazpi lagun bahitu zituzten... eta hurrengo egunean hilik agertu ziren, bakoitza zenbait alde. Handik bi egunetara, egoera errepika-

tu egin zen: auto batzuk ikusi genituen suak harturik guregana. Gehienok ihes egin genuen. Itzulitakoan, gure herri osoa sutan zegoen! Biharamunean tribuko batzordea egin genuen, eta bakoitzak bere aldetik jotzea erabaki. Ni ez nengoen erabat ados, horrek gure familia haustea ekarriko baitzuen. Baina horrela gertatu zaigu: batzuk Johannesburgera, beste batzuk sotho artera. Ni triburik gabeko buruzagia naiz orain, eta hemen bizi naiz Vryheiden, Poliziak babesturik. Kalera irteteko ere bizkarzainarekin atera behar dut.

EPAILEA: Uste duzu izugarrikeria horiek egin zituztenak IFPko partaideak direla?

MOLEFE: Bai, hala uste dut.

EPAILEA: Zure semeen hiltzaileak barkatzen dituzu?

MOLEFE: Nire bizita oso latza izan da. Leku okerrean eta talde politiko okerrekoa izateagatik, bi seme eta tribuko franko hil dizkidate. Hala ere, Hego Afrika Berriaren izenean, uste dut barkatzen diedala. Bizirik dauden liskar hauek alde batera utzi beharko genituzke, oraindik ez baina-

go salbu. Hona etortzearekin ere nire bizia arriskuan jartzen dut.

EPAILEA: Zaude lasai. Hemendik aurrera neurri zorrotzagoak hartuko ditugu.

[Alegiaz ere, IFPkoekin nahasiriko Polizia berak zainduko duela. Molefek ukatu egin du, duintasunez, eskaini dioten laguntza psikologikoa].

MOLEFE: Ez dut laguntza psikologikorik behar. Bakea baino ez dut nahi.

[Errezatu, kantatu eta barreiatu egin gara, bihotza estuturik. *Cry my beloved country].*

Tximino bat nola harrapatu

Lwazi etorri zait bila. Familia duela Vryheideko townshipean eta ia harekin joan nahi dudan. Betikoa: blokeez egindako etxe berdin-berdinak, hesiak, karrikak asfaltatu gabe, lanik ezean jendea egonean, edaten edo marihuana erretzen. Township honek, dena dela, ez ditu Sowetoko kuntza txarrak; zaborrik ez dago bidegurutzeetan, belar soroak daude etxe artean eta, Soweton ez bezala, bizilagunei ez zaie izua nabari aurpegian.

Izeba-osabenean sartu-atera egin dugu. Lwaziren lehengusua mozkor-mozkor eginik, hirira joateko tematu delakoz.

Han abiatu gara Bhekuzulu townshipetik Vryheid herrira. Harrigarria da beti bi izate hau. Apartheidaren ondorioa: Johannesburg daukazu eta Soweto, Cape Town eta Guguletu, Durban eta Umlazi, Vryheid eta Bhukezulu. Beti bi hiri, beti bi herri, zuria eta beltza.

Billar-taberna batean sartu gara. Denak dira gizaki beltzak, mekanikari itxurako errubio bat

eta ni izan ezik. Zenbait buzoz jantzita daude, lanetik zuzenean etorri izan balira bezala, zerbeza eskuan, billarreko jokaldiei begira. Giro isila dago, ez da musikarik eta jendeak ere ez du hitz egiten.

– Zure aurka jokatu nahi dut –erronka egin dit Lwaziren lehengusuak.

– Beltzek asko jokatzen dute billarrean –abisatu dit Lwazik–, eta baita golfean ere.

Lwaziren lehengusuak lan ikaragarriak ditu bolari jotzeko, horren dago mozkorrik.

– Zulu kultura oso kultura sakona da, baina apartheid garaian suntsitu egin zuten –ari zait hitzak zizaka ezin ahoskatuz.

Errubioa zeharka begira nabaritu dut ondoko billarretik.

– Baina jende zuriak dena izorratu zuen. Orain zulu kultura...

Errubioa suak harturik hurbildu zaigu.

– Ez iezaiok kaka esplikatu tipo honi –esan dio Lwaziren lehengusuari.

– Nola?

– Gezurretan ari haiz. Tipo hau kanpotarra duk, eta hi azaltzen ari hatzaiona gezurra duk,

gezur hutsa! Ikusten duzu tipo hau... –esan dit Lwaziren lehengusua seinalatuz–. Maisua da. Zuk uste duzu maisu bat ari daitekeela kuntza hauetan? Morroi honek bihar irakastera joan behar du. Zer irakas dezake honek?

Haserre bidean da eztabaida. Lwazi eta biok aparte gelditu gara. Zuria zulueraz mintzatzen hasi da garrasika. Taberna osoa begira daukagu.

– Begira –hasi zait berriz ingeleses zuria–, nik tipo honi errespetua diot –Lwazi seinalatuz–, lan egiten du, eta ongi egin gainera. Baina beste horri ez! Belztasuna aitzakiatzat hartuta, pikorik ere ez du egiten-eta! Zu kanpotarra zara, eta nik hemengo adarkera zuzena eraman dezazun nahi dut.

Barran buzoz eseritako gazte beltzari deitu dio nagusi jarreraz.

– Mutiko honek nirekin lan egiten du tailerrean –mutikoa herabe dago–. Horrelako jendearekin edonora joan daiteke. Ni ez naiz arrazista, horrek esanen dizu –adierazi dit, tabernako jabea seinalatuz–, egunero etortzen naiz hona billarrean aritzera! Baina... zuk badakizu nola harrapatu tximino bat? Bada, hartu kalabaza handi

bat eta zulo bat egin; sartu barruan kakahuete batzuk; tximinoa ailegatzen denean, eskua barnean sartuko du eta gero ezin izanen du atera, kakahueteak harturik esku betea ezin duelakoz zulotik atera; kakahueteak laxatuko balitu, aise aterako luke eskua; baina ez ditu laxatzen; kalabaza zintzilika ezin du arboletara igo... eta harrapatua duzu. Horixe egiten ari dira horrelako morroiak Hego Afrikarekin.

Mailu-Gizona

Bueltan noa, Durbanera, TRCko eskifaiarekin. Bideberrian sute izugarria dago, kamioi bat irauli ondoren azukre-kanabera soroak su hartu baitu. Zeruraino altxatzen dira garrak.

– Non gaude? –galdetu du furgoneta atzean esnatu berritako batek.

– Empangeni inguruan –erantzun du Lwazik.

– Empangeni, Simon Mpungoseren herria!

– Nor da Mpungose hori? –galdetu dut, lider politiko bat dela entzuteko ustean.

– Mailu-Gizona! Ez dakizu nor den? Mailu-Gizona zen –hasi da kontu kontari– hemengo herritar zuriak ikaratu zituen zulua...

Inguru hauetako etxalde jabe gehientsuenak britishak dira, 80etako hasieran artean ‘estilo kolonialeko bizimodua’ zeraman jende klase hori. Badakizu, etxe dotoreko jendea, gaztetan zuluekin hazi... eta heldutakoan zuri bilakaturikoa. Etxetako Ingalaterra daukate horiek, eta etxera itzuli ez-itzuli dabiltza... zuluek, boy eta girl izateari utzirik (hauxe duk hauxe), errespe-

tua galtzen hasi eta zuri bilakatu nahi dutelakoz. Hitz batean esateko, Osaba Tom irribarretsuz beteriko lehengo karrikak itsaso beltz ulergaitz eta bortitz bilakatzen hasi zitzaizkien.

Gau batez bikote zuri bat zauriturik agertu zen etxean. Zuluek zerriak hiltzeko erabiltzen duten mailuaz eginda zeuden zauriak. Hiltzaileak ukitu ere ez zuen egin etxeko haurra.

Egunkariak-eta berehala hasi dira gertatutakoari buruzko hipotesiak egiten. Nor ote da Mailu-Gizona? ANC edo PACeko militante bat? Laido pertsonal batengatik mindutako zulua? Boy izateaz nazkatu eta nagusiak hiltzera jo zuen bat? Ero bat? Zuriak beldurturik daude. Beltz guztiak susmopean. Gauez kaletik barna dabilen edozein beltz galdeka dezake Poliziak. Arma salmentak gora egin du! Egunkariek histeria giroaren aurka aholkatu badute ere, sua bezala hedatu da.

Mailu-Gizonak zurien beltzekiko izua sinbolizatzen zuen; mailukadek haien bizimoduari erreparatzera behartzen zituzten. Behin erreparatuz gero, jakina, errudun ziren! Zerabilten bizi oparo,

luxuzko eta lasaia mehatxatzera etorria zen Mailu-Gizona!

Hurrengoak Johannesburgeko bi morroi izan ziren, uste dut. Ez naiz haien izenekin akordatzen. Dena dela, jatetxe afrikar bat zeukaten. Ongi zihoakien negozioa: turistak, jende ugari. Beltzak maite zituzten, zuluen kultura entenditzen zuten, marihuana erretzen zuten... Beltzak xaxatzen zituen gaizkile horrengatik ez balitz! Herri inguruko jauregi batean bizi ziren bi morroiak, baten emaztea eta seme-alabak. Atera da donadoa gau batez garagardo batzuk hartzera eta, itzulitakoan, gurasoen gelan aurkitu ditu haurrak negarrez. Aitak burua mailukadaz barrabarra eginda, ama telefonoa eskuetan odoletan itorik.

Hilketa gehiago gertatu ziren. Poliziak, ezta arrastorik apurrena ere. Poliziburua kargutik kentzekotan dabiltza... harik eta norbaitek zuluen erreserban entzundako tiroen berri eman arte. Polizia hara joan eta gizon bat aurkituko du ohean, zauriturik. Anaiordeak zauritu omen du. Ihes egin omen du herriko alde zurira, han lan

egiten baitu emaztegaiak. Izena Simon Mpungose.

Atxilotzean, «ni naiz Mailu-Gizona» aitortuko du. Alimaleko aisia hartuko dute zuri guztiek. Berriz ere zuzen daude, arrisku beltzak sekula mehatxatuko ez dituelako ustean.

1984an egin zen epaiketa. Barnean, zurien Justiziaren sinbolo guztiak. Kanpoan, beltzak beren heroiaren alde, garrasika.

Simonek defentsa errefusatu eta soil-soilik esan zuen: «Gaur gertatutakoa Babertongo kartzelan ikusi nuen».

Simonen istorioa zulu arruntaren istorioa da. Erreserban jaiotako edozein bezala, batere etorkizunik gabe, gaztea zela hasi zen osten. Harrapatu egin zuten. Epaiketan ezin izan zuen azaldu goseak eraman zuela ostera. Inportantziazko kasuetan ez bazen, beltzek ez zutelakoz ez defentsarik ez ahotsik. Ezdeuskeria horregatik zazpi urteko zigorra ezarri zioten, non eta Hego Afrikako kartzelarik gogorrenean: Barbetonen! Han gorriak pasatu zituen, eta lauzpabost aldiz saiatu zen bere burua urkatzen.

Eta orduan amets bat izan zuen: Simon erraldoi bilakatuko da ametsetan; eta kartzela hautsi eta pasaeran harrapatutako zuri guztiak hilen ditu. Harik eta bidean botere handiko figura zuri bat aurkitu arte. Hura hil ondoren, Simon tamaina normaleko bihurtuko da atzera berriz, atxilotu eginen dute eta... hiltzera zigortu. «Horrela akabatuko da», esan omen zuen, «nire kalbarioa». Zulu batek aintzat hartu behar du horrelako ametsa, haren arbasoen ahotsa baita.

Askatzeko garaia iritsi zitzaionean, kartzelan eusteko erregutu zion zuzendariari, baina 1983an askatu egin zuten, rand gutxi batzuk poltsikoan eta soineko arroparekin.

Empangenira itzuli zen Simon, lan bila. Baina ez zeukan paserik. Azkenean lortu zuen hiru astetarako pasea, eta lan bila hasi zen. Besteak beste, nekazari afrikaner batengana jo zuen; hark lana eman beharrean, pasea hartu eta hautsi egin zion muturren aurrean. Hor erabaki omen zuen Simonek ez zegoela ezer egiterik, hor erabaki omen zuen «itzalei jarraiki basoan barneratzea». Horrek zera esan nahi du zulueraz: hiltzea.

Simonek argi esan zuen zuriek bultzatu zutela egin zuena egitera, ez zuela ulertzen bera kristaua izanik beste kristau batzuek nola trata zezaketen hain gaizki. Beraz, kartzelako ametsari jarraituz zuriak erailtzeari ekin zion.

[Garrek gau epela argitzen dute. Aurreraatzera dabiltza gidariak autoetatik aterata].

Baina Simonen istorioak badu egunkarietan agertu ez zen beste adar bat. Simon *oker* jaio zen.

1914 inguruan bazen zulu buruzagi bat, zeinak edadeturik Musa izeneko alaba izan baitzuen. Musa zen aitaren kuttuna. Hortan, Musa haurdun gelditu zen ezkongabean. Zuluek ezkon aurreko sexu harremanak debeku dituzte. Edadeko emakumeek maiz aztertzen dituzte neskak, birjina dirauten jakiteko. Musak, ordea, ez zuen aita nor zen esan nahi. Eskandalua izan zen. Buruzagi baten alaba ume batez erditu ezkongabean!

Haurra kozkortzen hasi zenean, Musa haurdun gelditu zen atzera berriz. Emakumeak gogor jarri ziren oraingoan: «Nor da aita?». Musak anaia seinalatu zuen. Mendebaldeko batendako

lehengusuak, eta beharbada lehengusu urrunak baino ez ziren Musa eta anaia, baina zuluendako anai-arrebak ziren; eta intzestua ez da debeku ume malformatuak jaio daitezkeelako, arbasoak iraintzen dituelako baizik.

Zulu guztiek gurtzen dituzte arbasoak. Zulua kristaua baldin bada, arbasoak Kristo eta haren arteko bitartekariak dira; zulua paganoa bada, arbasoak jainkoak dira. Zenbait antropologok jainko bainoago *itzal* deitzen badituzte ere, zulu batendako jainkoak dira, eta jainkoek, arbasoek, lege zaharrarekiko obedientzia agintzen dute. Ezin duzu zure ama edo aitaren leinuko inorekin ezkondu; intzestua, beraz, izugarrikeria da zulu batendako, arbasoengan istiluak eragiten dituelako. Umea ernetu den unean, aita eta amaren leinukoak biltzen direnean, izugarrizko istilua sortuko da, senar-emazteak leinu berekoak baldin badira. Horrelako batzar batek itzalak erotu egiten ditu, eta leinu osoa madarikatzen dute. Barkazio modu bakarra dago: bekatuan eroritakoak hiltzea!

Baina gizon zuriaren agindupean bizi zirenez, ezin zituzten hil; eta tributik kanporatzea eraba-

ki zuten. Musa eta anaia Hego Afrikan barna ibili ziren erromes.

50etan haien semeetako bat alargun batekin bildu eta Simon jaio zen: *oker*.

Empangenira itzuli zen Simon, aiton-amonen leinura. Ez zuten hartu nahi izan. Amaren familiarengana jo zuen berriz, eta han halabeharrez hartu zuten. Baztertua zen, proskritoa.

Badakizu, Mailu-Gizona hil zutenean, zer esan zuten Simonen leinuko zaharrek?... «Bazen garaia!».

Cry my beloved country

Charles de Gaulle aireportua, Paris. Bitxia da ikustea nola barreiatzen diren Cape Towndik hona hamalau orduz hegazkin berean egondakoak. Bukatu da nire Hego Afrikarekiko lotura. Ez nago inon, aireportuan egotea inon ez egotea baita, baina dagoeneko atzean utzi dut Afrika. Atzean utzi ditut hari lotzen ninduten bistako lotura bakarrak: bidaideak.

Harat honaka igaro ditut Miarritzera eramanen nauen abioia hartzeko dauzkadan lau orduak. Nagitu egiten du ezagunera bueltatzeak. Nekeza baita, gauzak kanpotik ikusten dituen bideko izateari utzi eta... hau naiz eta honen alde edo kontra nagoka hasi beharra. Dena dela, gozoa da etxera itzultzea, kantak dioen moduan *etxea non den* ez badakigu ere.

– Pirinio Atlantikoetakoa zara? –galdetu dit aldameneko bidaiariak Euskal Herrirako abioian.

Ez nago ba ni elkarrizketa ergeletarako.

– Hainbeste igartzen zait? –erantzun diot, zakarkeria ezkutatu gabe.

– Miarritzera noa lanera –berrogei urteko gizonkotea da, betaurrekoduna–. Han bada abioiendako motorrak egiten dituen lantegia, eta horra noa. Hegoafrikarra naiz.

Poztu egin naiz, galdua uste nuena bidera atera baitzait berriz. Euskal Herriraino eramanen dut Hego Afrika.

– Ni handik heldu naiz, sei hilabete igaro ondoren.

– A bai?

Afrikanerra da eta Pretorian bizi da. Topikoetan aritu gara, batak bestea neurtuz: paisaien zoragarria, urrea, hegazkinen motorrak, Cape Towngo ardoak... harik eta egoera politikoarekin tupust egin dugun arte.

– Desastrea da hango egoera politikoa. Mandelaren Gobernuari eskuetatik joaten ari zaio.

– Tira, denbora behar da –erantzun diot–. Kontuan har ezazu nazio bat ezin dela lau urtetan konpondu. Apar theidak utzitako egoera ez da gozoa!

– Bon... orain mundu guztiak kritikatzen du National Party, baina ez zen hain txarra izan. Niretako gobernu hau baino askoz hobea izan zen.

Hara!, itxi da zirkulua. Modu beretsuan hasi eta bukatuko dut bidaia. Afrikanerretik afrikanerrera.

Lur hartu dugu Miarritzeko aireportuan. Lagunak, poza, Euskal Herria. *Euskaldunon Egunkaria* paratu dit lagun batek eskuetan. Begiratua bota diot. Egiaztaturik gelditu zait hemengo gauzek berean segitzen duteneko susmoa.

– Cry my beloved country –esan diot lagunari hasperenka.

– Zer? –galdetu dit lagunak.

– Ezer ez, hegoafrikarren kontuak.